


Ernio inguruan

**batu eta
aldentzen
gaituena**

Erniozaleak Kultur Elkarte



Itsas-lainoen hustu lekua
uso banden bidetxurra
pago zaharren magal malkarra
larremotx goxoko lurra
erromes haitza, bakoitzak bere
sinismenaren ikurra
denek oinpean maite zaituzten
mirestutako gailurra

Zure haitzetan gordea dago
herri baten memoria
lizar-makilen borroka hura
eta Erroma eroria
zurean datza bereiztu ezin den
bikoiztutako zoria
historiaren kondaira eta
kondairaren historia

Zenbat ostiral santu goizetan
marmar eta harri hotsak
irailerako gabetzen dira
Erniozaleen lotsak
zure soinean urtu izan ditu
erromeriaren pozak
udaberriaren elurra gisan
udazkenean bihotzak

Larrunek agur egiten dizu
egunsenti bakoitzean
Txindoki eta Aizkorrik berdin
Izarraitzek iluntzean
zure malkoak gazitzen dira
Kantauri urdin hotzean
euri freskoak goxatu zaitzan
hegohaizeak jotzean

J.M. Irazu

Ernio inguruan

Ernio

inguruan

Aurkezpena	6
Historia, gizakia eta natura	9
Natura Ernion	10
Herriak	
Asteasu	16
Larraul	20
Alkiza	24
Hernalde	28
Albiztur	32
Bidegoian	36
Errezil	40
Aia	44
Festak eta erromeriak	48
Artzantza Ernion	52
Ohiturak eta sinesmenak	58
Idazlanak (Pako Aristi, Josu Iztueta y Koldo Tapia)	62
Nola erabili gida hau	72
Seinaleztapena eta ibilbideak	73
Ernio inguruko ibilbideak	74
Ibilbideak eta igoerak	75
P.R. Ibilbideak	
Asteasu (PR-Gi 76)	76
Larraul (PR-Gi 77)	80
Alkiza (PR-Gi 78)	84
Alkiza (PR-Gi 79)	88
Hernalde (PR-Gi 80)	92
Albiztur (PR-Gi 81)	96
Bidegoian(PR-Gi 82)	100
Errezil (PR-Gi 83)	104
Aia (PR-Gi 84)	108
Ernioko Igoerak	
Iturriotz	112
Etumeta	114
Trintxera	116
Urkizu	118
Erniopeko Ibilbidea	120
Zerbitzuak	128
Bibliografia	131
Ibilbide eta igoeren aurkibidea	134
Aireko argazkiak	135
Ibilbideen mapa	157
Igoeren mapa	158

Gaien deskribapena:

Antxon Aguirre Sorondo (Herriak. Festak eta Erromeriak Artzantza Ernion. Ohiturak eta sinesmenak)
Iñaki Aizpuru (Natura Ernion)
Pako Aristi (Entzun ahal baneza mendiaren hizkuntza)
Koldo Tapia (Ernio, sukaldeko leihotik)
Josu Iztueta (Erniori buruzko mila gogoeta)

Ibilbideen deskribapena:

Jesús Martínez (PR-Ibilbideak.Erniopeko ibilbidea)
Joxean Azkue (Ernioko igoerak)

Diseinua:

ZUT creativos

Koordinazioa eta edizioa:

Erniozaleak Kultur Elkarte

Lehenengo argitaraldia: 1999ko ekainan.

ISBN: 84-930870-1-7

Legezko gordailua: SS -551/99

Maketazioa eta imprimaketa:

C. G. Otzarreta - Zarautz

Ernio da, itsasertetik 15 kilometro eskasera 1.000 metrotik gora altxatzen den Gipuzkoako mendia. Beraren kokagunetik, duen xarma naturalak eta atxikitzen zaizkion tradizio majikoek egiten dute erakargarri hainbat eta hainbat mendizalarentzat. Era berean jendetza handien bilgune da Aste Santuan (Gurutze-Bidea) eta, batez ere, iraileko erromerietan.

Ernio eta bere inguruneari buruzko gidaliburu hau Erniozaleak Kultur Elkartearen lehen argitalpena da. Elkarte hau 1997ko hasieran sortu zen Ernio inguratzen duten zortzi herrietako biztanleen ekimenez. Bitan banatzen gaituen hesia izan arren, Ernio guretzat zaindu eta indartu behar dugun gune bat batzen duen benetako erreferentzia kulturala da.

Gure lehen ekintza Ernioko gurutze handiaren 50. urteurrenaren inguruko ospakizunen antolaketa izan zen. Ospakizun hauek bi mailatan planteatu genituen: batetik, gurutzea eraiki zutenei omenaldi bat antolatu genien, eta bestetik, inguru honetako zenbait mendizalaren desio bat errealitate bihurtu genuen, hau da, uztai sendagarriak dituen lehen gurutzearen ondoan zegoen borda berreraikitzea.

Argitalpen hau azken bi urte hauetan murgildurik eduki gaituzten ekimen batzuen haritik dator; besteak beste, senderismorako bideen garbiketa, balizajea eta ibilbideen zehaztapena, eta Ernio inguruko zortzi herriak elkartuz egingo den ibilaldi luzearen antolaketa.

Liburuxka hau, nekazal edota baso ustiapenerako egin diren hainbat



eta hainbat bide dela eta, iristea zaila den zenbait lekutara ziurtasunez joan zaitezzen baliagarri izango zaizu. Bestalde, Ernio mazizoa ezezaguna bazaizu, mendi ibilbideei buruzko bigarren atalean azaldu ditugun bide ezagunen azalpenaz baliatuz zaitezke. Azkenik, Erniopeko ibilaldiaren deskribapenak, mendeetan zehar herri hauen arteko komunikaziorako erabilitako herri-bideak ezagutaraziko dizkizu.

Era berean, inguruneke fauna eta flora, eta antzinako tradizio eta kondairen berri ere irakurriko duzu. Herrien atalean, beste zenbait daturen artean, eraikin interesgarrien berri ere emango zaizu. Azkenik, idazlan-sortatxo bat ere prestatu dugu ikuspegi metaforiko baten bidez ere ezagutu dezazun gipuzkoar mendizale guztien bihotzean kokaturik dagoen edertasun handiko mendi hau.

Erniozaleak Kultur Elkarte

argazkiak

Xabier Artola: 9, 10, 11-1, 11-2, 12, 13, 15, 24, 25, 26, 27-1, 27-2, 32, 34, 38-1, 40, 41, 43, 49, 51, 53, 54-1, 58, 59-1, 60, 61, 62, 63, 67-2, 69-2, 71-1, 78-1, 83-1, 85-1, 85-2, 86, 89-1, 89-2, 90, 95-2, 96-1, 99, 102-1, 105, 107-1, 112, 113-2, 117-2, 121-1, 122, 123.

Javier Juanes: 14, 16, 17, 18, 20, 21, 37, 52, 64, 65, 67-1, 71-2, 77-1, 97, 98-1, 103, 107-2, 111, 117-1, 129.

J. A. Lertxundi: 29-2, 30, 31, 35, 77-2, 79, 81, 82, 83-2, 87, 91-1, 91-2, 93, 98-2, 110-1, 110-2, 121-2, 127.

Joxean Azkue: 19-2, 36, 38-2, 39, 42, 59-2, 75, 78-2, 94, 101, 106, 115-1, 115-2, 116, 118, 119-1, 124, 126.

Julen Unanue: 19-1, 22, 29-1, 33, 50-2, 54-2, 55, 56, 57, 68, 70, 102-2, 113-1, 114, 125.

J. L. Iturburu: 44, 45, 46, 47, 109.

Juanjo Ibarrola: 48, 119-2.

I. Ojanguren: 50-1.

Martin Leunda: 95-1.

Amagoia Otegi: 6.

AIRETIKO ARGAZKIAK: PAISAJES ESPAÑOLES S.A.

Esker onak:

Foru Aldundiaren Garraio eta errepide departamentua.

Liburuxka hau burutzen lagundu duten pertsona guztiei.



Historia,
gizakia eta
natura

Natura Ernio

Gipuzkoan mendi tontorrek hegoaldean daude gehienbat; gailurrik garaienak ere bertan daude, Aralar eta Aizkorri mendilerroetan. Kostaldean, aldiz, erliebe suabeagoa da; baina Ernio eta Gatzume arteko mendialdea gailentzen da; izan ere, itsas ondoan egonda inguruetakoa bailaren gainetik dezente goia atzeratzen da, i.g. 1000 metro baino gehiagotara ere helduz. Paraje horretako gaina, bestalde, arkaitz-lekua da; neguan, behin baino gehiagotan, elurrez estalita dagoela dirudi.



Bailaraz eta muinoz inguratutako Ernio tontor honek irla ekologiko bat osatzen du; izan ere, inguruko bailaratan ez bezalako animalia eta landare komunitatea dago, hauetatik gehienak interes handikoak gainera. Horrez gain, bertako klima eta maldak giza asentamentuentzat arazo gairdiezinak direla kontuan hartzen badugu, dudarik gabe gunen pribilegiatu batetaz ari gara: berez daukan interesa ez ezik, gizakiak ia ukitu gabeko parajea da, inguruko bailarak ez bezala.

Irla ekologiko honetan, mendiaren gerria inguratzen duten ekosistema eta fauna nahiz flora-komunitateak daude -badirudi terrazak daudela-. Era berean, errekek eta ubideak daude, maila edo estai guztiak zeharkatuz. Honela, gure ibilbidean goialdera goazen ahala, estai horiek banan-banan ezagutzen joan gaitetzke.

Haritzak eta koniferoak Alkizan.

Txanxangorria.



1. Estaia muinotarra

1.1. Hariztiak

Haritz pedunkulatua (*Quercus robur*) ugariagoa den basoak dira nagusi behealdean. Gaur, haritz batzuk besterik ez dira geratzen; izan ere, Ernio beheko sakanetan bereziki, ia denak belardi atlantiar eta pinu landaketekin ordezkatuak izan dira (*Pinus radiata*).

Haritzarekin batera beste hainbat zuhaitz dago, esaterako lizarra (*Fraxinus excelsior*), hurritza (*Crylus avellana*), gaztainondoa (*Castanea savita*), astigarra (*Acer campestre*) eta sahasa (*Salix atrocinerea*).

Klase askotako zuhaitzak nahasita dauden hariztia hegaztientzako oso habitat egokia da, esate baterako okil handiarentzat (*Dendrocopos major*) eta gerri-txori arruntarentzat (*Certhia braquidactila*). Baso barrenean ugariak dira txinbo kaskabeltzak (*Sylvia atricapilla*) eta txio arruntak (*Phyllocopus collybita*). Hegazti harraparien artean, berriz, hauek daude: gabiraia (*Accipiter nisus*), zapelata (*Buteo buteo*), zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*) eta arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*).

Ugaztunek ere babeseta eta janaria bertan aurkitzen dute. Honako hauek aipa genitzake: Millet-en satitsua (*Sorex coronatus*), lursagu piriniarra (*Pytymys pyrenaicus*) eta basasagua (*Apodemus sylvaticus*). Haragijaleei buruz ere beste horrenbeste esan daiteke: hauen bizitzarako, baso hauek hil edo biziko garrantzia dute. Ohikoenak hauek dira: erbinudea (*Mustela nivalis*), lepazuria (*Martes foina*) eta katajineta (*Genetta genetta*).



Belardi menditarrak, Sagain-zelaian.



1.2. Belardi eta laborantza atlantiarrak

Hauak, baso-landaketekin batera, kantabriar isurialdeko paisaiaren elementu nagusienak dira. Belardien erabilera anitza da; baina, batezbeste, honela mantentzen dira: simaurtuz, urtean bi edo hiru aldiz belarra moztuz eta neguan larratuz. Hain egokiak ez diren belardietan, ez da belarrik mozten, larratu baino.

Belardietako floran landare mota anitz aurki daiteke. Gramineoen artean, lollobelarra (*Lolium perenne*) edo daktiloa (*Dactylis glomerata*) daude; leguminosoen artean, berriz, hirusta mota ezberdinak ditugu: hirusta gorria (*Trifolium pratense*) edo hirusta zuria (*Trifolium repens*). Alpapa (*Medicago savita*) eta lollobelarra hainbat lurretan ereiten da, bazka bezala oso ona delako.

Paraje honetan dauden anfibio eta narrasti ia guztiak, bertako landazabaletan daudenak dira: anfibioen artean, uhandre palmatua (*Triturus helveticus*), txantxikua (*Alytes obstetricas*) edo apo arrunta (*Bufo bufo*); narrastien artean, bestalde, musker berdea (*Lacerta viridis*), horma-sugandila (*Podarcis muralis*), zirauna (*Anguis fragilis*) edo kantabriar sugegoria (*Vipera seoanei*).

Atlantiar landazabalean aurki daitezkeen hegaztien artean, nagusienak baso ondolik eta gune irekietan ibiltzen direnak ditugu; esate baterako, uda-txirta (*Anthus trivialis*), zozoa (*Turdus merula*) eta lepizulia (*Jinx torquilla*). Harraparien artean, berriz, zapelatzeta eta belatzeta (*Falco tinnunculus*) –ehiza egunez eta gune irekietan egiten dute–; gauez ibiltzen direnen artean, bestalde, urubia (*Strix aluco*) da nagusi, hontza (*Tyto alba*) nekezago ikusten den bitartean.

Mikrougaztunen aniztasuna ere zabala da. Honela, hor ditugu trikuia (*Erinaceus europaeus*), satitsu arrunta (*Crocidula russula*) eta uzta-sagua (*Micromis minutus*); espezie antropofiloen artean, berriz, arratoi beltza (*Rattus rattus*), arratoi arrunta (*Rattus norvegicus*) eta etxe-sagua (*Mus musculus*) daude.

Mazizoaren iparraldeko pagadi eta goi-belardiak.



2. Estaia menditarra

2.1. Pagadiak

Igotzen goazen heinean, hariztiak amaitu eta pagadiak hasten dira (*Fagus sylvatica*). Hariztegiak ez bezala, pagadiak ez dute beste zuhaitz motarik onartzen, gorosti (*Ilex aquifolium*) batzuk izan ezik. Pagadi hauetako faunak, atlantiar hariztietakoein konparatuz gero, ez du horrenbesteko ezberdintasun koitatiborik, bai, ordea, antolakuntza eta egiturari dagokionez; izan ere, pagadietako fauna komunitatea ez da atlantiar harizti-baso nahasietan zegoena bezain ugaria eta aberatsa, pagadia mendian gora bakarrik hedatzen delako.

Pagadian aurki daitezkeen anfibioetako batzuk hauexek dira: arrabioa (*Salamandra salamandra*) eta baso-igel gorria (*Rana temporaria*). Narrastien artean, berriz, hauak: sugandila bizierrulea (*Lacerta vivipara*) eta suge leuna (*Cornella austriaca*); azken hau, sugandila harrapari amorratua da. Hegaztien artean, bestalde, garrastarrea (*Turdus viscivorus*), kaskabeltz txikia (*Parus palustris*) eta gailupa (*Parrhula parrhula*). Ugaztunen ere ezin ahaztu: lursagu gorria (*Clethrionomys glareolus*) eta muxar grisa (*Glis glis*). Basurdea (*Sus scrofa*) edonon ibiltzen da, baina lo lasai egiteko eta pakean ugaltzeko pagadia beharrezkoa du.

2.2. Txilardiak – Otadiak – Garo-lekuak

Hiru hauak landare-talde multzo bat osatzen dute. Honek, alderdi bat baino gehiago erakusten digu; baina, argi dagoena da elkarren artean erlazioz atuta daudela. Kantabriar isurialdeko sastraka motarik ugariena da, eta baso azidofilo ezberdinen ordezkari daude (hariztiak, pagadiak eta abar). Lur elkor eta azidoenetan hauak dira nagusi: txilarra (*Calluna vulgaris*), Erica cinerea, E. vagans, Daboecia cantabrica), habi-sastraka (*Vaccinium myrtillus*), otea (*Ulex gallii*) eta garoa (*Pteridium aquilinum*). Txilar sastraken artean azienda larrean aritu izanagatik "bide" batzuk daude eginda eta, hauetan, *Agrostis curtisii* izeneko ugaria da, lur elkorra eta harea ere bai.

Toki askotan gizakiak garoa zaindu egin du, zegokion bezala segatuz; izan ere, garoa baserrietan azizien azpiak egiteko erabiltzen zen. Guzti horri esker, garoa goi-estrato espezifikoa izatera iritsi da.



Gorostia.

2.3. Belardi menditarrak

Belardi hauetan ez dago malkarrik, ezta sakanik ere: erliebea berdina, laua da. Bertan, artaldeak aritzen dira larrean nagusiki; behor eta behi-azienda, berriz, gutxi ibiltzen da. Belardi hauek, Euskal Herriko mazizorik garaienetakoen lekurik gehienetan daude (Aralar mendilerroa, Aizkorri, Gorbea, Entzia eta abar). Belardi hauen jatorria argi dago: antzina-antzinatik artzainek pagadiak lermatu ohi dituzte, orduan eta belardi zabalagoak sortuz. Hainbat unetan, ordea, txilarra nahiz otea dezente ageri da.

Belardi menditarretan dauden landare nagusienetakoak hauek dira: *Festuca mycophylla*, *Carex caryophylla*, *Luzula campestris*, *Galium saxatile*, *Merendera pyrenaica* eta abar.

Albitza (*Brachypodium rupestre*) Euskal Herriko belarrik ugarienetakoa da; basoetako argiune, belardi, gutxi zaindutako larre, ezertarako erabiltzen ez diren lur zati eta abar estaltzen ditu, azido gehiago duten lurrak saihestuz. Albitz mota hau sarzzen den lekuan, bere hosto zabal, zakar eta ugaria izaten da jaun eta jabe.

Belardi menditarrean honako hegaztiak ibiltzen dira: hegatzabala (*Alanda arvensis*), mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), buztanzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*). Paraje hauek harraparietzat egokiak dira; honela, belatz gorria (*Falco trinnunculus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*) ditugu. Edozein modutan, habitat honetako harraparik bereizgarriena mirotz zuria da (*Circus cyaneus*); espezie hau, galtzeko arriskuan ez dago gainera, mirotz zurien habi asko daudelako.

Habitat honetan, bestalde, erbi-lekurik hoberenak daude (*Lepus capensis*). Haragijale ohikoenak azkonarra (*Meles meles*) eta, batez ere, azeria dira (*Vulpes vulpes*).

2.4. Harkaitzegietako landaretza eta kararizko hartxingadiak

Kararria nagusi den mendietako harkaitzegietan flora anitza eta berezia aurki daiteke. Pitzadura nahiz zartaduretan, besteak beste, honako landare hauek aurki genitzake: *Asplenium viride*, *Polystichum lonchitis*, *Saxifraga trifurcata*, *Hutchinsia alpina* –*auerswaldii* subespezie-, *Draba dedeana* eta abar.

Ernion iparraldera begira dauden itsaslabarretako pitzaduretan honako hauek aurki daitezke: *Dethawia tenuifolia*, *Potentilla alchimilloides*, *Aquilegia pyrenaica*,

Anemone baldensis -*pavoniana* subespezie-; erlaitz kozkorretan, berriz, *Sesleria albicans* eta *Carex sempervirens* dira gehien ikus daitezkeenak. Horiezaz gainera, honako landare hauek ere bizi dira: *Globularia nudicaulis*, *Rosa pendulina*, *Ranunculus thora*, *R. Carinthiacus* eta *Pulsatilla alpina*; azken hiru hauek mendi altuetakoak dira, Euskal Herrian nekez ikusten direnak gainera.

Erlaitz ospel hauen behealdean dauden zartadura handietan eta lapiazeko zokogunetan lur gozoa eta harro-harroa degoenez, belar-multzo dezenteak sortzen dira: megaforbioak. Honela, hor ditugu, esaterako, *Aconitum variegatum* –*pyrenaicum* subespezie-, *Aconitum lamarckii*, *Myrhis odorata* eta abar; gehienak Euskal Autonomi Erkidegoan arraroak direnak.

Zuhaitz berezia: Albizturko Douglas izeia

Zuhaitz hau Albizturko herriaren inguruan kokatua dago; hain zuzen ere, 40. hamarkadan aldatu zen Douglas izeidi batean. Izeidiaren erdialdean, zaharragoak eta handiagoak diren 20 bat ale daude, Gumersindo Azurmendik, 20. hamarkadan landutakoak; Azurmendi jauna izan zen Euskal Autonomi Erkidegoan zuhaitz espezie hau aldatzen aitzindaria. Eta honela, bada, izei hauetako bat zuhaitz berezia aukatua izan da.

Zuhaitz dotore hau, erreka baten ertzean dago. Luzera ikaragarria du: 55 metrotik gora -16 pisutako etxebizitza, gutxi gora-behera-. Enborra ere ikusgarria du: bi pertsonetik, besoak luzatuta ezin dute besarkatu, eta hortik pentsatu!

Egotez, izei hau, Tolosako udalerrian dago, Albizturko mugatik gertu. Izeia dagoen tokira joateko, berriz, Tolosako bidea hartu behar da, Azpeitia bidean. Albizturrera hartzeko bidegurutzetik aurrera 1,5 kilometro egin ondoren, ezkerrera hormigoizko bide bat hartzen da, segituan gora egiten duena. Mendi-hegalaren erdi paretik 20 bat minututako ibilbidea egin ondoren, han azaltzen dira zuhaitz erraldoi hauek. Bidearen ezkerretatik oinezkoentzako bide bihurri bat ateratzen da, Albizturko Douglas izei famatu horretara eramaten duena hain zuzen.



Arkaitzak lurrazalean, larreak eta pagadiak, Gazumen.

Asteasu

Elizmendi, Ernioaren irudiarekin.



Asteasu Donostiatik 23 kilometrora eta Billabonatik 3ra dagoen herria da. Bere koordenatuak, berriz, hauek dira: 1° 35' eki-longitudea eta 43° 12' 20'' ipar-latitudea. Honako auzo-herriak ditu: iparraldetik, Aia; hegoaldetik, Alkiza eta Larraul; ekialdetik, Zizurkil; eta, hegoaldetik, Errezil. Bertako mendiak Mañaka, Otarrazabal, Saskarate-aitza eta Upazaingaña dira. Bere garaian Larrazkos eta Azkonobietako basoak famatuak izan ziren; bi baso-lur hauen azalera izugarria zen, 5000 area izateraino iritsi baitziren.

Asteasuk 16,9 km²-ko azalera du eta 1182 biztanle ditu (97ko abendua): 635 gizonetako eta 547 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 70 pertsonakoa da.

Komunikazioak: Donostia-Tolosa Tranbia Konpainia. Tel.: 943 361740. Asteasu-Donostia eta Asteasu-Tolosa.

Udaletxea: Lege Zaharran enparantza. 20.159 Asteasu. Tel.: 943 691907
Faxa: 943 693106. Posta-e: asteasu@udal.gipuzkoa.net

Historia

Diotenez Alfonso VIII.a, 1203an, izan omen zen Asteasuri armarría eman ziona. Mendearen hasierako testu batek honela dio: "Zilarrezko atzealdean hiru makila gorri daude; hauetan, suge gorri bat kiribiltzen da; goialdean, alde banatan, gora begira dauden giltza beltzekin eratutako bi ikoroski daude, eta hauen erdian pontifize tiara bat dago. Kanpoaldeko ertzean inskripzio hau ageri da: ASTEASU, AIZ-TONDOKO ALKATETZA NAGUSIKO BURU".

Bai; Asteasu Aiztondoko Alkatetza Nagusiko buru zen; Soravilla eta Larraul, berriz, bertako kide ziren. Aiztondoko erakunde honen lehen berria 1375ekoa dugu, seguraski gizaldi bat lehenago eratu izan zen arren. Honela, Asteasuko alkateak justizia zibila eta kriminala gauzatzen zuen Asteasun, Soravillan eta Larraulen. Asteasu, Alkiza eta Adunarekin batera, 1386an Tolosari itsatsi zitzaion.



Udaletxea.

Elizmendi.



Ondare historiko eta patrimoniala

Ezer baino lehen udaletxea gailentzen da. Hau, Astigarragakoaren antzera, Jose Lizardi arkitektoaren lana da, eta 1760an inauguratu zen. Herriko eliza San Pedrori sagarututakoa da; nahiz eta XVI. mendean eraikitakoa izan, nabarmenak dira lehenagoko elizaren aztarnak: portada, oinplano angeluzuzena eta nabe bakarra.

Asteasun bi basiliza daude. Hiriguneko irteeran eta elizatik 200 bat metrora Santa Kruzeko basiliza dago; honen berri 1609. urteaz geroztik dugu. Santa Marina edo Santamañako basiliza ere aipatzekoa da; Asteasutik Andazarrate gainera, eta gero kostara, joaten zen bidea bertatik pasatzen zen; eskualdean zaharrenetakotzat hartua izan den basiliza honen lehenengo berri idatzia 1573koa da. Bertara ametsgaiztoak izaten dituztenak joaten dira; aldare azpian dagoen zuloan burua sartu eta, posizio horretan daudela, Kredo bat errezatzen dute. Haurrentzako babesa eskatuz erreguak ere egiten ziren. Gainera, 1989a arte, Santa Marina egunean (uztailak 18), bertara meza entzutera joaten ziren guztiei apaizak bedeinkazioa ematen zien, "ebanjeliok hartzea" izeneko erritualaren bidez. Bestalde, 1617ko dokumentu batek adierazten duenez, asteasuarrak, urtean behin, prozesio handi batean joaten omen ziren Iturriozko San Joan basilizaraino, Aia eta Errezilen arteko mugan dagoena.

Hilerriaren kanpoaldean dagoen kaperan harrizko hiru gurutz handi daude. Erdikoan pasioaren ikurrak ikus daitezke, esaterako, kurrikak, eskailera eta oilarra; aldamenetakoak, aldiz, lisoak dira.

Baserri-etxe ikusgarriak ere badago: Goiko Ostatu, Eskribano Enea, Zumargain, Etxeberritxo, Sarobe Etxeberri, Illobate eta Elkeita; hauek denak Eizmendin. Saskarate eta Irarretxe; Upazanen. Zizurkilerako bidean, Ibiaga, Otabardi, Arretxe, Ubanbe eta Ondartza. Kalea aldean, eta udaletxearen ondoan, Albistegi,

Elizmendi, Zizurkilitik ikusita.



Etxenagusia, Patxizarrena eta Aginazpe. Erreka auzoan, berriz, Kane errota, Urkidi, Iturta Sarobe, Iturta Bitarte, Esnarritza, Esnarritza Goikoa, Lizolateine, eta Erritzu. Eta, azkenik, Beko Ballaran, Beko Errota, Zabala Barrena, Zalmina, Martxetaundi, Ugarte, Matxine eta Eizmendi.

Dokumentuetan azaltzen denez, zortzi errota ziren Asteasun: Urmategi-errota, Karien-errota, Urniti-errota, Gorue-errota, Betezasti-errota, Beko-errota edo Soro-errota eta Konporta-errota; hau, Goiko-errota izenez ere ezagutzen zen, eta, bertan, Pello-Errota bertsolaria jaiotzen zen.

"Ni Asteasun bizi naizena
nerez naiz errotaria
oyek juanda artu dedana
pena ikaragarria,
baldin banengo poderatua

interesez ugaria,
errian bertan egingo nieke
oiei konbentu berria"

Pello-Errota
Asteasu Mixioia, 1879



Elurtutako teilatuak, Asteasuko plazan.

Larraul

Donostiatik 25,6 kilometrora eta Billabonatik 5era dagoen herria da Larraul. Ernio mendiaren magalean dago. Honako auzo-herriak ditu: iparraldetik, Asteasu eta Aia; hegoaldetik, Alkiza; hego-ekialdetik, Errezil; eta, ekialdetik, Anoeta eta Zizurkil. Bere udal-barrutitik Ibeltz erreka pasatzen da, Asteasu errekaekin batera, Billabona parean, Oriara ibairatzen dena.

Larraulgo herriaren koordenatuak hauek dira: 1° 35' 10" eki-longitudea eta 43° 11' 15" ipar-latitudea. 5,9 km²-ko azalera du eta, azken erroldaren arabera, 138 biztanle ditu: 81 gizonezko eta 57 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 23 pertsonakoa da.

Komunikazioak: ohiko zerbitzurik ez dauka.

Udaletxea: San Esteban enparantza z/g. 20.159 – Larraul. Tel.: 943-69 30 42.
Faxa: 943-69 36 23. Posta-e.: larraul@udal.gipuzkoa.net.



Elurtutako paisaia.



Herrigunea.

Historia

Asteasu eta Soravillarekin batera, Larraul Aiztondoko Alkatetza Nagusiko kide zen. Entitate honen berri 1375 urteaz geroztiko dokumentuetan badugu; beraz, pentsatzekoa da XIII. mendean jadanik eratua zegoela. Hainbat auzi zela medio, baina Asteasurekin izandakoengatik batik bat, aipatu Alkatetza horretatik irten egin zen (1766) eta, hamarkada askoren ondoren, bere udala eratu zuen (1840).

Lope Martinez de Isasti historialariak 1625ean argitaratu zuen liburuan Larraulgo oinetxeen zerrenda egin zuen: Ernio aldeko Sorarrain, Asteasuko Santa Maria aldeko Sorarain, Olozaga, Goieneta garaikoa, Goieneta azpikoa, Anzola –hemengo semea zen Tolosa de Tui gotzaina, San Frantzisko ordenako jenerala izatera ailegatu zena–, Larrola, Alkiza aldeko Larrunbide, Beobide garaikoa, Beobide azpikoa eta Elizalde.

Larraulgo armarriak ezaugarri hauek ditu: atzealde urdin ilunean urrezko sagar bat dago; berau gezi beltz batek goitik behera bertikalki zeharkatzen du.



Larraulgo euskara zaharra, ipar azpi-dialektoan, gipuzkera eta Tolosako tipologiakoa da.

Monumentuak

Larraulgo eliza, San Esteban Protomartiriari sagaratutakoa, XVI. mendekoa da eta, beharbada, aurretik egon zen beste tenpluren baten kokaleku berberan eraikitakoa. Erretaula zaharberritzen ari zirela grisaila erako pintura interesgarria agertu zen; zer izango eta erretaula egin baino lehen tenpluan zegoen irudi nagusia .

Erretore-etxea 1831koa da, ateburuan agertzen denez. Larraulek udaletxe modernoa dauka. Baita ere aipagarriak dira Larrunbide eta Beobide inguruko etxe-multzoak. Zer esanik ez, berriz, Usarrabi aranak duen edertasuna; bertan, Txurigaineko errota eta lbeltzko burdinolaren aztarnak nabarmentzen dira. L. M. Diez de Salazar historialariaren arabera burdinola hau 1543-1544 urteetan zehar eraiki zuen Asteasuko kontzejuak. Garai haietan, bere errekan Fagabundo, Errotaiztegi eta Akezia izeneko errota ere ziharduten. Gero, 1556an, burdinola honen jabetza Larraul eta Asteasuk partekatzen hasi ziren, bere irabaziak eta gastuak era honetan banatuz: Larraulek 1/4 eta Asteasuk 3/4. 1578an sute batek errautsi zuen eta bi urte beranduago berriro martxan jarri zen.

Jaiak

Larraulgo Zaindariaren eguna abuztuaren 3an ospatzen da, San Esteban egunez; San Bartolome egunean ere festa egiten da.

Errotak

Batzuek diotenez, Txingain errota –gaur Txoringain deitzen zaiona– 1339an jadanik bazegoen. Errota hau Estanka erreka, Erreka bailara edo Asteasu erreka izenez ere ezagutzen den errekaen ertzean kokatzen da. Gipuzkoan indar hidraulikoa erabiliz lan egiten zuen lantegirik bitxienetako bat dugu. Izan ere, uraren indarra bi errota-ri parei eragiteko bakarrik ez baitzen erabiltzen; horrezaz gain, erriminta zorroztaileari, eskuare-hortzak zorrozteko makinatxoari, arotz-eskuilari eta etxerako argia lortzeko dinamoari eragiteko erabiltzen zen; hau dena, Juan Zumetak eta Josek, bere semeak, eraiki zuten. Txoringain gidari baten laguntzaz bisitatu nahi izanez gero, nahikoa da Jose Anjel Zumetari deitzearekin (tel.: 943- 690802).

Artisautza

1998an museo etnografiko kozkor bat ireki zen; bertan, nekazaritzako lanabesen bilduma bikain bat ez ezik, usadiozko euskal bizitzako elementuak ere ikusgai daude.

Horrezaz gain, Larraulen ihardunean ari diran bi artisau daude. Anselmo Larrartek makila dotoreak egiten ditu. Karlos Irazu, berriz, forma naturaletan oinarritutako egurrezko artisau-lanak egiten –aulkiak, mahaiak, tresnak, elementuak...– oso iaioa da (tel.: 943 691855). (Eliza eta bertako pinturak ikusi edota museo etnografikora joan nahi izanez gero, Karlosi deitu behar zaio: tel.: 943 691855).



Alkiza

Herrigunea.



Alkiza Donostiatik 30 kilometrora eta Billabonatik 7ra dagoen herria da. Alkizak Arana, Aldapa eta Azaldegi auzoekin honako herri hauekin egiten du muga: Errezil, Albiztur, Tolosa, Anoeta, Asteasu, Hernialde eta Larraul.

Alkizaren koordenatuak hauek dira: 1° 34' 15" eki-longitudea eta 43° 11' 00" ipar-latitudea. Paraje menditsuan eta itsasoz gain 340 metrotara dago. Azalera 11,9 km²-koa du eta 261 biztanle (1997ko abendua): 150 gizonetzko eta 111 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 22 pertsonakoa da.

Komunikazioak: Tolosaldea Bus. Tolosa-Tolosa. Tel.: 943 650621

Udaletxea: San Martin Plaza. 20.494 Alkiza Tel.: 943 690235 Faxe: 943 690156
Posta-e: alkiza@udal.gipuzkoa.net

Historia

Asteasu eta Adunarekin batera, 1386an Tolosari itsatsi zitzaion; geroago, 1450ean, banandu egin zen, Donostiarekin elkartzeko. Independentzia Felipe V.ak eman zion (1731ko urtarrilaren 21ean), 63.042 erreale ordaindu eta gero. Hamaika urte beranduago, Anoetarekin batera, Ainsuko Elkargoa sortu zuen, 1815ean, Hernialde sartu eta gero, Ainsuberreluz deituko zena.

Udaletxea garai batean ostatu bezala erabili zen. Udaletxeaz gain, elizak eta beste zazpi etxek osatzen zuten, 1802an, Alkizako herrigunea.

Herri Noble eta Leialaren titulua dauka; hau, batzuetan, bere armarrarian azaldu izan da. Armarraria honako elementu hauez osatzen da: bi ezpata gurutzatuta; goialdean, erdian, armaduraren kaskoa; behealdean, erdian, adar bat; eta honako entseina hau: "vis for".



*Mendikoetxe
etxearen
aurrealdea.*



San Martin eliza.



Alkiza,
Zopiteko haitzetik ikusita.

Ondare historiko eta monumentalak

San Martin Obispo-ren eliza. Bestalde, Santiagori sagaratutako basiliza mantentzen du, hilerriaren ondoan dagoena. Beste basiliza bat ere eduki zuen, Santa Kruz-ena hain zuzen ere, baina gaur desagertua dago; hau izan zen, gainera, Alkizako parroikia zaharra. Erretore etxea; hau, XVIII. mendean altxatutakoa da, plaza bazterrean dago eta, horrexegatik, bailara osoa ikusteko begiratoki ederra da. Baita ere aipatzeko modukoak dira Mendietxea, Mikelena (1812) eta udaletxea.

Alkizan lau errota izan ziren: Errota-berri, Goiko-errota, Errotazar eta Igaran-errota. Lehenengo hirurak, Aranguren erreka urek mugitzen zituzten -erreka honetako amuarriak, gainera, estimatuak ziren- eta laugarrenak, berriz, Alkiza erreka urek eraginda lan egiten zuten. Errota hauetan ehotzen ez dela urte asko dira. Batzuk, aurrigoan daude; beste batzuk, aldiz, eraldatuak izan dira. Burdinola ere izan zuen Alkizak, Agorrolakoa hain zuzen.

Bestalde, bisitatzea merezi duen baserri hauek daude: Hernio bailaran, Aritzeta Goikoa, Arantzabene eta Aritzeta Erdi; Aldapa bailaran, Urruzola eta Arpide; Arana bailaran, Intxaur Handi, Garaikoetxea eta Antzieta; Sakamidran, Zumitza eta Aginaga; eta, Azaldegi auzoan, Azaldegi Etxeberri, Garmendi, Etxesagasti eta Apraiztegi.

Ezin da ahaztu, ordea, Iruratik Alkizarako bidean, Garaikoetxea baserriak duen disko-formako estela. Hau, beharbada, Erdi Arokoa da; alde bakarra du agerian eta, bertan, orla handi baten barruan, gurutze greko bat azaltzen da. Bide batez, baita ere aipatu baserri honek dituen paretak; hauek, arlanduzko egindakoak eta benetan sendoak dira, baserri gutxitan ikus daitezkeenak.

Jaiak

Alkizan herriko jaiak Koruko Andre Maria egunean ospatzen dira (irailak 8). Eta egun horretan, zergatik? Donostiari itsatsita egon zen denboran (1450-1731) Donostiaren zaindaria, Koruko Ama, Alkizak berea egin zuelako.

San Martin herriko patroia egunean (azaroak 11) hainbat ekitaldi egiten da herrian; esaterako, herritarren anaitasun bazkaria -txekor jana- ohiko menuarekin, hau da, ziza-mizkak, zopa, txahal-saiheskia entsaladarekin eta postrea.

Garai batean, Gurutze Santuaren Asmakuntza egunean (maiatzak 3), Santa Kruz basilizaraino -Alkizako parroikia zaharra izandakoraino- prozesio handi batean igotzen zen; hemendik, meza entzun eta gero, barrutiak bedeinkatzen ziren.

Gastronomia

Jose Ramon Mendiluze erlezainaren ezitia Elizegi ostatuan eskura daiteke (Alkiza Plaza, z/g). Pello Jose Aranburu da beste erlezaina; bere ezitia Urruzola baserrian dago salgai, Aldapa ballaran.

Ardi-gazta erosi nahi izanez gero, baserri hauetakoren batera joan beharra dago: Urruzolara (Aldapa); Berandoinera eta Arantzabenera (Hernio) edo Intxaur Handira (Arana).

Babarruna, berriz, honako baserri hauetan dago salgai: Bengoetxe Goikoan, Bengoetxe Bekoan (Arana); Maitegin (Alkiza Plaza) eta Aizmendi Goikoan (Azaldegi).



Alkiza
negu partean.

Hernialde

**Hernialde, izenak dioen moduan, Ernio magalean dagoen herria da. Donostiatik 27 bat kilometrora eta Iruratik 4ra dago. Honako auzo-herriak ditu: iparraldetik, Alkiza; hegoalde-
detik, Tolosa; ekialdetik, Tolosa; eta, mendebaldetik, Alkiza eta Anoeta. Atamea, Mendigain eta Artzubi mendiak nabarmentzen dira.**

Herrigunea.



Koordenatuak hauek dira: 1° 36'16" eki-longitudea eta 43° 09'52" ipar-latitudea.

Azalera 4,2 km²-koa du; bertan, 303 biztanle bizi dira (1997ko abendua): 153 gizon-
ezko eta 150 emakumezko. Beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 72 pertso-
nako da.

Hernialdetik Uzturre mendira eta Oria bailarara bista zoragarriak daude; horrez gai-
nera, nekazaritzan eta abeltzaitzan, bereziki, lan egiten duen herria da. Beraz,
Hernialde Gipuzkoako txokorik zoragarri eta atseginenetakoa da.

Komunikazioak: Tolosaldea Bus. Alkiza-Hernialde-Tolosa Tel.: 943 650621

Udaletxea: Santa Kruz Apaiza Plaza, 1. 20.494 Hernialde. Tel.: 943 654494
Faxa: 943 654224. Posta-e: hernialde@udal.gipuzkoa.net

Udaletxea.



Historia

Aizkoateko kobazuloan egindako indusketen ondorioz, aurkitu diren hainbat harrik adierazten dute historiaurrean gizakia paraje honetan egon zela.

Hernialdeko populazio-nukleo hura, 1374. urtean Tolosari itsatsi zitzaion, baina horregatik ez zuen galdu bere ondasunak gestionatu eta edukitzeko ahalmena. Batasun honek iraun zuen denbora guztian, ordea, Hernialde eta Tolosaren artean auzi bat baino gehiago izan zen, gastuei eta hauen banaketei buruzkoak denak. Errege-Zedula baten bidez, "villa" titulua lortu zuen, 1802ko irailaren 8an; honela, gai zibil eta kriminalak bere esku geratu ziren. Hernialdek bere buruari eusteko, ordea, zailtasun handiak zituen, baliabide eskasak zituelako eta bertan jende gutxi bizi zelako. Gauzak honela, Anoeta eta Alkizarekin batera -1742az geroztik Ainsuko Elkargoa osatzen zutenak- Ainsuberreluzgo Elkargoa sortzea erabaki zuen.

Historikoki Hernialde pertsonai ospetsu bati lotua azaltzen da, Manuel Santa Kruz eta Loidi apaiz ausartari hain zuzen; hau, parrokia honetako apaiza bazen ere, Elduaingo semea zen. Hirugarren Karlistadan zehar, 1873an, guda-zale amorratuak ziren armatutako mendi-gizon talde baten buru izan zen. Bere ibilerak, gainera, Valle Inclán-en "*Gerifaltes de antaño*" izeneko nobelan betirako geratu ziren.

Hernialdeko armarría, udaletxearen aurrealdean dagoena, honelakoxea da: atzealde urdin ilun batean, zuhaitz berde bat.



Arreginea
baserria.



Urdanbideluze-Haundi baserriko armarria.

Ondare historiko eta monumentalak

Populazioaren gehiengoak herriko plaza bizi da; eliza eta udaletxea ere bertan daude. Behealdean, mailaka, baserriak nahiko modu sakabanatuan agertzen dira.

Eliza, Jasokundeko Andre Mariarena, nabe bakarrekoa da; bere atea barroko estilokoa da; dorrearen oinplanoa, berriz, karratua da. Elizatik Adarra mendia eta baillara guztia ikustea erabat atsegina da.

San Migel Arkanjeluari sagaratutako basiliza bat ere bazegoen; hau, Aisni baserrietik metro gutxira eta elizatik 1,5 km-ra zegoen, Sanmiel bailaran. Auzo hau, Eguzkitza, Goienetxe, Maioz, Vitori eta Barrenetxea baserriek osatzen dute. Basiliza hau XVIII. mendean oraindik gurtutzen zuten; gainera, serora batek zaintzen zuen. Basiliza desagertu zenean, bera egon zen tokian burdinezko gurutze bat jarri zen, hogeita hamarrek hamarkadan puskatua izan zena. Arreginea baserriaren ondoan, ostera, tailatutako harriaz egindako gurutzetako bat dago oraindik; hau, elizatik abiatu eta Arreginea ondoko mendiraino egiten den gurutze-bidekoa da.

Lope Martinez de Isasti historialariak 1625ean Hernialden honako 17 oinetxe bildu zituen: Igor, Bidaor, Urdanbilor-garaikoa, Urdanbilor-azpikoa, Aranotzaga-garaikoa, Aranotzaga-azpikoa, Urrutikoetxea, Iriarte, Olezaga-garaikoa, Olezaga-azpikoa, Victoria, Eguzkiza, Eskamendi, Sagasti, Bidaor, Arretsse (sic) eta Maletsea.

Herriaren behealdean, eta Tolosara doan Errege-bide zaharraren ondoan, Hernialde-erreak auzoa dago, Hernialdek izan dituen bi erroten auzoa: Beko-errota eta Goiko-errota. Hauek, Hernialde-errekako urek eraginda mugitzen ziren.

Udaletxea eliza aurrean dago. Harlanduzko egindako eraikuntza honek, lau arku handi dauzka sarreran; aurrealdean, erloju bat ere badauka. Baina, benetan bitxia dena teilatuan duen ezkilategia da; hau, lau uretako teilatuak dituen gailurrek bat egiten duten puntuan kokatua dago.

Hernialdeko ondare arkitektonikoaren barruan badaude interesgarriak diren etxe bat baino gehiago. Hor ditugu, esaterako, Miranda etxea -1769koa-, Flores, Igor-txiki, Urrukane, Urdanbidelus Handi, Saletxe, Anotzaga Handi, Izagirre, Eskamendi eta Arretxe. Behealdean, berriz, aipatutako errotez gain, Olotzaga, Olotzaga Barrera eta Bitoria baserriak daude; azken honen ateburuak 1748 urtea jartzen du.

Jaiak

Herriko jaiak Jasokundeko Andre Maria egunean ospatzen dira (abuztuak 15). Nekazal herria denez, San Isidro Laborariaren egunak (maiatzak 15) bere garrantzia ere badu Hernialden; honela, egun honetan baserritarrek anaitasun bazkaria egiten dute.



Hernialde, Arregineako belardietatik ikusita.

Albiztur

Albiztur Donostiatik 32 kilometrora eta Tolosatik, Tolosa-Azpeitia 6324 eskualde-errepidetik barrena, 6ra dago. Albizturrek 2,9 km²-ko azalera du; bere auzo-herriak, berriz, hauek dira: Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Beizama, Bidania, Errezil, Hernialde eta, iparraldetik, Ernio mendia.

Herrigunea.



Albizturren koordinatuak hauek dira: 1° 33' 15" eki-longitudea eta 43° 09' 00" ipar-latitudea. Albizturrek 289 biztanle ditu (1997ko abendua): 158 gizonezko eta 131 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 99 pertsonakoa da.

Komunikazioak:

Eusko-Tren (autobusak). Azkoitia-Tolosa. Tel.: 943 450131

Tolosaldea Bus. Tolosa-Tolosa. Tel.: 943 650621

Udaletxea: San Joan Plaza, z/g. 20.494 Albiztur.

Tel. eta faxa: 943 654426. Posta-e: albiztur@udal.gipuzkoa.net

Historia

Albizturko Herri Noble eta Leiala Saiazko Alkatetza Nagusiko kide izan zen; hau, Lurgain, Urdaneta, Alzola, Beizama, Bidania, Errezil, Goiatz eta Albizturko herriek osatzen zuten. Albizturren lehen berria 1384ko dokumentu batean ematen zaigu. "Villa" titulua Felipe III.aren pribilegio baten bidez lortu zuen (1617ko apirilaren 2an), Elizari eskatu behar izan zion diru kantitate bat ordaindu eta gero. Honela, ordurarte itsatsia egon zen Tolosarengandik banandu egin zen.

Armarria lautan zatitua dago: 1an eta 4an, atzealde urdin ilun batean ate eta leiho gorriak dituen gaztelu bat; 2an eta 3an, atzealde gorrian urrezko lehoia, aurreko bi besoak altxatuta.

Ondare historiko eta monumentalak

Ezer baino lehen, eliza gailentzen da; hau, Jasokundeko Andre Mariari sagaratutakoa da eta lehenago izan zen tenpluaren orubean egina dago, 1650. urteaz geroztik hain zuten. San Gregorio Taumaturgo-ren basiliza aurrean, harriz egindako gurutze interresgarri bat dago; honek, Kristoren martiriko ikurrak landuta dauzka. Baselizaren barruan, berriz, 1601ean Jeronimo de Larreak egindako erretaula dago. Argisaingo Santa Marina basiliza, jendeak Santamaña bezala ezagutzen duena, nahiko urrun geratzen da. Baseliza honi, gainera, orain dela gutxi zaharberritu zuten arren, XII. edo XIII. mendeko eliza zahararen aztarna bat geratzen zaio, portada erromanikoa alegia.



Harraska, 1863koa.



Itxura bikaineko udaletxea dauka Albizturrek, hiru arkuko aterpearekin. 1768an altxatutakoa da. Bere udal-barrutitik Errege-bidea pasatzen zelako, Albizturrek erro-mesentzako bi herriko ostatu eta ospitalea zituen; azken hau, 1863ko harraska aurreko etxea da, oraindik ospitale zaharra deitzen dena.

Herrian nonahi daude baserri eta etxe bikainak. Herrigunean, eta udaletxe ondoan, Ganbaretxe eta Arretxe baserriak aipatuko genituzke; baina, baita ere, Bordatxo, Leunda Enea, Balda, Zamora, Babilonia eta Gebara; zer esanik ere ez, Urrutikoetxea, Ospitale Zaharra, Aitzalde, Errekalde, Mitxenea, Ugarte eta Oria baserrien dotoretasunaz. Herrigunetik ateraz gero, berriz, Arrospide Bekoa, Markelus, Saletxe eta Urrutume daude. Urreta aldean, Urreta Handi, Urreta Bitarte eta Urreta Berri baserriak gailentzen dira. Ergoena auzoan ere badira baserri bikainak, esaterako Nekoralde, Goikoetxea eta Idoiaga Bekoa. Argisaingo Santa Marina auzoan, batik bat Santa Marina Handi nabarmentzen da, garai batean erromesen ospitale izan zena.

Albizturren errota ere bazeuden: Tximista-errota, Goiko-errota, Erdiko-errota eta Ipintza-errota edo Ugarte-errota; hauek denak, Iragan-errekako urek eraginda mugitzen ziren. Gaur, ordea, herriko ondare etnografikoaren elementu interesgarriak izango ziren arren, denak galduta daude.

Tolosarekin partekatzen dituen lurretan, muino batean, Intxur-go kanpamentu militarra izandakoa dago, K.a. III.-IV. mendeetan eraikitakoa.

Jaiak

Albizturko jaiak Jasokundeko Andre Maria egunean ospa-tzen dira (abuztuak 15).

Argisaingo Santa Marina auzoan, Santa Marinaren omenez, festak uztailaren 18an eta aurreko igandean ospatzen dira. San Gregorio Taumaturgo-ren basilizara, berriz, erromeria egiten da, azaroko 17aren aurreko igandean.

Gastronomia

Albizturko babarrun ospetsuak honako baserri hauetakoren batean eros ditzakezu: Muñaburuazpin - Pedro Arrue-; Urreta Bitarten - Arantxa Beraza-; Isagastin - Jose Elola -; Gure Txokoan - M^a Jesus Ibarbia -; Iriarten - Alberto Labaka -; Pagadin - Jose Anjel Kerejeta -; Urreta Handin - Juan Ugartemendia -.

Baserriko oilaskoak Zalakain baserrian -Luciana Tejeria- eskura daitezke.

Kiwiak, ezta eta etxeko ogia, berriz, Ogi-Ona etxean - Salvador Zubizarreta - daude.



Urreta-Haundi
baserriko armarrria,
714koa
(harginaren
akatsa ote?).

Bidegoian

Bidegoian herri gaztea da; izan ere, 1964an jaio zen, Bidania eta Goiatz batu zirenean alegia. Gipuzkoa erdian dagoen herri hau, itsasoz gain 479 metrora dago; errepidez, berriz, Donostiatik 32 kilometrora eta Tolosatik 6ra dago.

Bidaniaren koordinatuak hauek dira: 1° 32' 20" eki-longitudea eta 43° 09' 36" ipar-latitueda; Goiatzenak, berriz, beste hauek: 1° 31' 20" eta 43° 09' 45".

Honako auzo-herriak ditu: iparraldetik, Errezil; hegoaldetik, Itsasondo eta Legorreta; ekialdetik, Albiztur eta Hernialde; eta, mendebaldetik, Beizama. Bertako mendiak Illaun eta Loistizabal dira.



Bidegoianek 420 biztanle ditu (97ko abendua): 240 gizonezko eta 180 emakumezko. Eta kontuan izanik 13,7 km²-ko azalera duela, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 31 pertsonakoa da.

Komunikazioak:

Eusko-Tren (autobusak):
Azkoitia-Bidegoian-Tolosa.
Tel.: 943 450131.

Tolosaldea Bus:
Tolosa-Bidegoian.
Tel.: 943 650621

Udaletxea: 20.496 Bidegoian.
Tel. eta faxa: 943 681109.

Posta-e: bidegoian@
udal.gipuzkoa.net



Bidania.
atzealdean,
Ernio elurtuta.

Historia

Bidania eta Goiatz 1027. urtean Iruñeko apezpikutzaren lur-mugaketari buruzko dokumentuan aipatzen dira. Historian hain garaiz azaldu izanak badu bere arrazoia: bai Goiatzek, bai Bidaniak, bere sorrera eta hasierako garapena, duten kokapen estrategikoa ari zor die, Urola eta Oriako bailarak lotzen zituen bidegurutze zahar batean baitzeuden.

Biak Saiazko Alkatetza Nagusiko kide ziren, beste hauekin batera: Aia, Lurgain, Urdaneta, Alzola, Albiztur, Beizama eta Errezil. 1845eko urtarrilaren 8an Bidania eta Goiatz Alkatetzatik banandu eta bi udalerrri independente bihurtu ziren. Ernio mendia hain gertu izateagatik, Bidania, Goiatz, Beizama, Errezil eta Aia, bost herri hauek, mendilerroko bost herriskak bezala ezagutzen zituen jendeak.

Probintziak bere Batzar Partikularrak Bidegoiango Usarraga baserrian ospatzen zituen: 1470. urteaz geroztik, berriz, herriko San Bartolome eliza izango zen batzar-leku. XVI. mendean, bilerak egiteko, elizari erantsita zegoen lokala prestatzea erabaki zen; bertan, 1700.eko otsailaren 7a arte jardun zuten, egun horretan bildu baitziren azkeneko aldiz. Mende pare bat beranduago, 1906ko maiatzaren 23an, Aldundiak Usarragako parajeon monumentu bat eraikitzea erabaki zuen, bere garaian egin ziren bileren oroigarri bezala.

1802an Bidanian 12 etxe eta 70 baserri zeuden, Goiatzen 10 etxe eta 27 baserri zeuden bitartean.

Bidegoiango armarririk lau sekziotan zatitua dagoela dirudi: 1an eta 4an, atzealde gorrian leiho eta ate urdin ilunak dituen zilarrezko gaztelu bat; 2an eta 3an, zilarrezko atzealdean zuhaitz berde bat eta, bere behealdean, otso beltz bat pausua emanaz. Armarrriaren erdian, berriz, hau dugu: urrezko atzealdean, "V" itxurako ikur gorria eta kolore berdineko bost petalo dituzten hiru lore, bi goian eta bat behean.



Aldakoetxe etxea Goiatzen.

Ondare historiko eta monumentala

San Bartolome eliza zaharra, Eliz bailara auzoan dagoena, aurrena komentuan bihurtuko zen eta, beranduago, bide ondoan eliza berria eraiki eta gero, hilerria bezala erabiliko zen. Erreka bailara auzoan eraiki zen eliza berriaren gastuak Muñoatarrek ordaindu zituzten eta, 1890eko abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, ospe handiz inauguratua izan zen.

Bidanian gaur egun dagoen eliza San Bartolomeri sagaratutakoa da; Goiatzen, berriz, Jasokundeko Andre Mariariaren eliza dago.

Bidanian balore handiko basiliza dotorea dago, zaharberritzen premia ederra daukana, gainera. Santa Agedari sagaratutakoa da. Basiliza hau, XVII. mendean jadanik bazegoen eta, garai batean, herriko eskolak bertan ziren. Bada beste basiliza bat ere; hau, San Pedrori sagaratutakoa da eta, Elola auzoan, Elola-azpikoa eta Elola-goikoa

baserrien ondoan eta Bidaniako elizatik 2,6 kilometrotara dago. Era berean, Bidaniak santutxu bat ere bazeukan; San Pedrori sagaratutakoa zen eta jendeak San Pedrotxo deitzen zion. Hau, garai bateko elizara, gaurko hilerria, doan bidean kokatua zegoen; 1958 aldera erre egin zen.

Goiatzgo udaletxea garai batean ostatu bezala erabiltzen zen. Bidegoianen gaur dagoen udaletxea, Bidaniako plazan dago.

Bidanian, berrogeita hamarrek hamarkadaren amaiera arte, errota bat martxan ibili zen, Bidaniako-errota hain zuzen; honi esker, herriak bere lehen argi indar elektrikoa eduki ahal izan zuen.



Bidaniako armairia.

Ikusteko modukoak dira, Bidaniako udaletxeaz gain, Munoa jauregia, Monjaetxea –komentua izan zena–, Otegi eta Bengoetxea baserriak, Iriarte edo Lizasoain, Muñagorri eta Oxinondo etxeak. Elola auzoan, berriz, Elola Azpikoa, Elola Garaikoa, Ibarre, Labaka Barrena, Aztegi, Illunbe eta Arretxe baserriak dira aipagarri. Goiatz auzoan, bestalde, honako hauek aipatuko genituzke: Alkorta Etxea, Etxenagusia, Goienetxea, Gezarreta eta Mendizabal Iturri; hauek denak Umabeko parajeen.

Jaiak

Bidaniak herriko jaiak San Bartolome egunean ospatzen ditu (abuztuak 24); Goiatzen, berriz, Jasokundeko Andre Mariaren omenez ospatzen dira (abuztuak 15).



Goiatz. Atzealdean Bidania.

Errezil

Errezilgo bailara
eta herrigunea.



Errezil Donostiatik 42 kilometrora eta Tolosatik 8ra dago; Azpeititik, berriz, C-6324 errepidetik barrena, 10 kilometrora dago. Errezilek 32,2 km²-ko azalera du, eta bere koordena-tuak honako hauek dira: 1° 31' 00" eki-longitudea eta 43° 11' 15" ipar-latitudea. Errezilek honako auzo-herriak ditu: iparraldetik, Asteasu eta Aia; ekialdetik, Larraul, Albiztur eta Alkiza; hegoaldetik, Goiatz, Bidania eta Beizama; eta, mendebaldetik, Azpeitia eta Zestoa.

Errezilen gainean Ernio mendia dago (1070 metro). Herritik Errezil erreka pasatzen da, Azpeitin Urolara ibairatzen dena.

Errezilek 640 biztanle ditu (1997an): 348 gizonezko eta 292 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 20 pertsonakoa da.

Komunikazioak: Eusko-Tren (autobusak). Azkoitia-Errezil-Tolosa. Tel.: 943 450131.

Udaletxea: Errezilgo Gunea, z/g. 20.737 – Errezil.
Tel. eta faxa: 943 812989. Posta e: errezil@udal.gipuzkoa.net

Historia

Errezilgo udal-barrutian sakabanatuta dauden historiaurreko aztarnak garbi adierazten dute bertan giza-asetamenduak goi-paleolitikoan jadanik egon zirela.

Paraje honetako biztanle-gunea 1027. urtean "Erretzil" izenarekin azaltzen da. Beranduago, Aia, Lurgain, Urdaneta, Alzola, Albiztur, Beizama, Bidania eta Goiatzekin batera, Saiazko Alkatetza Nagusia osatuko zuen. Felipe III.ak Monzonen emandako Errege-pribilegioari esker bere esku izango du jurisdikzio zibil eta kriminala (1653ko abenduaren 23a).



Plazako iturria.
1906.

Esatenenez, Errezilgo soroek probintziako garirik hoberena ematen zuten; horrexegatik, XVIII. eta XIX. mendeetan errezildarrei, jasotzen zuten gari anega bakoitzeko, Gipuzkoako beste edozein lurraldetakoei baino erreal bat gehiago ordaintzen zitzairen.

Errezilek duen armarria sinplea da: zilarrezko atzealdean hagin berde bat eta, honen ezker-eskuinera, urrezko izar bana.



San Martin elizako lanak,
1999.

Ondare historiko eta monumentalak

Errezilgo eliza Zalluruako San Martini sagaratutakoa da. Zazpi gizaldi baino gehiago ote dituen uste da, XVI. mendean berreraiki zen arren. Aipatzekoa da bertan dagoen organoa; hau, Parisko *Merklin y Cia.* etxeak egin zuen eta 1913ko azaroaren 11n inauguratu zen.

Errezilen, gainera, hainbat baseliza dago. Santa Kruz-en edo Gurutze Santuaren baseliza, XVI. mendean jadanik aipatzen dena eta azaleko gaitzak sendatzen omen dituen. Paduako San Antonioren baseliza; bere egunean erromerian joaten zen bertara prozesio handi batean, kofradietako zutoihalak eta elizako gurutzea hartuta. San Migel Bekoaren edo Garraça-ko (Carraza) San Migelen baseliza, Ezama auzoan dagoena. Argainako San Estebanen baseliza, Ibarbia auzoan dagoena. San Migel Goikoaren baseliza, Leteko San Migel izenez ere ezagutzen dena; honen berri XVI. mendeko dokumentuetan ematen zaigu, eta Errezilgo parrokia zaharra ote den pentsatzen da. Erdoitzako San Isidroren baseliza biribila, Bedama auzoan dagoena, Gipuzkoa guztian forma berdinarekin geratzen diren bi baselizetako bat dugu. Baita ere aipagarria da Gurutze-Bidea, harri landuz egindako gurutzeak daukena; bide hau, elizatik abiatuz, San Antonioren baselizaraino heltzen da –Ostiral Santu egunean honaino joaten da prozesioan–.

Herrigunetik beherako bidean eta Azpeitira zihoan oinezkoentzako bide zaharrear, Gipuzkoako iturririk interesgarrienetarikoa bat dago; bertan dagoen inskripzioak 1796 urtea darama.

Industriaurreko ondareari dagokionez, Errezilen 12 errota aurkitzen dira: Agirretxe-errota, Arabeko-errota-goikoa, Arabeko-errota-bekoa, Belamendi-errota, Lizarreta-errota, Landarrain-errota, Utzeta-errota, Erkizia-errota-goikoa, Erkizia-errota-bekoa, Zurruntzola-errota, Estrada-zarra-errota eta Estrada-berri-errota.

Etxe eta baserri aipagarrienak ikusi nahi izanez gero, honako hauek gailentzen dira: herrigunean, Borondegia, Etxeandia, Kantoia, Etxeberri etxeak eta Apaizetxea. Artzailus auzoan, Armendi, Rekondo, Landarrain, Agerre Bekoa, Telleria, Torre Berri, Loidi Goikoa, Loidi Azpikoa, Iraola Berri, Zurruntzola, Urteaga Zaharra eta Aranzadizabal baserriak; Ibarbia auzoan, Bildain, Otume, Ituriaga, Ibarbi Barrena, Galarraga Goena, Galarraga Bitarte eta Iturrita baserriak; eta, Erdoitza auzoan, Barrenso, Etxeberritxo, Etumetako benta ospetsua, Antxiturbi eta Zubitxo baserriak.



Errezil,
Urrakitiik.

Jaiak

Erdoitzako auzokoek ere beraien zaindariaren eguna ospatzen dute (San Isidro laborariarena, maiatzak 15). Udaberriko festak, berriz, ekainaren 13an, San Antonio egunean, izaten dira.

Domingo Erkizia –Bidain baserriko semea– herriko zaindariaren eguna irailaren 29an ospatzen da.

Errezilgo jai nagusiak San Martin egunean (azaroak 11) ospatzen dira. Ezin da ahaztu, ordea, abenduko lehen igandea, egun horretan herriko produktuekin azoka ospatzen baita; bertan, errezil sagarra izaten da nagusi.

Gastronomia

Ernio mendian bazkatzen duten ardiak esnearekin egindako gazta erosi nahi izanez gero, baserri hauetakoren batera joatearekin nahikoa da: Artzailus Berri –herriari Katran izenez ezagunagoa–, Aitzarte eta Galarraga Bitarte. Errezilen bertan sortutako produktu aukera bikaina Belamendi baserrian aurki daiteke; besteak beste, errezil sagar ospetsua, baina ibarbia eta errege sagarrak ere bai.

Aia

Aia, Unibertsitate Noble eta Leialaren titulua duen herria, Azpeitiko barruti judizialean sartzen da. Donostiatik 30 kilometrora eta Azpeititik 25era dago; Oriotik, berriz, 7 kilometrora eta Zarautzetik 4ra. Bere auzo-herriak hauek dira: iparraldetik, Zarautz eta Orio; hegoaldetik, Asteasu eta Errezil; ekialdetik, Zizurkil eta Usurbil; eta, mendebaldetik, Zestoa.

Aiako herrigunea nahiko leku garaiean dago, Pagoeta magalean. Mendi honez gain, beste hauek daude: Indamendi, Iturriotz, Eztenaga eta Andatza. Aian errekek ere badaude, esate baterako Alzolaras, Urolaren ibaiadarra dena Aizarnazabalen; Agorria, San Pedro eta Santiagokoa. Denak, Orioko lurretan, Oriara ibairatzen dira.

Aiaren koordenatuak honako hauek dira: 1° 33' 00" eki-longitueda eta 43° 15' 20" ipar-latitudea. Bere azalera 56 km²-koa da eta 1659 biztanle ditu (1997an): 929 gizon eta 730 emakumezko; beraz, biztanle-dentsitatea km² bakoitzeko 29 pertsonakoa da.

Komunikazioak: Eusko-Tren (autobusak). Aia-Orio. Tel.: 943 450131.

Udaletxea: Gozategi Enparantza, 20.809 – Aia (Gipuzkoa).
Tel.: 943 131144 Faxa: 943 134104 Posta-e: aia@udal.gipuzkoa.net



Herrigunea.

Historia

Aia lehenengo aldiz historian 1025eko dokumentu batean aipatzen da, Altzon dagoen Olazabalko Salbatore Deuna elizaren dohaintza dokumentuan hain zuzen. Saiazko Alkatetza Nagusiko kide izan zen, Laurgain, Urdaneta, Alzola, Albiztur, Beizama, Bidania, Errezil eta Goiatzekin batera; egoera horretan, 1563a arte mantendu zen, Felipe II.ak unibertsitate independente titulua eman zion arte alegia.

Arkitekturari dagokionez, herrigunean aipagarriak dira, besteak beste, udaletxea, Garagorri Enea, Goinetxea eta Ikilizasti. Arruti Egia auzoan, Armendi, Zulaika, Gorostiola, Azkue, Ostolaza eta Aialde baserriak. Kurpidea auzoan, Junsansoro,



Azpitarte eta Arizmendi baserriak. Lurgain auzoan, elizaz gain, Jauregia, apaiz-etxea eta Bizkar baserria; auzo honen behealdean, gainera, Agorregiko errotak eta burdinola daude, Manterola baserria ere, bere garai bateko burdinolaren aztarnak eta guzti, ezin da ahaztu. Etxeta auzoan, Orendain oinetxea, Etxeta, Zatarain Berri, eta Zatarain. San Pedro auzoan, Illarramendi, Rekondo, Segurola, Olaberri Goikoa, Idoeta, eta, Irureta Egian, Olazabal. Santiago auzoan, Arrazubiako burdinola, ospetsua izan zena, Alzibar, Mañarin Errota, Mañarin Zelai eta Uzkudun. Urdaneta auzoan, Agiñeta Zaharra, Indagarate Zaharra, Indagarate Berri eta Aranburu Zahar. Eta, Olazko Egia auzoan, Altxerri, Gaztañaga, Olazkoaga Azpi, Olazkoaga Berri eta Olazkoaga Goikoa.

Aiako armarria honelakoxea da: atzealde berdean arte bat, bertara igo nahien dagoen koroadun lehoi bat eta oldartu nahi den zezen beltz bat. Honako inskripzio hau darama: "Salutem ex inimicis nostris et de manu omnium qui oderunt nos".



San Esteban eliza eta herrigunea.

Elizak eta basilizak

Ondare erlijiosoan ere Aia badu zer esanik; honela, San Estebanen eliza dago, XVI. mendearen hasierakoa; basilizak, berriz, hauek dira: Aizpeko Andre Mariarena, San Pedro de Aristerrazurena, Iturriozko San Juan Bataiatzailearena, Santiagorena, San Pedorena eta Santa Kruzena -azken bi hauek Elkano auzoan-.

Alzola auzoak San Romani sagaratutako eliza dauka. Hemen, 1618an lekaimeen komentu bat eraiki zen; hau, urte bat beranduago, Zarautzera eraman zen. Urdaneta auzokoek San Martin eliza daukate, eta Lurgainekoe, berriz, San Migelen eliza, ondo eraberritua gainera. Hau, apaiza-etxearekin batera, ikusteko modukoa da. Aipagarria da, baita ere, Zarautzera doan oinezkoentzako bide zaharrean dagoen gurutzadura.

Etnografia eta natura

Aiako udalerrian Altxerriko kobazuloak daude -jendearentzat itxita aurkitzen dira, kaltetuak izan ez daitezten -; hemen dauden labarpinturetan bisontek, adarzabalak, ahuntzak eta baita arraiak ere ikus daitezke.

Duen orografia aberatsari eta ibai ugaritasunari esker, Aia errota nahiz burdinola ekoizpenean buru izatera ailegatu zen. Oraindik 1802an, Gilzurriturriko errekan burdinola bat eta sei errota ziharduten; Errekakoan, Ria auzo aldean, lau burdinola eta hamahiru errota lanean ari ziren; Alzolarasko errekan, berriz, burdinola bat eta hiru errota zeuden martxan. Arrazubiako burdinola itsasotik gertu zegoen, eta, hori aprobetxatuz, bertara hainbat itsasuntzi erraz heltzen zen; hemen, gainera, aingurak egiten ziren.

Berebiziko garrantzia du Gipuzkoarentzat Pagoetako Parke Naturalak; bertan, besteak beste, interesgune hauek daude: naturaren interpretazio eta informazio Zentrua, Iturriaran baserriko Museo etnografikoa, lorategi botanikoa, erlategi didaktikoa eta Agorregiko erroten eta burdinolaren berreraiketa zehatza. Monitore adituak aurretik direla, parke guztian ibilaldiak antolatzen dira (tel.: 943 835889).

Ardi latxaren esnearekin egindako gazta bikainak eros ditzakezu hainbat baserritan, esate baterako Orotegin edo Agerreburun.

Jaiak

Herriko jaiak San Donato egunean hasi eta "Sanlorenzoak" arte luzatzen dira, hau da, abuztuaren 7tik 10era.

Alzola auzoan San Roman ospatzen da, bertako patroia (azaroak 18). San Pedro de Aristerrazu eta San Pedro de Elkano auzoek, San Pedrotan dituzte jaiak (ekainak 29). Iturriotzen San Joan Bataiatzailearen eguna ospatzen dute (ekainak 24). Lurgainen, San Migel egunean (irailak 29). Santiago auzoan, Santiagotan izaten dira jaiak (uztailak 25). Urdanetan, San Martin egunean dira jaiak (azaroak 11).

Ernio mendira egiten diren erromeriek aparteko aipamena merezi dute; baina, horiei buruz beste kapitulu batean jardungo gara.



Aia elurretan.

Iturriotzeko San Joan ermita eta Ernioko gurutzea

Biak Andazarrate gainean dagoen bentaren atzean daude. Iturriotzeko San Joan ermita, dokumentuek diotenez, Aia, Errezil, Bidania, Goiatz eta Albizturgo herri-lurretan dago. Honaino heltzen zen, Usurbilgo Andatza mendia eta Asteasuko Venta Záratetik barrena, Donostiara zihoan bide zaharra; hau, Etumetako bentatik Azpeitira allegatu ondoren, Bizkaia aldera joaten zen. Ermita laukizuzena da, harlanduskoz egina dago eta bi ate ditu. Ezker paretan dagoen arku eskartzano batek bertan jaiotzen den iturria erakusten digu; toki honetan, gainera, orain dela gutxi (1987 aldera) Lurdesko Ama Birjinaren irudia jarri zen. Auzoak iturri horren izen berbera dauka, hau da, iturri-otz.

Ermitaren barneko erretaula simplea da: margorik gabeko egurra; erdian, Joan Bataiatzailea eta, honen ezker-eskuinetara, Loiolako Inazio eta San Roke; goian, Gurutziltzatuaren irudi txiki bat, Ama Birjina eta San Joan aldamenetan. Erretaularen gainean, txarabeldutako bi idibegi daude eta hauetatik argitasun piska bat sartzen da.



Erromeria Zelatunen.



Ariñ-ariña Zelatunen.

XVI. mendean Iturriotzeko San Joan ermita ez ezik, bere inguruko mendiak ere Sayazko Alkatetza Nagusiarenak ziren; hau, Aia, Lurgain, Urdaneta, Alzona, Albiztur, Beizama, Bidania, Errezil eta Goiatzek osatzen zuten. Urtero, Igokunde ondoko igan-dean, bederatzi herri hauetako zinegotziak biltzen ziren bertan, probintziako Batzar Nagusietan ordezkari-tza-lanak egingo zituen herriari ahalmena emateko; ordezkari-tzeko ahalmena txandakako sistemaren arabera ematen zen. Ondorioz, elizkizunetan agintari guztiak maila bereko eserlekuetan jartzen ziren. Ermita, denbora luzez erabili zen herri hauetako ahalduak aukeratzeko leku bezala, 1792an herri hauen lurralde-zatiketa eman zen arte hain zuten. Handik aurrera Aiako alkate eta zinegotziak izango dira otoi-tegiko patronatuaz arduratuko direnak.

1625. urtean Lope de Isastik idazten duenaren arabera, ermitapean jaiotzen den urak sarna edo hazteria sendatzen omen du. On Joxemiel Barandiaranek, bere alde-tik, adierazia du erromes asko joaten zela ermitako iturrian bainua hartzera San Joan bezperan, 23tik 24ra doan gauean alegia. Iturriotzeko ermitaren zelaietan, Igokunde egunez, azoka jendetsua ospatzen zen, 1727an Ordizian bildutako Batzar Nagusiak Ailara aldatzea erabaki zuten arte.



Ernioko gurutzek, 1940 aldera.

Ernioko Gurutzea, mendizaleak biltzen diren tokia izateaz gain, urteko egun jakin batzuetan erromeria-lekua da. Honela, Ostiral Santu guztietan, eta goizeko lehen orduetatik hasita, Gipuzkoako leku orotatik etorritakoak aldapan gora joaten dira "kalbariotan". Errezilgo herritik hasi eta puntaraino igo behar izaten duten aldapa hau gogorra eta etengabekoa da; gailurra, berriz, burdinezko gurutzez josia dago. Ohitura zabaldua izan da erromeria-talde bakoitzean egiten ziren errezuak emakumezko batek zuzenduak izatea. Gaur egun ordu jakin batzuetan egiten diren funtzioetan apaiza izaten da buru. Beherako bidean, herri-sinismenak harrizko gurutzeetako batek dituen aroetatik gorputza pasatzea gomendatzen du, erreumari eta, oro har, gorputzeko gaixotasun guztiei aurre egiteko.

San Joan Txikiaren eguna dela medio –santuen izendegian San Joan Bataiatzailearen martiria, abuztuak 29- eta igandero, irailaren azkenekora arte, Ernioko Gurutze-erromeria egiten da, beharbada Gipuzkoan ezagunena. Baina iraileko azken igandea da, bukaera bezala, milaka mendizale biltzen den eguna, egunsentian hasi eta ilusentira arte luzatzen den erromerian. Batzuk agindu dutena betetzera, beste batzuk jaso duten zerbaitengatik eskerrak ematera; lehenengoak mendira egun-pasa eginez, bigarrenagoak ohiturari jarraituz. Denak, Erniok oraindik daukan erakargarritasun horren adierazgarri dira.



Iturriotzeko San Joan basiliza.



Ilusentia Zelatunen.

"Arzaiak aserra zituzten
gastak agari zituzten".

Esteban de Garibay

Artzantza Ernion

Erniora dozenaren bat artzain igotzen da, denak mendiaren magalean dauden herrietakoak. Bertan dauden larre apurrak jabetza pribatukoak dira, ez dago herri-ondasunik. Maiatzaren hasieran lehenengo artaldeak Ernioko abelbideetan gora abiatzen dira eta Pilarika bitarteko urte-sasoia bertan igarotzen dute; hala ere, Santu Guztien eguna pasatu arte jaisten ez direnak badira. Garai batean, ostiralez igotzea edo jaistea ez zen bururatu ere egiten; izan ere, ostirala Jauna hil zenaren eguna dugunez, ezbeharren bat-edo izateko arriskua zegoela uste baitzen. Gaur egun, berriz, horrelako gauzei erreparatzen zitzaiela sinesteak ere lanak ditu.

Garai bateko artzainak oso aspalditik markatuta zituzten bideetatik igotzen ziren Erniora. Gaur, ordea, ez dute erraza: bat-batean erabaki behar izaten dute nondik joan, behar den lekura iristeko; izan ere, pasabide asko eta asko itxituraz itxita baitaude. Artzaina, bakar-bakarrik igotzen da urte-sasoi berri bat goialdean pasatzeko.



Artzainak hankan
beso-eusle bat
jartzen.



Alkizako
Berandoain
baserriko ardiak.

Eta horrek badu bere arrazoia: denboraldia igaro behar duen txabolan lagun baten-tzat baino toki gehiagorik ez izatea. Bere bizia egiten duen lekuari txabola deitzen zaio, eta animalien babeslekuari eskorta edo borda. Garai batean ukuilutako bakarrik erabiltzen ziren borda haietatik bakarra gelditzen da, xumea da eta berrehun bat ardirentzat lekua du. Lehenagoko txabolak gela bakarria izaten zuten; bertan, sukaldia, biltegia eta, izkina batean, ohea egoten zen. Koltxoia txilarraz egindakoa izaten zen –gaur goma-aparra erabiltzen da–. Gaur egungo txabolak eraikiak dauden lur-zoruaren jabearenak dira, eta, sorreran, eraberritutako ukuiluak ziren. Oro har, oho-lezko teilatua dute; plastiko iragazkaitza ezartzen zaie; gainean, zotala jartzen zaie, barruko giroa fresko egon dadin; eta, guzti hori teilaz estaltzen da.

Garai bateko artzain-txabolak bi zati zituen: suaren ondoan ohea eta sukaldia; honen atzealdean, gazta eta lanabesak edukitzeko gela. Gaur egungoak handiagokak dira eta zenbaitekguruko iturriren batetik tutu malguetan ekarritako ura ez ezik, motor txiki batzuei esker eragindako argia ere badauka. Lehenago izaten ziren txerritegiak ez dira ikusten; oilo-haztegiak ere ez dago. Lehenagoko artzainek, artaldearekin batera, dozena erdiren bat txerri eramaten zuten Erniora; hauek, uxarrean ibiliz aurkitzen zutenaz gain, gazta egin ondoren geratzen zen gazuraz elikatzen ziren. Oiloak, berriz, berrogeiren bat izaten ziren; hauei esker artzainek arraultzak izaten zituzten goialdean igaro behar izaten zuten denbora guztirako; saldu ere egiten zituzten. Gaur, ordea, txerriak ez dira igotzen; oiloak, eramaten badira, lau edo bost baino gehiago ez dira izaten.

Gaur egun, Ernion, larrean dabilzan ardiak 3.000 inguru dira; eta kopuru hori bere horretan mantendu da urteetan, dauden larreek ez baitute gehiagorako ematen. Latxa arrazakoen artean mutur-gorriak dira nagusi; mutur-beltzak, berriz, bakarren batzuk ikus daitezke. Lehen, mutur-beltz hauek estimatuak izaten ziren, artaldeari zorte ona ekartzen ziotelako. Artzaiek ez dute batere gustuko izaten zenbat ardi duten galdetzea; erantzuna berehala ematen dute: Konta itzazu!

Ardi bakoitzari izena jartzen zitzaion, eta bere izenaz deituz gero, berehala erantzuten zuten; beraz, ardiak animalia tontoak diren ustea gezurra da. Ardiak belarrietan markatzen dira, norenak diren jakiteko. Hala eta guztiz, hori ez da hain beharrezkoa; izan ere, artzain batek ez ditu bi ardi nahastuko berdinak direlakoan eta bereak denak ezagutzen ditu asko egiaztatzen aritu gabe. Belarriaren beheko ebaketari katxa edo koska deitzen zaio; belarriaren puntako ebaketari, berriz, punta-motxa; eta, txulua edo zulukoa belarrian egiten den zulo biribilari deitzen zaio. Marka



Saturnino Izqueta, "Eldu".

hauen modu baterako edo besterako konbinazioak –aurrealdean edo atzealdean, belarri batean, bestean edo bietan– artalde bakoitzaren bereizgarritasun dira. Ernio guztian belarri-marka berdina duten bi artzain ez daude; baina, noiz edo noiz, gertatu izan da beste mendiren bateko artzain batena bezalakoa izatea.

Ernion bulunba handiei dunbak deitzen zaie eta txikiei, berriz, txintzarriak. Haiek, uztaiak izeneko larruzko edo egurrezko uhalez lotuta, igotzerakoan eta jaisterakoan erabiltzen dira. Aziendak gustukoa du bulunbak eramatea, eta urte sasoiari dagokion transhumantzia berri bat egitera doala igartzen du, artzain txakurrak sumatzen duen bezalaxe. Behin goi-larreetara heldu ondoren, bulunba handiak kendu egiten zaizkie ardiei, bestela ezinezkoa izaten baitute larrean ibiltzea. Lehenago, ardi batzuei –seitik hamarrera bitartean- lau txintzarri zituzten uhalak jartzten zitzaizkien, erbinudeen erasoak aldaratzeko.

Txabola ondoan, mendian, artegi batzuk daude eta, artzainek, bertan sartzen dute artaldea, ardiak jetzitzeko.

Artzainek ahariaren bat edo beste edukitzen dute gurutzatzeko; ahariak, beraiek hazitakoak edo beste artzairen bati erositakoak, arraza hobetzeko izaten dira. Gaur egun %20 eta 30 arteko erditzeak bikoitzak dira. Artzainak badaki erditzeko puntuan dauden ardiak zeintzuk diren eta aldi oro begiratzen die. Aurrerako uzten diren arkumeei, hilabete bat edo bi dituztenean, buztana mozten zaie, jetzitzeko orduan enbarazu egiten baitu. Saldu behar diren arkumeei, aldiz, buztana bere horretan uzten zaie, uratik eta hotzetik babesteko.



Asteasuko
Etxebitarte
baserrian ardiak
jezten.



Larre berrien
atzetik, Erreziltik
Asteasura.

Urtero, negu partean, ardiei osasun-kontrol bat egiten zaie; hau, ukuiluz ukuilu dabilzan albaitariak burutzen dute. Kontrol honetan identifikazio-plaka berria jartzten diote ardi bakoitzari, batzutan plastikozkoa eta bestetan metalezkoa. Eta udako egun batean artalde guztiak Zelatunen biltzen dira, albaitari talde batek ikus ditzaten. Albaitari horiek, ardiei hazteriararen aurkako tratamendua jartzeaz eta parasitoidak kentzeaz arduratzen dira.

Txabola ondoan bainuontzi bat jartzten da; bertara, uraz gain, lisiba, formola eta harri-urdinez egindako nahasketa botatzen da. Ardiei hemendik pasa arazten zaie, bertan pausua ematean, hankak desinfektatu ditzaten; honela, hanka-mina ekiditzen dute. Eragiketa honen maiztasuna ardiak ibiltzen diren lurrairean eta klimatologiaren baitan dago. Hazteriararen aurka urperatze-tratamenduan erabilitako hondakin-urak, bere produktu kaustikoekin, lurpeko akuiferoei kalte egiten diete. Horri, garai batean ez zitzaion erreparatzen; gaur, ordea, Aldundia tratamendua depositu berezietan emandako dutxen bidez burutzearen aldekoa da; sistema honek, hondakinak naturara jaurtitzeko ekiditzen du, berreskuratuz edo kolektoreetan biltzen baititu.

Asteasuko
Aranburu-berri
baserrian ardiei
ilea mozten.



Ernioko artzain baten eguna goizeko seiak aldera hasten da: aurrena gosari-legea egingo du, ardiak jetzitzen lana baldin badu, jetziko ditu eta gero larrera bidaliko ditu. Gazta egiteko urte-garairik hoberena otsailetik ekainera eta irailetik azarora bitartekoa da. Artzaina, gaztagintzan, nahiz goizez nahiz arratsaldez aritzen da, diru gehien ematen dion lan-klasea baita. Gaur-egun, bestalde, artzaina ez dugu ikusiko, garai batean bezala, galtzerdiak edo makilak egiten.

Ernion probetxuzko beste gauza bat aziendaren simaurra zen. Azaroa eta abendua artean artzainak igotzen ziren eta borda barruko simaurra biltzen zuten, ongarri bezala, barrutietan zabaltzeko. Orain, bordarik ez dagoelako eta azienda larrean kanpoan aritzen delako, simaurrik ez da biltzen.

Artzainak, edonora joaten dela ere, beti zakurra eramango du berarekin. Artzaintzat, zakurra, lagunik leialena ez ezik, morroirik finena ere bada. Denek artzain-txakur bat edo bi dute lagun. Ernioko artzainek zakurren arrazari ez diote horrenbesteko garrantziarik ematen, lana ondo egitearekin eta ofizioa ondo eza-gutzearekin konforme izaten dira.

Ernion dauden dolinak, hau da, kararrizko lurretan, uraren eraginez haitzak desegitean sortzen diran sakon-uneak, artzainek zuhaitz-adarrez betetzen dituzte, animaliak amildu ez daitezen. Iturriak ere oholez hesitzen dituzte, animaliek zikindu ez dituzten.

Ernion harriz egindako hormak daude, metroren bateko altuera dutenak -1,5 eta 1,8 metro dituztenak badauden arren-; gaur ia gehienak hondatuta daude. Hauek, garai batean belargintzarako erabiltzen ziren barrutien aztarnak dira. Alanbre arantzadunaz itxitako barrutiak ere ikusiko ditugu, uda partean artalde ezberdinetako aziendak bereizten dituztenak alegia.

Artzain gehienek, urrian, eta beheerako bidea hartu baino lehen, ardi-aukeraketa egiten dute: hurrengo urterako behar dituztenak hartu eta gainontzekoak -gazteak eta zaharrak- saldu egiten dituzte. Salmenta egiteko, gainera, erosle-bila lan gehiegirik ez dute izaten; izan ere, artzain bakoitzak bere harakin edo ganaduzale propioa izaten du, eta honekin moldatzen da ardiak saltzeko.

Hara, nola bizi diren Ernioko artzainak oraindik!



Artaldea,
Ernioko hegitan.

Ohiturak eta sinesmenak

Eguzki-lore.



Eskualde honetako mito eta elezaharrei buruzko informazioa On Joxemiel Barandiaranek, Ataungo jakintsuak, utzi zigun idazlanatik ateratako orrietan dugu. Hauetako batzuetan Mari dugu pertsonaia nagusia, euskal jeinu mitologikoa eta Murumendi mendian bizi dena. Goiatzen esaten zen, mendi horretan, Mari mataza askatzen aritzen zela, bere gelako atean; lan horretan –esaten zenez– zeruan eguzkia eta hodei beltzak batera zeudenean, batez ere, ikus zitekeen. Itsasondoko apaiz ausarta bati buruz esaten zen zazpi urtean behin Murumendi gaineraino igotzen zela, Mari bizi zen kobazuloaren sarreran meza ospatzeko.

Era berean sinesten zen Albizturko Mendikote mendian Jentillen meatza izeneko kobazulo bat zegoela, Mari jeinua bizi zena. Horri buruz, Errezilen esaten dute, gizon bat kobazuloan sartu zela eta Marik sagardoa eskaini ziola; sagardoa, iruzur egiten zuten sagardogileei lapurtutakoa zen. Iruzurgile hauek, zergak ordaintzeko orduan, egiten zutena baino sagardo gutxiago aitortzen zuten.

Errezildarrentzat Marik emakume itxura zeukan eta zeruan mugitzen zenean sua zerion; gainera, batzuetan, erratz bat eta, beste batzuetan, kateak eramaten zituen.

San Joan sua.



Mariren antzera, baziren Orion eta Aian giza itxura zuten beste jeinuak ere, Gorritxikik deitzen zitzaienak. Behin batean, Leoia baserrikoek Gorritxikia harrapatu eta beraien karobian erre omen zuten; hil aurretik, ordea, jeinuak honako madarikazio hau botu omen zuten: "Mundua mundu den artean, Leoian ez da elbarririk falta izango". Esaten dute madarikazioa betetzen jarraitu zuela belaunaldiz belau-naldi.

Antzeko jeinua Errezilen Gauargi deitzen zieten zen. Gaez agertzen zen argi edo argitasun puntu baten itxurarekin, zoruan, zuhaitzaren batean edo haitz baten gainean. Aita Barandiarani honi buruz hitz egin ziotenetako batek honela deskribatu zuen: "Gaez ikusten da. Adarrean dago, eta jotzen dezu makillekin eta makillan gelditu. Oain emen dao eta gero airean juan eta auzko aldeko mendian jarri. Ala da argi hori". Gauargi jeinu oso mesedegarria zen. Era honetan, Ingumari, jeinu kaltegarriari, arao egiteko honako hitz hauek erabiltzen ziren: "Hi, aldiz, jin hakitala, Gauargia".

Sinesmenen arlo hau superstizio batek aberasten du, kobazulo asko zenbait base-rrirekin lurpez komunikatuta dauden superstizioak alegia. Esate baterako, Albiztur-
ren uste zen Aldabazarreko sukaldea -Aldaba auzoan eta Burdin Aroan Intxurreko



Mendikote mendia,
Albizturren.

Ernio
ilunabarrean.



kanpamentu militarra izan zenaren behealdean dagoen baserria- eta Arrobigaña kobazuloa -Albizturkoa- lurpez komunikatuta zeudela. Antzeko zerbait gertatzen zen Aiako Alzola auzoan dagoen Semeola baserriarekin, herrigunearekin lotuta zegoela uste baitzen. Esaten zenez, Semeolako etxeoandreak trumoi-lainoak sumatzen bazituen Marimunduko jeinuari zuzentzen zitzaion, euskaraz eta erdaraz, honako arao honekin: "Karga Izarraitz ta deskarga Erniyo eta guarda Alzola, endemás Semeola. Carga en el monte Izarraitz, descarga en el de Ernio y protege Alzola, sobre todo Semeola".

Ohiturei dagokienez, gauza jakina da errezildarrek erreguak eginez Murumendiraino joaten zirela, maiatzeko Santa Kruz egunean, garai horretan hasten baitziren uzta hondatzen zuten ekaitz beldurgarriak. Era berean, ekaitzetatik babesteko, Bidanian belar eta lore sortak bedeinkatzera eramaten ziren San Joan baselizara; gero, ekaitz arriskua zegoenean, belar eta lore hauek baserriko atean erretzen ziren, keak erauntsia eta arrisku guztia uxatzen zuela sinesten baitzen. Beste landare bat, eguzki-lorea, illargi-belarra ere deiturikoa, basa-karduaren lorea dena, etxeetako ateetan jartzen zen, etxea eta bertan bizi zirenak tximistetatik eta iratxo kaltegarrietatik babesteko.

Bukatzeko, Esteban de Garay-k (1533-1599) benetako gertaera bezala argitaratu zuen elezaharra aipatuko dugu: "Arrexil"-en zeuden kantabriarren aurka erromatar-osteek egiten zuten setioaren aurrean, errezildarrek Erniora igo eta, honela, bere burua salbu jarri zuten. Borroka basatiaren ondoren eta porrota ezinbestekoa zela ikusita, borrokalariren amek, beraien semeak akabatzea erabaki zuten, etsaien hatzaparretan harrapatuak ikustea baino nahiago zutelako. Elezahar honek oinarri historikorik ez duen arren, aldera batzuekin, jendearen oroimenean dirau.



Entzun ahal baneza mendiaren hizkuntza

Inaxiok ez zuen jadanik gogoan nori okurritu zitzaion Ernioko buelta hura egitea astelehen gorri batean, baina igoal zitzaion. Horrela gertatzen da urte asko ezkondurik daramatzaten bikoteetan: asmo bat botatzen du batek, besteak bere egiten du, eta biek gustuko duten irtenaldia bilakatzen da azkenik asmoa. Hori da ezkon-turte askoren emaitza: besteak atsegin duena norberari ere laket gertatzea.

Egun hartakoa, ordea, ezohiko ibilaldia zen. Igandean egin ohi zuten asteko mendi irteera, baina astelehena zen. Inaxiok egun batzuk libre zituen lantokian, baina ez ziren inora mugitu; Pili, emaztea, gero eta geldiagoa zegoen irtetze kontu horretan, gero eta interes urriagoa bazterrak ikusteko. Uda bete-betean, egun sargoria atera zuen, Erniora igotzeko beroegia, eta, batez ere... batez ere Iruñean zegoen Inaxiorentzat interes-gunea egun hartan: San Ferminak hasten ziren, eta festa giroan ondo bazkaldu eta egun aztoratuagoa pasatzea nahiago zuen, baina...

Bederatziak jo ditu jaiki, gosaldu eta prantatzerako. Kotxez bare dago Azpeititik Errezilerako bidea.



-Nondik joango gara -galdetzen du Pilik-, Etumetatik ala hostaletik?

-Etumetatik badakizu zer dagoen gero, Gorrizolatza, "la cuesta de la muerte". Bizikletan igo duenik ez omen da ezagutzen...

-Ba, bizikletan! Oinez tipi-tapa lasaian joanda ez da igo ezin den aldaparik!

-Hara bestea! Gainean dauzkagun urteak aldapa txikia iruditzen al zaizkizu? Gainera gaur bazterrak berotuko ditu...

-Ai Inaxio, aspaldi honetan aitzakia besterik ez daukazu edozertarako! Tira ba, goazen hostaletik, baina sargori delako e!, ez adinaren aitzakiagatik!

Piliren gazte-itxura horiek amorrua sortzen diote Inaxiori. Sinestea ere, hitzaren bidez gorputzak daraman zama eta beherakada arintzea posible denik!

Autoa hostalean utzi eta, handik dagoen ikusmira zabalean erreparatu ere egin gabe, abiatu dira. Ohiturak horrelako zentzumen-galerak dakartza: asko ikusten ditugun gauza eta pertsonen edertasuna apreziatzeko ahalmena murrizten du.

Haizerik gabeko egun petoa; hostoak dantzan jartzeko ez du asko behar, baina geldi-geldirik daude. Izerdiaren zapore mikatza aurki da Inaxioren ezpain ertzean. Harriek beroa islatu eta jaurti egingo luketen ispiluak dirudite. Eta eguzki erreak jostoratz tiki eta mingarriz zulatzen ditu gorputzaren junturak. Eta hori gutxi balitz, Pili hasi da atzean gelditzen. Jesus Maria. Hamar urteko umea ordubetean ailegatzen da hostaletik Zelatunera. Pilik bi beharko ditu. Gero adinak ez duela pisatzen esan dezan... ipurdiak pisatuko ez balio, sikiera...

Inaxiok, mendian, hotsak entzuten ditu, hitzak, parrafoak, galderak. Hasieran bere



baitako hitz zakarrak, eta gero mendiak esaten dizkiola diruditen hitzak. Hala ote da, ala pentsatzeko modu bat besterik ez da mendia igotzea?

Piliren ipurdia dela eta ez dela, orain gezi zorrotzagoak datozkio gogora. En cambio, lehen, garai batean, hik maite huen Pili, desiratzen huen haren ipurdia, orduan arina zitzaian, ez astuna, bihotza saltoka jartzen zian harekin hitzartutako zita bakoitzak. Zer egin diok heurre buruari? Zer egin diok Piliri?

Hasieran, egia da, Inaxiori ez zitzaion mendia asko gustatzen. Pilirengatik hasi zen aldapak igotzen, oinak urratzen. "Mendira joatea igandero pelikula bera ikustea bezala da", esan ohi zuen. Gainera Euskal Herriko gailurrik nabarmenenak urte batean igotzen dituzu. Ordea, denborarekin, mendiek dituzten aurpegi aldaketak antzematen ikasi zuen, lurraren eta harrien gainekoak bezala zeruak, egunaren argi ezberdinak edota eguraldiak eragiten diena. Eta Ernio iruditu izan zaio, beti, mendirik aldakorrena, aberatsena. Handia baita, horrek eskaintzen duen ikusmira-puntu ugarirekin; eta lurralde zabaletarako ikusmira eskaintzen baitu, bista nekatu arte amaiezina ageri den ikuskizuna. Horregatik, hasieran ez. Baina gero Inaxioren mendizaleatasunak aurrea hartu zion Pilirenari.

Zelatunera iritsi dira azkenik. Heldurik daukate oraindik gailurra! Ez dago animarik ere inguruan. Txabolak itxia. Eltxoa eta zamorroa ugari airean jira-bira egoskorrean. Larunbat-igandetako mendizalerik ez kontuak esateko. Iraileko festa jendetsurik ez, barnean egonezin kilikagarri hori sortzeko. Horrela ere ezagutu behar da mendia: errukirik gabeko bakardade zantarra eskaintzen duen erraldoi berekoia. Hori bai, beti du zokoren bat gerizpean, izerdituarentzat estalgarri.

Ezkondu bizitzan aurkitu ez duen babesa. Pilik agertu ez diona. Zer esango luke Pilik honen aurrean? Zer erantzungo lioke? Ba, ez entzunda hobe.

Motxilan zekarten otordua eta Letean erosi duten sagardo botila txabola baten itza-



lean gordeta gailurrera abiatu dira. Benga, azken giharre-kolpeak nekearen eztenari amorerik eman gabe. Soinean daramaten arropa apurra blai egin zaie dagoeneko. Tarteka harri-txintzarretan atzeraka eginez, bero-sapak paisaiari ematen dion isiltasun berezi horretan isolaturik, gora iritsi dira azkenik.

-Ez al zaigu trote hauetarako sasoa joaten ari? –dio Inaxiok arnaska.

-Bai zera –Pilik–, beroa da, besterik ez!

Ez dira gauza gailurrera iritsi izanaren poza elkarri agertzeko. Bakar-bakarrik daude Erniok buelta guztian dituen malkar-zulo eta haitzezko amildegi bortitzen ertzean. Ez dago beste inor. Nori okurrutiko litzaioke horrelako egun batean Erniora abiatzea? Nori bururatu ezkondu bizitza konpontzera honaino etortzea?

E? Zer entzun du? Bizitza konpontzea? Bat-batean, isiltasunaren pisua belarrietan sentituz, Inaxiok ulertu du istorio honek bi amaiera izan ditzakela. Zerk galerazten dio bultzadatxo batez Pili haitzetan behera botatzea? Horrelakoetan ez da frogarik egoten, eta norberaren ahuleziagatik ez bada ez dute inor kondenatzen. Eutsiko lioke gezurrari, urte hauetan ezkontzaren gezurrari eutsi dion bezala.

Ordea, entzun ahal baleza mendiaren hizkuntza, ulertuko luke Erniok eskaintzen dizkion amildegi horien antzeko bat dagoela Piliren eta beraren artean, euren barruan kokatua, eta euren baitan daramatela amildegi horrek sortutako bakardade, ulertuezin eta gorroto oro. Beraz, ez dagoela Pili amildegi fisiko batera bultzatzea beharrik, haiena amildegi sentimentala delako. Aski du bazkalondoren Pili joko duen logalea aprobetxatuz, emaztea bertan utzi eta behera jaistea, aldegitia, gehiago ez azaltzea, biek bizitza berri bat hasteko aukera berdina izan dezaten.

Ezin du, baina, mendiaren hizkuntzarik entzun. Eta badoa, haitz ertzean arnasa lasaituz doakion Pilirengana, atzetik. Emakumeak ez ditu bere intentzioak ikusten. Badoa eta... azken orduan ausardia falta izan zaio Inaxiori, bizitza osoan falta izan zaien ausardia bera.

-Ikusmira ederra e, Inaxio? –esan du Pilik, lehen aldia bailuen.

-Ederra bai! –berretsi du Inaxiok paisaia begiratu gabe.

Pako Aristi

Ernio, ikusten ez zaitudan mendia !

Inguruko herri gehientsuenetatik ikusten duzuen arren, nik niretik, Tolosatik ezin ikusi baina hurbil sentitzen dudan mendia da ERNIO. Izkutuan baldin badago ere beti bezala imaginatzen dut... Erniozabal, Ubeltz eta Aitzpel tontorren jarraian. Bere 1.072 metroko altueran egon nintzen lehenbizikoz milatik gora, ume mukitsu bat artean, gerxeago etorri zen lehen bimilakoa (Arlas, 2.044 m) eta gutxira hirumilakoa (Petit Vignemale, 3.031 m), hortik gora lau mila eta bost milakoetara zertxobait eta kito... alturak buruko mina jartzen baitit eta horrek ez dut buruhausterik ematea nahi.

Kanposantua hain urruti?

Erniora iritsitako aurreneko aldia, iraileko iganderaren batean gurasoekin izango zen inondik ere, eta ez dut oso gogoan nondik igo ginen baina gauza ahaztezin batzuk gordetzen ditut.

Zer dela eta goikalde hartan hainbeste gurutze? Han goian hilerri bat antolatzea nori bururatu ote zaio? Gero pago ondoan zegoen gurutzeko burniak hartu eta gorputz atal ezberdinetatik pasa genituen... erreuma delakotik babesteko edo. Gure ezjakintasunean erreuma zer den galdetu genuenean, gizon muxgorri batek zera erantzun zuen: "Gazte hauek ez zekitek zer den hori, hezurretako mina motel!". Segidan tontorreraino Via Crucisa jarraitu genuen orapronobis loritoen antzera errepikatuz.

Biharamunean etxetik eskolara nindoala, zangoetan oinazeak sentitu nituenean zera pentsatu nuen: Akabo, atzo gaizki edo fede gutxirekin pasako nituen burniak gorputzetik eta... orain kastigua! Bezperan harrapatutako "agujetak" ziren haiek, giharretako nekearen eragina besterik ez baina orduan inpernuko suaren beldurrez bizi ginen. Askotan loa galdu eta izerdi patsetan esnatzen nintzen ohean amets gaiztoen ondorioz.

Erljiioak gurutzean iltzatu behar gintuela zirudien eta artean "kaguendioska" hasi gabeko mutilkoskorak izaki politikaz ere piperrik ez genuen ulertzen. Hantxe azaldu zen gure begien aurrean lehen aldiz ikurrina, gure buruen gainetik Ernioko

Aro sendatzaileak.



gurutze puntan jarrita. Gerialdean lotutako zinta zuri-gorri-berdeak airoso erakutsi nahi baina Jainkoari adina beldur genion "ezdakitnori" eta galtzabarrenetan kaka egin zorian jaitsi ginen berriro Zelatunera. Haiek ibilerak!

Mila metro eta gogoeta mila

1- Azpeitiko "korreoa" Tolosatik Bidaniara joan eta hango subastatu berria den paradoretik hartzen genuen zeharka antzera Ernioruntz. Paisaia hura testu-liburuetan berehala ezagutu nuen; "Valle de Régil. Población diseminada" zioan argazki-oinean.

2- Andazarretatik igotzerakoan, hango sanatorioa aipatzen zuten beti, eraikuntzak zutik zirauen orduan, tisiko, tuberkuloso eta antzekoentzat haize sanao hartzeko



Borda zaharrean eskakizun-pankarta. 1981 urtean.



Tuberkulosikotrako eritetxea, Andazarraten.

moduko lekua da inondik ere, Buenos Aires izeneko etxea bertan ote dagoen erre-zeloa daukat. Guk ez genituen bereizten artean ez tula eta doministikua; hala ere, kontuz ibiltzeko adina motibo izaten zen gaixotzeko kezka.

3- Iturriotzetik bidea hartzerakoan Loiolako Inazio noizbait handik pasatakoa zela eta sorginen konturen bat edo beste ateratzen zen beti, leku misteriosua zen eta da inguru hura. Handik Sagain Zelaia eta Zelatun. Urrutitik hain ondo bereizten den paisaia paregabea, Europatik gatzela nabarmentzen den soslaia.

4- Zelatunetik Erniora bitarteko bidea harri artean irekia eta harriz eraikia da, mal-karra tarteka, estua eta arrisksua... motor gainean igo zitekeela inork ez sinesten nonbait eta zarata ugari atereaz han azaldu zen "ez dakit zein baserriko" asteasuarra, seguru bazela apusturen bat tartean!

5- Ernioko punta-puntatik itsasoa bistan genuela irratiz Kontxako Estropadak entzunez ere egon izan gara, irailaren lehen bi igandeetako bat behar zuen derrigorez... Tolosako Ori ibaian bateletan arraunean ibiltzen ginen garaia zen hura.

6- Gazume menditik Iparraldera. Basarri bertsolariaren jaiotetxea, hantxe dago Granada zuloan, Altzolaras bailaran, handik hurbil Aranzadikoek egin zuten kobazulo bateko indusketa izan zen ikusitako aurrena, gero Amaldan jarraitu zuten.

7- Erdoiztako eliza biribilaren ingurua gustuko parajea nuen, inoiz bertara bizitzera joateko tentazioa ere izandakoa... komuna antzera kuadrila bat mendi aldera joateko garaiak ziren haiek...

Orografia eta hizkuntza

Ernietik Uzturre eta Uzturretik Ernio zein ezberdin ikusten diren jakinda, errazago ulertzen da gure Gipuzkoa txikiko geografia. Orografia zaileko eskualdean nekezago aldatzen dira ohiturak, eta kilometro gutxiko tartean hizkuntzak aldaketa dextea jasaten du. Nire ama Larraulgoa izanik eta aita berastegierra, ni Tolosan etorri nintzen mundura, baina Izagirre baserrira etorritakoan "txakurra, beia eta katuba" zirenak Berastegiko Gaztañaberriko hizkeran "zakurre, behie eta katue" bihurtzen ziren... Hizkuntzalari kaxkarra naizenez gero, baina mendiari buruzko lantxo hau

Josu bi lagunekin irailako erromerian. 1966.



eskatu didazuenez, hiztegitxo bat osatzeko libertadea hartu dut, aurten Euskal Mendizale Federakuntzaren 75. urteurrena ospatzera doala, eta inor mindu gabe, bakoitzak bere burua egokien sailkatu dezan mendizaletasunaren eskalan:

Mendigoizale:

Mendira joatea gogoko duen pertsona, bereziki mendi altuetara igotzen den kirolaria.

Mendigoiz zale:

Goizean goiz aterata bueltatxoa ematea gustuko duen mendizalea, eguerdirako etxera itzuli eta bazkal aurretik bermuta eta azeitunak hartzera itzultzen dena.

Mendigonazale:

Mendira aitzakiatzat hartuta, ligatzeko aukera aprobetxatzera joaten dena; leku izenak ikasi gabe ere telefono zenbaki pareta hartzeko gai izaten da.

Mendigoizalez:

Mendian beste guztiak adina eskubide duena eta "domingero" bezala identifikatu behar ez dena... Hemen, beste gauza askotan bezala izenak ez dakar izana.

Josu Iztueta Azkue



Irailako erromeriako ohiko zintak.

Ernio

sukaldeko leihotik

Ez dakit nola mintzatu, mihia nola dantzatu zure loaren gozoa ez dadin iratzarri. Hurbiletan hurbileneko, ihes aldietan eskuko, ekaitzean haserreko Ernio ene nereko. Nola behar naiz mintza zu aipatzen zaitudalarik: zuka, hika edo berorika? Ama, amona edo iloba zara aldiberean; berdin gozoa, epela edo astuna. Nori otu zaio liburu batean sartu zaitzaten? Nolako letraz idatzi behar da zure magaletan behera isuri den sentimenduen uholdea? Nongo disko gogorrean jaso? Ausardiak, agian, barkamenik ez du, baina barkaiezaguzu, garaiaren seme garenoi, bizitza bera eta sentimendu xumeen bizi-plazerra ere informazio metaketa soil bihurtu dugulako, baina zure izana inoiz ahanzi ez dadin nahi dugu.

Zure baitako itsaso zabalean murgil egiteaz batera, modernitatearen araurik behinenari jaramonik egiteke, ziur, betiko lekuan jarraitzen duzula konturatzen gara. Zerbitzari lehial behartuentzat, ibiltari nekatuen pausaleku, maitale ernemuinen udaberri, sasoiaren aldats, sinesmendunen kalbario-mendi, gorputz nekatuen kalbario, usadio zaharren habia, sinfonia xumeko artisten ostatu, ardi otxanen bazka, azeri aztiaren gordeleku, putreen zeru, bihotz nekatuen auspo...

Haur besoetako nintzen oraino, amaren magalak bizi iraupena edosten zidan gozoaz batera nire begiek ferekatu zintuztenean. Zure gailurretik gure sukalde xokora



Ernio mendia
Zizurkildik ikusita

"Handitasunean lerdan eta
txikitasunean eder"



oparitzen zenizkigun eguzki printzeen bide beretik, bizitzako ametsen mihisian lehen argazkia niganatu zen. Zure magala izan zen gure lehen urratsen pausaleku eta ametsen ohatze. Ortzia eta lurra bereizten dituzun lerroa. Jainko eta mamuen gordelekua. Arbasoen gudu baratza. Seaskako loaren otoitza. Iparra eta mendebala mugatzen dituen eguratsa. Nerabe eta gaztarroan lotsagabe, lehenik gurasoen eskutik eta gerora sasoiari esku emanik, sarri bisitari izan gaituzu.

Haundi txikien bereizketarik gabe askotarikoa zaitugu, anitza; haunditasunean lerdan eta txikitasunean eder. Zugan gauza guztiek dute beren lekua; pago-lizarrak eta osinak, haitz erraldoiak eta harzintzorrak, herrenak eta korrikariak... Zugan ez du iruzurrak tokirik, baina guk salerosketa merkatuan sartu zaitugu. Zugan entxufeak ez du tokirik, baina motor zaratatsuekin errezago gabiltza. Zugan kutsadurak ez du tokirik, baina plastiko eta lataz edertu nahi zaitugu. Zuk sortu gaituzu eta ez zaiguzu utzi zure ondarena izan gaitezen.

Koldo Tapia



Zizurkilgo
Lardamuño baserria.
Atzealdean Larraul.

Gida hau nola erabili

Distantziak

Ibilbide bakoitzak duen gutxi gora-beherako luzera adierazten da.

Denborak

Denborak matematikoki kalkulatu dira: igoeretan, kilometro bakoitzari hogei minutu eskaini zaizkio eta, ordeka eta jaitsieretan, berriz, hamabost.

Ibilaldiko abiadura ez da handia; baina, erritmoa norberaren arabera dagoen gauza bat denez, mendizale bakoitzak erabaten duena da erreferentziarik onena.

Aireko argazkiak

Ibilbide bakoitza airetik ateratako hainbat argazkitan agertzen da argitalpen honen azken orrietan. Abiapuntuak "I" batez adieraziak daude, eta tarteko puntuak zenbakiez (1, 2, 3...). Puntu interesgarriak, berriz, letraz seinalatu dira (A, B, C, D...).

Lerro etena argazkian ikus daitekeen ibilbidearen zatiari dagokio; puntuz egindako lerroa, aldiz, ikus ez daitekeenari (oroграфиatik, landaretzazatik...).

Aurkibideak

Lanari buruzko aurkibide orokor bat jarri da; horrezaz gain, ibilbideen, toponimoen eta interes puntuen indizeak ere aukeran jartzen dira.

Ibilbideak

"P.R." bezala ezagutzen diren ibilbideak balizatuak daude, arrasto zuriz eta oriz. Ez daude, ordea, seinalizatuta. Ernio mendira igotzeko betidanik erabili diren bideak, ez eta mendiaren inguruan dauden zortzi herriak lotzen dituen ibilbideak ere. Edozein modutan, badago beste aukera bat, hau da, lan honetako proposamenetan aurkezten diren ibilbideetako hainbat zati lotzea.

Profilak

Ibilbide bakoitzaren profilak ibilbideen deskribapen-orrien lehenengo orrian jartzen dira. Informazio hau oso baliagarria izan daiteke, ibili beharreko bideak zer nolako gogortasuna duen erakusten duelako.

Seinaleztapena

Ibilbide motzeko bidezidorren seinalizazioa (P.R.)


BIDEZIDORRAREN JARRAIPENA



OKERREKO NORANTZA



ZUINA



NORANTZA ALDAKETA



Ibilbide luzeko bidezidorren seinalizazioa (G.R.)

BIDEZIDORRAREN JARRAIPENA



OKERREKO NORANTZA



ZUINA



NORANTZA ALDAKETA



Ernio inguruko Ibilbideak

Gizakiak betidanik leku batetik bestera mugitzeko beharra izan du, janaria bilatu, bizilekua hobetu, beste gizakiekin harreman berriak hasi edota zaharrak hautsi, beste lurraldeak ezagutu, salerosketak egin, ganadua neguko larreetatik udakoetara eraman, erromes ibili eta beste gauza asko eta asko egiteko.

Era honetan, Ernio, Euskal Herriaren bihotz-bihotzean egoteaz gain, historiaurreaz geroztik, milioika gizakien pasa-lekua izan da, Erniok duen kokapen estrategikoa dela eta, Nafarroa eta kostaldea, nahiz probintzia barneko herrien arteko hainbat bide-loturak gurutzatu izan diren tokia izan baita.

Hori horrela izanda, senderismoak gure arbasoek utzitako arrastoari jarraitu dio, garai bateko basa-bide zaharrak, ohiko bideak, nahiz Erdi Aroko galtzadak berreskuratuz; eta hori dena, helburu bakar batekin: geure nortasunaren ezugarrietako bati eustea, euskaldunok betidanik izan dugun ibiltzeko ohiturari alegia.

Paraje honetan dauden ibilaldi luzeko ibilbideak (G.R.) hauek dira:

G.R. 21 Ignazioaren ibilaldia. Xabierko Gaztelua Azpeitiko Santutegiarekin lotzen du. Bidea, besteak beste, ondoko leku hauetatik pasatzen da: Iruñea, Irurtzun, Altzo, Albiztur, Bidegoian, Beizama, Urrestilla eta Loiola.

G.R. 34 Donostia eta Arantzazuren arteko transhumantzia-bidea. Probintziako hiriburua Gipuzkoako zaindarekin lotzen du, Erdi Aroko hainbat bidetatik barrena. Bidea, besteak beste, ondoko toki hauetatik igarotzen da: Zubieta, Venta Zarate, Andazarrate, Iturriotz, Zelatun, Trintxera, Santa Ageda, Mandubia, Ormaiztegi, Segura eta Zerain.

G.R. 35 Aralar eta kostaldea arteko transhumantzia-bidea. Bide honek udako eta neguko larreak lotzen ditu, eta artzainek erabiltzen dute, ganadua batetik bestera eramateko. Ondoko leku hauetatik igarotzen da: Ernio, Zaldibia, Berastegi, Santamaña, Zelatun, Iturriotz, Donostiara doan saihebidetako bat eta Aizarnazabalera doan beste bat.

Kurpillarentzat irisbidea
Errezilaik Zelatuna
Iturriotz eta Larrauldik bada
hamaika pausaje juna
xira gerrian, bokadillua,
zatoa eta laguna
izerdi pixkat boteaz bapo
pasa liteke eguna

J.M. Irazu


Ibilbideak eta igoyerak

1 Asteasu

(PR-Gi 76)
Asteasu-Usarrabi-Zelatun

Distancia
8,8 km

Duración
2h 30min - 3h



Deskribapena:

1. Lege-zaharraren enparantzan dagoen udaletxe ondotik abiatu eta eskuinean dagoen bigarren kalean sartuko zara, Erreka Bailarara joateko. Abiatu bezain pronto, herrigunea atzean utzia izango duzu; baserriak, bestalde, Usarrabi errekan zehar sakabanatuta ikusiko dituzu.

1. Bidea, bailaran behean dagoen asfaltatutako errepide estu batetik, Gi-4141etik, doa. Lehortzen dauden egur-pila batzuk pasatu ondoren, Igeribar Garaikoa eta Errizutako baserriak izango dituzu. Errizu Goikoara hurbiltzea merezi du, aurreko paretan duen armarrria ikusteko (A). Gainontzeko eraikuntzak xumeagoak dira, egurrezkoa batere gaizki ez dagoen arren.

Bidea, errekaaren parez pare doa. Ezkerrean errota zahar baten aztarnak daude. Ehun bat metrora Arrotondo baserrira hartzeko bidegurutzea dago eta, beste ehun bat metrora, garai batean errota-lanak egiten zituen Txuringarai baserrira hartzeko bidegurutzea; azken hau, Larraulgo udal-barrutian dago. Bailara handia ez da, baina, bere garaian, industria-azpiegitura sendoa eduki zuen, aurrena burdinolarena eta, gero, azkenaldian, errotarena.

Errepidean jarraituko duzu, bidebanatze batera ailegatu arte. Bitartean, Iturtabarrena eta Gain Errota baserrien ondotik pasatuko zara.

2. Bidegurutzean, ezkerrean dagoen asfaltatutako bideari helduko diozu. Iturtasarobe baserrira abiatzen den bidearen inguruan, bide ertzean txabolak iku-

Ibiltari gazteak.



siko dituzu; hauek, baserrira biderik ez zegoen garaian, gurdiak eta gainontzeko lanabesak gordetzeko erabiltzen ziren. Inguruan, Ibeltzako iturria izango duzu.

Metro batzuk aurrerago Olazarreko -edo Ibeltzeko- burdinola zaharrera doan bidea utzi eta bide zaharrean jarraituko duzu, eskuinera igoz. Berrito asfaltatutako bide kozkor batera aterako zara, ehun metro pasatutxo egin eta gero. Metro batzuk jaitsi ondoren, zenekarren bidea aurkituko duzu. Aurrera egin ahala piskanaka altuera hartuko duzu, Alleregi parajeko kaduzifolioen basotik barrena. Bidearen amaieran Sorarrainauti baserriaren aztarnak topatuko dituzu.

3. Hortik gertu, eta bidetik zertxobait aldentuta, Sorarrainauti karobia ikusiko duzu. Berrito ere asfaltatutako bidean izango zara, Itxausti baserrira joaten dena. Bidetik kanpora, 15 bat metrora, beste karobi bat (B) ikusiko duzu. Karobiak garai batean kiskaltzeko erabiltzen ziren labeak dira eta, bertan, kararria kare bihurtzen zen. Horretarako, egun batzuetan berotan eduki eta harria deshidratatu egiten zen; ondoren, ura bota eta gero, prozesu kimikoa amaitu eta, honela, karea lortzen zuten. Karea beharrezkoa izaten zen kortak zuritu, ukuiluak desinfektatu eta soroak pH egokia eduki zezaten. Gaur egun ere, karea erabiltzen da aipatutako lan horietarako.

Intxausti baserrira heldu baino lehen lur-bide batetik jarraituko duzu eta, aurrera-



Intxausti baserrira doan bidea.



xeago, bide estu batetik. Laster hartuko duzu altuera.

4. Berehala toki ireki batera aterako zara. Malda dezenteko hegia da eta, gehiengoa, artaldeak egon ohi dira. Pago batzuetara iristean, bidebanatze bat dago: bertan, eskuinera biratuko duzu. Bidearen hainbat unetan galtzadarrria dago –benetan harri handiak dira-. Aitzondota inguruan egongo zara. Usarrobi aldean ikusten den panoramika zoragarria da, ibilaldi honek daraman ibilbidea bezalaxe. Honaino heldu izanaz ez zera damu izango, ez horixe! Laster, leku basotsu batean sartuko zara, Arrasateko parajea alegia. Aurrerago, Aitzondotako erreka zeharkatu eta, Aizgarnetaren behealdetik barrena, Arribeltz aldera iritsiko zara. Basotik irten eta gutxira, bidearen goialdean, Lanbezarre borda izango duzu.

5. Puntu honetatik, altuera hartzen joan beharko duzu, Lanbezarreko belardietatik



Pagoa, Usarrobi bailaran.



barrena, Sagaineko ordekatarra iritsi arte. Bidera heltzean, ezkerrera biratuko duzu, eskuinera hartuz gero, Andazarrate gainera aterako zinateke-. Belardi hauetan apirilaren erdialdetik aurrera neguko larreetatik datozen artaldeak egoten dira, udazken arte. Ikusten dituzun ordekak Sagaingoak dira. Bihurgunearen ondoren, bidea mendebalderantz abiatzen da, artzainen korta baten aztarnak dauden tokiraino heltzeko; hemendik gertu, gailurraren inguruan, trikuharri bat dago (C).

Puntu honetan, PR hau GR 34arekin, Donostia eta Arantzazuko Santutegia lotzen dituenarekin, bat egiten du.

6. Bidea zabala da, zoruan harria dago eta bertako aztarnak garbi erakusten dute nola bide honetatik milaka bidaiari, transhumante eta gerrilari gudu-zelaira joaten ziren, Zelatun gainean borroka egitera. Goierri nahiz kostaldekoak erromatarren aurrean lurak eta gainontzeko ondasunak defenditzen zituzten. Edo, guzti hau "leyenda" ote da ba?

Bideko harri hauetatik igo ahala, burura momentu dotore haiek edo, bestela, natura, artzantza edo transhumantziarekin zerikusia dutenak etorriko zaizkizu; edo, beti buruan duzun hori hausnartzuz joango zara; edozerk laguntzen du aurrera egiten, batez ere igoera batean. Eta, halako batean Zelatun; konturatzerako iritsi zarela?

Zelatun (D) ez da mendi-lepo arrunt bat gehiago; dagoen lekuan egonda, bertatik pasatzen den Erdi Aroko galtzadak, batailak, iraileko igandeetan egiten diren erromeriak, Ostiral Santuetan egiten diren pelegrinazioak -bertako zelaigunea abiapuntu hartuta- oso interes handiko gunee bihurtzen dute.


Puntu honetan amaitzen zaizu ibilbidea. Abiapuntura bueltatzea besterik ez duzu, honaino ekarri duzun bide beretik itzuliz; edota 80. orrialdean deskribatzen den Larraulgo ibilbideari dagokion edozein bidetatik.

2 Larraul

(PR-Gi 77)
Larraul - Irumugarrieta
- Iturriburuta - Larraul

Distancia
10,8 km

Distancia
3h - 3h 30 min



Deskribapena:

1. Plazatik ere igotzen jarraitu behar duzu, Murgilen behealdean dauden baserrietara joaten den errepidetik. Eskuinaldean duzun lehen saihebidetara hartu eta Goineta baserrietara -Barrena, Bitarte eta Goiena- helduko zara.

1. Goineta Goena baserriaren aurretik jarraituko duzu, Osoldogoinatik barrena, Añezabal Haundi baserrira ateratzeko.

2. Asfaltoa utzi eta baserri aurrean dagoen bideari helduko diozu. Aldapa handiago izango duzunez, kontuz joan beharko duzu. Bideak, baso batetik barrena pasa ondoren, Ariztitxuloko Agerrezar baserrira doan errepidera eramango zaitu. Hemendik eskuinera jarraituko duzu, ipar-mendebalderantz; Murgilgo muinoa inguratzen arituko zara. Hurrengo bidegurutzek Añezabal baserrira eramaten du, baina ez kasurik egin; zuk ezkerrean jarraituko duzu, Goikozelai iturriraino. Bihurgune bat pasa eta gero, hegoalderantz joango zara, Txontabarrutiko parajea zeharkatuz. Ia beti urak hartuta dagoen gunen batek Katilutxulora ailegatu zarela adieraziko dizu. Inongo saihebidetik ez hartu, zuzen-zuzen jarraituko duzu bide nagusitik, mendebalderantz, eta, berehala, Aiteluzeta inguruan dagoen bide nagusira aterako zara.

3. Hemendik aurrera ibiltzeko egokia den basa-bidea izango duzu. Paisaje dotorea eta Asteasuko ibilbidearen ikuspegi bikaina ikusiko duzu, bereziki Usarrobi eta Sorarrain parajeak. Daramazun bidetik adar bat ateratzen da eskuinera; hau, kon-



Zelatuneko gaina,
Urkiditik ikusita.

tuan izango duzu. Jarraitu igotzen -aldapa hain handia ere ez da- eta, konturatzerako, paraje lauago batera aterako zara, Agiregira hain zuzen. Ezkerrean muino belartsu bat izango duzu, Mullegi. Bideari, ezkerrean ateratzen den adarretik jarraituko diozu eta, honela, tontor batera aterako zara; hemen, bidebanatze bat izango duzu -bueltan ezkerreko bide horretatik etorriko zara-.

4. Bidetik jarraituko duzu, igoera labur batean, hurrengo bidegurutzera iristeko; hemen, Loidiko gurutzeta ikusiko duzu. Puntu horretan, gainera, bidegurutze bat dago eta, bueltan, ezkerreko bidetik joan beharko duzu.

Zuzen jarraitu. Bideak, metro batzuk bakarrik iraungo dizu, gero ezkutatu egingo baita; era berean, itxura hobea hartzen joango da, izan ere, une batzutan bederen, zorua harriztatua azalduko da. Landaretza ere aldatzen joango da eta zuhaitzi kozkor batzuk pasatuko dituzu: batzutan, pagoak, beste batzutan, berriz, alertzeak. Belanburutik Mugertzara pasatuta izango zara.

Bidean aurrerago joanda urki batzuk ikustean, Urkidira helduta izango zara. Urkiak erraz ezagutzen diren zuhaitzak dira, duen azal zuria (A). Eta horrexegatik, hain zuzen ere, garai batean lurren mugak seinalizatzeko urkiak erabiltzen ziren. Jendeak erabilera bat baino gehiago eman izan dio, horietako batzuk nahiko bitxiak gainera. Honela, urkiaren egurra kaikuak egiteko erabili izan da -esnea berotzeko erabiltzen zen munduko ontzi bakarra-. Bestalde, azala polainak egiteko erabiltzen zen eta izerdiarekin, berriz, edari bat egiten zen.

Zuhaiztiak ematen duen bezala jarraitu eta Ernio Txikiko hegiatik Irumugarrietako mendi-lepora igoko zara. Belarra eta garoa nagusi diren muino hau, lau udalerrien muga da, Larraul, Alkiza, Albiztur eta Errezilena.

5. Puntu honetan, Alkizatik datorren PR 78arekin bat egingo duzu eta, bertatik, nahi izanez gero, Zelatun gainera helduko zara, baina, gaurkoz nahikoa dela uste dut eta, ondorioz, Larraulera bueltatzea izango duzu onena. Nolanahi ere, beste zerbait bururatzeko bazez, 84. orrialdea kontsulta dezakezu. Mendi gaina atzean utzi eta gero, beheko bidea hartuko duzu eta, hego-ekialderantz, Lupatx aldera abiatuko zara. Bide ona izango duzu ibiltzeko, erreka inguruan izan ezik, bertan labainkor samarra dagoelako. Landaretzak geroz eta indar gehiago hartuko du eta bidea estuagoa izango da. Unillo Saila inguruan, erreka dagoen ibarrera jaitsiko zaituen bideska izango duzu; erreka hau, Urdanesira irteten da.

Irumugarrietako gaina. Atzealdean Ernioko gurutzea.



6. Bideska hau ez da aurkitzen erraza eta, beraz, ohi baino arreta handiagoz ibili beharko duzu, ohartzerako atzean utzi nahi ez baduzu; baina horrela gertatuko balitz ere, ez arduratu. Itxurain gaina hor duzu-eta, akatsa zuzentzeko, berriro igotzen aritu gabe. Informazio gehiago nahi izanez gero, Alkizako ibilbidea ikus dezakezu, 84. orrialdean. Kontu handiz jaitsiko duzu bideska, malda dezentea du-eta. Bideskak erreka -urtean gehienetan lehortuta egoten da- sigi-sagak eginez zeharkatzen du. Berehala, daramazun bideska zuzen-zuzen zeharkatzen duen bide batera helduko zara. Puntu horretan, eskuinera hartuz gero, Urdanesitik Alkizara doan bidearekin bat egingo zenuke. Zuk, ordea, aurrera jarraituko duzu, behealdera egin dituzun azken metro hauetan galdutako altuera berriro errekuperatuz.

Bidea, eroso izango duzu. Tapa-tapa segi eta bi tontor azpialdetik inguratuko dituzu: 646 metrokoa bat eta, bestea, Arburua gaina, ekialdean. Metro batzuk aurreraeago Loidiko borda eta, ondoren, estela bat ikusiko dituzu.

7. Gogoratzen zara puntu honetaz? Bai, ezta? Irumugarrietara iristeko, igotako bidea jaitsi egin beharko duzu, bidegurutze bateraino; hemen, eskuinaldean, Iturriburutako parajea izango zara. Jaisten jarraituko duzu. Laster, Goenaga baserriera helduko zara -gaur inor ez da bizi bertan- eta, gero, Lizaso baserriaren aztarnak ikusiko dituzu.

Eskuinaldean dagoen hegian Pedrojuanenea, Tontorre eta Aritzetako baserriak izango dituzu. Bidetik jarraituko duzu zuzen-zuzen, bailarara jaitsi gabe. Arpide Gain baserriera heldu baino lehen berreskuratu duten karobi bat ikusiko duzu eta, metro batzuk aurrerago, berriz, beste baserri baten aztarnak.

Pago-hostoak.



8. Arpide Gainetik abiatzen den hormigoizko bideari helduko diozu, ezkerrean dagoen bihurgunera arte. Hemen, belardira sartuko zara, baina Gurutzeaga eta Izagirre etxeak dauden errepidera atera gabe. Bideak berriro errepidera eramango zaitu, Gorotzun baserritik gertu, eta hemendik plazara joango zara. Ibilbidearen amaiera.



Goenaga baserria.


3 Alkiza

(PR-Gi 78)

Alkiza - Irumugarrieta - Zelatun

Distancia
7 km

Duración
2h - 2h 30 min



Deskribapena:

Alkizako plaza ibar gainean dagoen balkoi dotore bat da. Zeruertza osatzen duten mendiek goizeko lehen orduekin batera egunsentia urratzen dute, Gipuzkoa eta Nafarroa artean dagoen irudimenezko muga erakutsiz. Aurrealdean Uzturre punta ederra nabarmetzen da, eta bere azpialdean Nacional 1 errepidearen paralelo doan Oria ibaiko urek eratutako ibarra dago.

Plazan bertan daukazu San Martin eliza. Irekita badago, sartu; bestela, atea ireki diezazukeen norbait aurkitu beharko duzu. Barruko erretaula ikusitakoan aho zabalik geratuko zara.

I. Errepidera irten, Anoetara bidean jarri –udaletxeari begira zaudela, ezkerrera eta metro gutxi batzuk egin ondoren, eskuinera desbiderapen bat ikusiko duzu. Kalezulo honetatik barrena jaitsi eta segituan Lete (A) eta Lete Berri etxeetara helduko zara. Letek daukan armariari errepara iezaiozu, ikusgarria da benetan. Armari honen misterio, data edo biak aurkitzen badituzu, ez zara makala. Eskuinera doan hormigoizko bideari jarraitu, Areta baserria gaingitu arte.

1. Bidegurutzera ailegatzen zarenean ezkerrera hartu eta, aurreraxeago, ezkerrera berriro. Atzean bide leun eta ordekatuaren gozotasuna ia utzia izango duzu. Hemendik aurrera pausoa motzagoa eta biziagoa emateak, aldapa handiegia ere ez dagoen bidean, altuera hartzen lagunduko dizu. Ibilbidearen zati hau "PR-Gi 79

Areta baserria.



Alkiza", Urdanesitik barrena, Alkizara doan bide bera da. Pago batzuen ondoan, eskuinera, pista bat ikusiko duzu, Zelatunera joateko erabiltzen zen bide zaharra; gaur egun, ordea, pista hau ez da erabiltzen, berria egin zutelako –zu zabiltzana–.

2. Honaino ekarri duzun bidea utzi eta, eskuinera, gorako norabidea hartuko duzu. Ez ahaztu gure ibiltzeko usadioaren zati baten berreskuraketan parte hartzen ari zarela. Badakizu, ibilian, ibilian, bidea urratzen da. Goian Santakutz dago. Burdinesi bat gaingitu eta gero, aurrera joan ahala bidea estutu egingo zaizu; ah, baina, hori bai, paraje oso dotore batetik joango zara, Alkiza eta Larraulen arteko arana, Urdanesi eta Arraia errekekin batera, begien bistan izango baituzu. Lakapidetik barrena segi eta, berehala, Otsozulotara jaitsi beharko duzu. Metro batzuk aurreraxeago Itxuraingo tumulua ikusiko duzu goian.



Behia, Santa Kruzeko haitzaren hegian.



3. Goialde honetan, Argorri eta Endaizburuko muinoen artean, izeiz osaturiko baso itxi batean bukatzen den Itxuraingo lepoa hasten da. Eskuinera jarraitu alertze batzuekin topo egin arte. Eta hemen erabakia hartu beharko duzu: Alkizara itzuli, Urdanesi eta Aritzeta baserrietatik barrena, edo Zelatunera igo. Gaur, azken hau proposatzen dizut, ea zer deritozozun.

4. Itxuraingo lepoan jarraitu (Alkizan Itzulegi esaten diote) eta izeidira iritsiko zara. Izeidi hau zeharkatzen duzunean, ezkerretara pista bat ikusiko duzu, lehen utzi duzuna, hain zuzen ere. Zelatundik itzultzean hortik jaitsi zaitezke, luzeagoa izan arren, erosoagoa baita. Mendien barrena zoazen heinean bideak zoru hobea izango du. Ibar, erreka ziztor eta pasabide naturalek ibilbidea bihurria egiten dute.

5. Orain, bideak pagadi batera eramango zaitu; itsasoz gain 750 metrora eta Sarobe Saila izeneko parajea izango zara. Igo ahala, eskuinera dagoen sakanean zulo sakon bat ikusiko duzu, zuhaitzi eta haitezaren artean; dolina (B) baten aurrean aurkituko zara. Dolinak fenomeno bitxiak dira benetan: uraren eta lurpean gertatutako higaduraren ondorioz lurra ondoratu egiten da eta sakana sortzen da, inbutu handi baten itxura hartuz.

Ernio mendilerro guztia, honela, iragazki bat besterik ez da, asko baitira bertan dauden leize eta haizuloak, lurpean egongo den erreka bat edo beste ahaztu gabe. Espeleologiaren mundua, berriz, beste gauza bat da. Hemen, iluntasuna, argitasuna, misterioa... dira nagusi. Natura atsegin baduzu, mundu honetan gustura asko ibiliko zara; baina, hori bai, lurraren barnean dotorea dena, bertan bakarrik da dotorea. Kanpoan lurraren barruak duen magia hori galdu egiten da.

Hurrengo mendiska Unillo Saila izango duzu; bertara heldutakoan, bidea bitan zatituko zaizu, hemen hasten baita Larraulerako PR-Gi 77 bidea. Bide hau, bere lehengo zatian, belar eta bestelako landareek hartua daukate; beraz, ez da garbi nabarmentzen nondik nora doan zehazki. Oraingoan, daramazun norabideari jarraituko diozu, Irumugarrietako mendiska ez duzu urruti.

6. Toki ireki batera heltzen zarenean, Irumugarrietan (C) izango zara. Hau, Albiztur, Alkiza, Larraul eta Errezilgo herriek muga egiten duten puntua duzu. Zu bezala, inguruko herriren batetik, Zelatunera edo zuzenean Ernio puntara abiatzen direnak maiz pasatzen dira hemendik. Eskuinera, Ernio Txikiko hegian ikusten den bidetik, Larraulen hasten den PR-Gi 77 bidea igotzen da.

Zelatun oso gertu duzu. Ibilbidearen azken zati honek bi aukera ditu: ipar-mendebaldera zuzen jarraitzen baduzu, basabide batetik barrena, ederki ailegatuko zara; bidea, nire ustez, itsusi samarra den arren. Edozein modutan, itzulerako baliagarria izango zaizu. Gero, esango didazu zer iruditu zaizun. Garoa dagoen hegitik igotzea proposatzen dizut. 100 metro eskas egin ondoren, bide batera ailegatuko zara; honek, eskuinera jarraituz, pagadi batera eramango zaitu (D). Pago gehienak moztak dira, enborraren adarretako batzuk moztu dituztelako egurra lortzeko. Garai batean, lortutako egurra, zuzenean etxerako edo, basoan bertan, egur-ikatza egiteko izaten zen. Zerorrek ikus ditzakezu egur-ikatza egiten zen tokiak, lurra berdinduta eta zirkulu-itxura duelako; gainera, ohi baino kolore ilunagoa dauka. Basotik irtetean Zelatuneko muinoa dago, berezkoak dituen bordekin. Ibilbidearen amaiera da. Itzultzeko ibilbidea atzera egitea edo, orri hauetan nahiz beste edonon, alternatibaren bat aurkitzea besterik ez duzu.




Irumugarrieta
gainera iristen.

4 Alkiza

(PR-Gi 79)
Alkiza-Urdanesi-Alkiza

Distancia
6,3 km

Duración
1h 30 min -2h



Deskribapena:

Alkizara joateko PR-Gi 78 Alkiza-Irumugarrieta-Zelatun ibilbidea begira ezazu, 84. orrialdean.

Herrira heltzeko bi errepide erabil daitezke. Herrigunea leku dotore batean dago, kasko batean. Etxeak elizaren inguruan daude; hasieran, etxebizitzatarako eta animalien nahiz lanabesen gorde-leku izateko eraikiak izan ziren. Gaur egun, etxebizitzatarako egiten diren etxeak geroz eta ugariagoak dira.

Elizaz gain, Mendietxea, apaiz-etxea, Mikelena, Lete eta, herrigunetik kanpo, Arana, Aldapa, Azaldegi, Hernio eta Sakamidra bailaretan sakabanatuta dauden beste hainbat baserri-etxe nabarmentzen da.

1. Errepidera irten, Anoetara bidean jarri -udaletxeari begira zaudela, ezkerrera eta metro gutxi batzuk egin ondoren, eskuinera desbiderapen bat ikusiko duzu. Kalezulo honetatik barrena jaitsi eta segituan Lete (A) eta Lete Berri etxeetara helduko zara. Letek daukan armariari errepara iezaiozu, ikusgarria da benetan. Armari honen misterio, data edo biak aurkitzen badituzu, ez zara makala. Hormigoizko bideari jarraitu, Areta baserria gaingitu arte.

1. Bidegurutzera ailegatzen zarenean ezkerrera hartu eta, aurreraxeago, ezkerrera berriro. Atzean bide leun eta ordekatuaren gozotasuna ia utzia izango duzu.

Lete-Berri baserriko atea.



Hemendik aurrera pausoa motzagoa eta biziagoa emateak, aldapa handiegia ere ez dagoen bidean, altuera hartzen lagunduko dizu. Ibilbidearen zati hau PR-Gi 78 Alkiza-Irumugarrieta-Zelatun, 84. orrialdean dagoen bide bera da. Pago batzuen ondoren, eskuinera, pista bat ikusiko duzu, Zelatunera joateko erabiltzen zen bide zaharra; gaur egun, ordea, pista hau ez da erabiltzen, berria egin zutelako -zu zabiltzana-.

2. Honaino ekarri duzun bidea utzi eta, eskuinera, gorako norabidea hartuko duzu. Ez ahaztu gure ibiltzeko usadioaren zati baten berreskuraketan parte hartzen ari zarela. Badakizu, ibilian, ibilian, bidea urratzen da. Goian Santakutz dago. Burdinesi bat gaingitu eta gero, aurrera joan ahala bidea estutu egingo zaizu; ah, baina, hori bai, paraje oso dotore batetik joango zara, Alkiza eta Larraulen arteko harana, Urdanesi eta Arraia ubideekin batera, begien bistan izango baituzu. Lakapidetik barrena segi eta, berehala, Otsozulotara jaitsi beharko duzu. Kontuz joan, zorua higaduragatik zertxobait hondatuta baitago.

Artzainak ibiltzen diren paraje batean sartuko zara; hala eta guztiz, nabarmena da geroa piskanaka-piskanaka belardiak jaten ari dela. Metro batzuk aurreraxeago Itxuraingo tumulua ikusiko duzu goian.

3. Argorri eta Endaizburuko bizkarren artean dagoen bidera aterako zara. Itxuraingo



Lete baserria.

Lizarzelai baserria.



muinoa hemen hasten da. Eskuinera jarraitu; igoera, alertze batzuk dauden tokiraino behintzat, eroso da.

4. Itxurainen, Zelatun gainera doan bidea utzi egingo duzu. Itxuraindik eskuinera jaitsi behar duzu, alertzeak dauden basetik barrena, Urdanesiko errekaraino. Jaitsiera azkarra da, eta Sapozuloetan dezenteko malda izango duzu. Errekara inguratu bezain pronto, bidea lauagoa izango duzu.

5. Ezkerrean ikusiko duzun lehen bidegurutzean, nahi izanez gero, PR Gi 77 Larraul-Irumugarrieta-Larraul bidearekin, 80. orrialdean deskribatzen denarekin, bat egin dezakezu; hau, Unillo Saila muino ingurutik jaitsi eta Loidiko Borda tontorrera joaten da.

Errekaren parez pare jaitsiko zara. Urdanesin bidea eta erreka bi aldiz gurutzatzen dira. Beraz, kontu handiz, ateri egun bat aukeratu beharko duzu, hankak ez badituzu busti nahi.

Metalezko burdinesi gorri bat pasatu eta gero, bidea errekatik aldendu egiten da. Urdanesi txabolaren aztarnak ikusi ahal izango dituzu. Bailara geroz eta estuago bihurtzen da, hainbat ur-jauzi sortuz; horrek, ibilbidea ikusgarriagoa egiten du.

Behin pagadian sartuz gero, bidea suabeagoa bihurtu eta ezkerrera sartzen da. Belardietara iristean ekarri duzun bidea utzi eta eskuinera doanari helduko diozu, eraikuntza kozkor batera ailegatu arte; horrek, karobi bat (B) du aurrean.

Arantzabene, Aritzeta-Erdi eta Aritzeta-Garai baserriak.



Behera jarraituko duzu, Aritzeta Garai baserrira arte; hemendik, eta ezkerrean dagoen bide zaharretik barrena, Aritzeta Erdira heltzeko. Baserri hau, zaharberritzen ari dira, jatorrizko egurra mantenduz.

6. Garai bateko auzo-bideak, gaur garbi eta txukun dagoenak, Aritzeta-Erdi eta Aritzeta-Behe baserrien artean jarraitzen du. Honela, Alkizara arte dagoen hormigoizko bidea saihestu ahal izango duzu. Eskuinean eta goian, kararizko horma handi batzuk ikusiko dituzu; hauetan, euri asko egiten duenean, ur-jauzi dotoreak izaten dira, eta horren inguruan dauden bertako basoekin batera, gune benetan dotorea bihurtzen da –nekea ere arindu egiten du; indarberrituta aterako zara–. Mendizale handiek esaten dutenean mendira igotzen direla, mendia goian dagoelako, egia esan, ez naute konbentzitzen. Nire ustetan, ez dago derrigorrez igoera eta ibilaldi zailak egin beharrik –ezta pentsatu ere–. Lurra ukitu, usaindu, sentitu, zuhaitzei begiratu edota, noizean behin, katagorriren bat pasatzen ikustea bezelakorik ez dago. Baina, jarrai dezagun gure ibilbidearekin, izan ere, Lizarzelai baserria ez nuke ahaztu nahi; honek, eraikuntza estilo bitxia du: teilez egindako estalkia; bestalde, bi uretako teilatua, eta horietako batean gurutze bat. Bidea baserri horren azpialdeko belardietako batetik igarotzen da; nahiko eroso da, ia erabat ordeka. Baserria baino 50 bat metro lehenago, hormigoizko bide batera atera eta, uste baino lehen, herriko plazan izango zara.




Aritzeta-Erdi baserriaren aurrealdea.

5 Hernialde

(PR-Gi 80)
Hernialde - Lizarbakarrako muinoa
- Hernialde

Distancia
9 km

Duración
2h 30 min - 3h



Deskribapena:

Hernialde itsasoz gain 300 metrora dagoen herria da. Bertara ailegatzeko bi aukera daude, biak Tolosako errepide zaharretik: Bentazar parean dagoen errepide estua hartuta edo Anoetatik barrena.

Frontoi ondoa da, ibilbideari ekin aurretik, kotxea uzteko lekurik egokiena. Herriko enparantzak benetan irekia denaren itxura dauka eta herri txiki baten hiru oinarriko elementu ditu, hau da, udaletxea, eliza eta frontoia. Baserriak ere ezin dira ahaztu, ez horixe! Plazara doan errepidean zehar itxura bikaina dutenak ikusiko zenituen, esaterako Miranda, Flores, Urrukane eta Saletxe.

1. Frontoi parean iparralderantz ekingo diozu ibilbideari. Bide batekin topatuko zara, ezkerrera jiratu eta, metro gutxira, eraikuntza kozkor baten ondoan –Bordatxo–berriro norabidea aldatuko duzu, orain eskuinera.

1. Ordekan zoazela eta, ez duzu zertan pausoa bizitu behar. Ibilbidearen zati honek gorpuzta berotuz, ikusmiran piska bat egonez eta, agurra moduan, tarteka-tarteka atzera begiratzu joatea bezalakorik ez duzu. Konturatzerako Urdanbideluze Handi (A), Urdanbideluze Txiki eta Arreginea baserrietara helduko zara. Hemen, Urdanbideluze Handiko estalpean dauden lanabesei erreparatzea merezi du; baina, batez ere, karez zuritutako etxe-pareta da aipagarria, bere egurrezko egi-



Herrigunea,
Arregineatik
ikusita.

tura eta guzti. Eta armarria? Bertan bizi direnetako batek dionez, baserri hau inguruko zaharrenetakoa omen da; 1000. urtean berriztatua izan zela ere esaten da, hortik pentsatu! Hemendik lehenengo aldiz lur-bidea hartu eta aldapa igotzeari ekingo diozu. Zuzen jarraituko bazenu, Ernio inguruko ibilaldiarekin jarraituko zenuke; hau, 120. orrialdean deskribatzen da. Gogorra ez da; baina, patxadaz hartzen baduzu hobe. Halako batean bide-gurutze baten ondoan dagoen basabidera iritsiko zara. Aurrean duzun bidea, zuregana jaisten dena, izango da bueltan behera eramango zaituena; baina, hori gerorako utziko dugu.

2. Behetik gora zoazen bezala, segi eskuinera. Ohartuko zara txukun zaindutako basabidean zoazela; izan ere, inguruko baserriarrek, beraien soro eta belardietara joateko, bide hau erabiltzen baitute. Lasai-lasai jarraitu eta ikusiko duzu nola bidearen alde banatan larreak diren nagusi; baina, segituan pinu insignis beltz eta ten-teak, basoetako gizon grisak deitutakoak, ugaritzen hasiko dira. Bideak mendi-bizkarra inguratzen du. Segi eta, leku aldapatsu batetik barrena, mendi-hegira iritsiko zara; hemen, itxituraz itxitako barruti asko ikusiko dituzu.

3. Hona ailegatutakoan eskuinera hartu eta, mendebalderako norabidean, Mendigainen gora abiatuko zara. Ikusiko duzunez, paisaia izugarri aldatu da: orain itxiturak jatorrizko harri-paretaz eginda daude, arantzadun alanbreak ere bere horretan jarraitzen du. Larreetako belarra subalpetar motakoa gehiago da. Tapa-tapa segi eta ezkerrera dagoen eraikuntza kozkor batera -Elketeira- iritsiko zara. Mendiskara heltzen zarenean bideak gurutzatu egiten direla ikusiko duzu; hemen, ekarri duzun bidea utzi eta hego-mendebalderakoa hartuko duzu. Ah, eta ohartu ez bazara ere, itsasoz gain 645 metroraino igo zara.

Lizabakarrako gaina.



4. Bide berri hau itxitura eta baso kozkor baten muga artean doa. Tarteka garai bateko bide zaharraren aztarnak azalduko zaizkizu (B). Denboran zehar gutxien gastatu diren harriak bide ertzekoak dira; hauetako batzuk jarri berriak dirudite. Bidea, aurrera joan ahala mendebaldera gehiago bentzitzen da. Beraz, zoazen mendi-bizkarrean eguzkiak arratsaldez bete-betean jotzen du. Belarra ugariagoa da eta ez da beste aldea bezain malkartsua.

Bidea, aurreneko metrotan aldapatsuagoa da; zenbat eta aurrerago egin, orduan eta estuagoa egiten da. Metro batzuk egin ondoren, Txotanen bordara ailegatuko zara, Lizabakarra izeneko mendiskan dagoena. Puntu hau ibilbideko altuena da –itsasoz gain 835 metro– eta urrutitik benetan nabarmena geratzen da, inguru berdetsu honetan tontor hau zuriska baita.

5. Puntu honetan, gainera, Hernaldeko herriaren mugan egongo zara. Babesean dagoen mendiska honetatik dauden bistak kontenplatu ondoren, Tolosako barrutietan barrena jarraituko duzu. Lekua egokia da, Ingurutzetatik zehar, Erniozabalera jaisteko eta, kemenik izanez gero, Ernio bertaraino iristeko ere bai. Ibilbideak mendebaldera eramango zaitu, nahiz bide jakinik ez egon. Beherako bidean zoazela hegoaldera jiratuko duzu, belarrak hartutako bide batetik jarraitzeko; honek, mendiska batera eramango zaitu. Eskuinera, itxitura gaingitu ondoren, eta 100 bat metrora, Albizturtik datorren PR-Gi 81 bidea, 96. orrialdean deskribatzen dena, izango duzu. Puntu honetan, herriak banan-banan lotzen dituen bidea, Albizturko bide horretara zuzentzen da, eta zuk egin beharko duzuna Hernalderaino jarraitzea da, baina deskribapenean azaltzen den kontrako norabidean.

Zuhaitz batzuen ondoan metalezko monolito bat ikusiko duzu. Ezkerreko bidetik segi, bide hau bukatu arte. Hemendik aurrera bidea txartu egiten da. Tapa-tapa jarraitu eta pagadian (C) sartuko zara; hemen, arreta handiagoaz joan beharko duzu, jaitsiera arriskutsu samarra delako. Pagoak atzean utzita, berehala, Lizabakarrako erreka ziztorra (D) jaiotzen den tokira helduko zara.



Katebide deituriko bidea, Lizabakarra eta Hernalde artean.

6. Hemendik aurrera ibilbidea erosoagoa bihurtzen da. Ekialdera eta igorakoaren bide erabat paraleloa eramango duzu; baina, hori bai, itsasoz gaineko altuera asko jaitsiko zaizu. Ibilbidean izango dituzun hainbat pago, haritz eta elorriri esker itzal faltarik ez duzu izango. Landaretza bere garai bateko lekuak zirenak berreskuratzen ari da; belar artean lehenagoko artzai-txabolen paretak ere agerian daude.

7. Zuzen-zuzen segi; bideak, orain, ote zuria izango du alde banatan. Ibilbidearen puntu honetan, ezkerrean, itxita dagoen mehatze-aho bitxi bat aurkituko duzu; berari buruz lasai galdetu inguruko jendeari, inoiz entzun ez dituzun istorio harrigarriak kontatuko dizkizute eta.

Belazeetan sartu eta gero, Agerre baserria aurkituko duzu eta Hernaldeko jendearekin ere topatuko zara. Aurrera jarraitu eta Arregineako baserrien ondoan dagoen bidera helduko zara; ezaguna egingo zaizu, hauxe baita ibilbidearen hasieran hartu duzun lehen bidea. Aurrez aurre izango duzu frontoi-atzea eta, beraz, ibilbidearen amaiera ere bai.




Haritza.

6 Albiztur

(PR-Gi 81)
Albiztur - Ortzal - Albiztur

Distancia
9,5 km

Duración
2h 45 min - 3h 15 min



Deskribapena:

1. Ibilbideari behar den bezala ekiteko udaletxetik Ugarteraino joatea duzu onena. Bidean zoazela Urrutikoetxea, Aitzalde, Errekalde, Torrea, Iriarte, Oria, Mitxenea, Elane eta Zubiaurre bezalako etxeak ikusiko dituzu; baina, baita baserri-etxe bikainak ere. Gainera, Albizturko garai bateko ospitale zaharren aurrean oraindik dagoen harraskan ur piska bat biderako hartzen baduzu, ez zaizu damutuko. Ez horixe! Eta halako batean Ugartera iritsiko zara; bertan zaudela, ibilbidetik 100 metrora-edo Gregorio Deunaren baseliza dago (A). Honen berri 1601 urteaz geroztik badugu eta, Gorosabelek dionez, bertan erromesentzako ospitale bat zegoen, Gracia de Goikoetxeak¹ eraikitakoa.

1. Ugarten, bertako kale nagusia utzi eta, aurrenengo aldiz, aldapari heldu beharko diozu; baina, lasai: gogorra iruditzen bazaizu ere, ez da horrenbestera. Gainera, ordeka laster izango duzu; berriz ere etxeak ikusiko dituzu eta, konturaterako, Pagolarena baserrian izango zara; bertan, katean dagoen zakurrak ongi etorria egingo dizu.

2. Behin Pagolarena utzi ondoren, behetik gora doan bidea dotorea da. Zure atzean San Antoneko harrobia ikusi ahal izango duzu. Aurrera segi eta Urrutume baserrira heltzean une batez gelditzea merezi du. Aurrealdean dauzkan moldeatutako harriak ikusgarriak dira, harraskatan bihurtutako bi kararri handi dira, gaur egun nekez ikusten den hargin-lana. Urrutumetik aurrera basabide batean sartuko zara. Puntu honetan, ipar-mendebaldera jo behar duzu, Koruaitz herritik barrena, Elutseta alderako norabidea hartuz. Konturatu zara bidea errepideen tankerakoa dela orain, pausoa emateko erosoagoa. Baina, uraren eraginez higatu egin da eta, ondorioz, bide labainkorra bihurtu da. Kontuz, bada, bertatik pasatzean. Eta bat-batean ekialdera abiatu gero, Olateaga Beheko eta Olateaga baserriak aurrez aurre izango dituzu.

¹ L.P. Peña Santiago. *Las ermitas de Guipúzcoa*. Editoriala: Txertoa. Tokia: Donostia. 1975.

3. Olateagatik gora jo beharko duzu; baina lasai, aldapa-zantzu bat besterik ez da eta. Aurreraxeago, 250 metrora edo, eta Arantzabe baserrira heldu aurretik, mendira doan bidea hartuko duzu. Bide honetan zoazela, zoruan txukun jarritako harri batzuk ikusiko dituzu, belar edo orbel asko ez badago behintzat. Zer diren? Ba, garai bateko bide zahar baten aztarnak. Bidea, Aizkorri Txikitik barrena, iparraldera doa, Albizturko herria Urkizu auzoarekin lotzen duen bideraino.

Honezkero, geldialditxo bat egiteko premia ere izango duzu; beraz, auspoari atseden piska bat eman, kontu batzuk esan eta, mokadu bat hartuz, momentu batez geratzeko aukera izango duzu; horretarako leku egokian izango zara. Hala eta guztiz, gorputzaldi ona ez baduzu edota ibilbidea uste baino luzeagoa egiten ari bazaizu, ez larritu: ezkerrean duzun bidea hartu eta, berriro, Albizturren zara.



Herrigunea.



Otea.

4. Azkeneko ur-tragoa egin ondoren, etorri zaren bidea zeharkatu eta aurrean duzunari heldu beharko diozu. Hasieran aldapa gogor samarra topatzen baduzu ere, lasai egon, ez da luzea eta; ikusiko duzu nola behin Intzaurbe baserritik aurrera pausoa arinago ematen den. Baina argi ibili, zoazen basabidetik bide ziztor asko ateratzen dira eta, noski, deskuidatuz gero, bidea galtzeko arriskua izango duzu. Gainera, basoa hain zerratua delako-edo, zenbait unetan dagoen hezetasuna ikusita, Amazonasko oihanean bertan zaudela ere irudituko zaizu; baina, irudimena besterik ez da izango. Ekialdean Zelaitxikiko gaina azalduko da eta ezkerrean jiratuz gero, Mendikute tontorrari (C) buelta emango diozu. Esaten dutenez, erromatarrek honaino ere iritsi omen ziren, eta horren lekuko Urkizu bertatik ateratzen den bidea duzu, erromatarren erara egindakoa. Inondik ere, merezi zuen zerbaite aurkituko zuten hemen, garai haietan paraje hauetara-

raino etortzeko; turismoa egitera ez ziren etorriko noski. Eta kontu zaharrek ari zaren bitartean, konturatzerako, etxe txiki batera helduko zara; pauso batzuk aurrerago, Ortzale izeneko parajearen, bide berri bat topatuko duzu.

5. Puntu honetan zaudela, eskuinera begiratu eta 100 bat metroa Hernialdetik datorren PR-Gi 80 bidea, 92. orrialdean deskribatzen dena, ikusiko duzu. Hemen, ezkerrean dauden marka txurioriei jarraitu behar diezu. Orduan, metro batzuk lehenago zegoen hezetasun itogarri hura ez duzu izango. Baso irteeran bertan, Gorostiko borda ikusiko duzu. Bide berdinetik segi, tapa-tapa, eta berehala ohartuko zara beste paraje batean zaudela,

Intzaurrondo
baten adarra.

zelaiez josia dagoen Ortzalgoko parajearen hain zuzen. Aurreko baso beltza oraindik buruan duzula, burdinezko langa daukan itxiturara ailegatuko zara; orduan, bidea utzi eta pasadizo estu batetik alantzea pasatzen duzunean, erreka ziztor batera jaitziko zara; hemen, bide berri bati helduko diozu eta bideak, aldapa kozkor bat igota, beste borda batera eramango zaitu.

6. Borda hau eskuinera utzi, eta burdinezko langa pasatuko duzu ondoren; ur-errete-nari jarraituz, piska bat jaitsi eta berritu berria duten Larrarte baserriera helduko zara. Baina, ez joan bertaraino; metro batzuk lehenago ia buelta-erdia eman eta bide berri bat hartu, merezi duena hau ere. Aurrera segi eta zulo batean dagoen Txorrostiti base-riera izango duzu aurrez aurre.

7. Txorrostitik Aristizabal ikus daiteke, ukuilutako bakarrik erabiltzen den baserria. Bidearen goialdean zelaiak, eta behealdean, berriz, Larluz eta Gaztañegi Zulo izeneko parajeak daude. Mendebaldera Txinkortako gaina ikusi ahal izango duzu eta ekialde-
ra, zuloan behean, Salubita edo Igaran erreka ziztorra. Ondoren, Aitzerreka eta Bustindegi Zulo izeneko parajeak atzean utzi eta gero, Antxisaeta baserriera helduko zara berehala.


8. Baserriaren ezkerretatik ateratzen den bideak baserria bera azpialdetik inguratzen du. Bide honi jarraitu beharko diozu. Zokoan dagoen ibar honetako belardietan fenomeno benetan bitxia gertatzen da; izan ere, era ezberdinean, zuri-grisaskak diren haitzetan loraketa ematen da, bertan landaretza tartekatuz. Fenomeno honi Lapiatz edo Lenar (D) deitzen zaio; hau, higadurarengatik eratzen da, atmosferan dauden kaltzio karbonatoak eta anhidrido karbonikoak, eurien eraginez, elkar ukitzean sortzen dena; azkenean geratzen diren formak hemen ikusiko dituzunak dira. Ate estu eta beltz batek hormigoizko bidera eramango zaitu; berau zeharkatu, kontu handiz harrizko eskaileratan jaitsi, eta, honela, Albiztur eta Bidegoian garai batean lotzen zituen bide zaharrera ailegatu arte. Bide honi GR 21 bidea juntatzen zaio, hormigoizkoa hau ere, Xabierko Gaztelua Loiolarekin lotzen zuen bidea hain zuzen. Bukaerara iristen ari zara, azken esfortzu txiki bat besterik ez zaizu falta. Ezkerrean baserri bitxi bat, Guerdizar baserria, ikusiko duzu, eraikuntza-estilo berezia berea, niri beti atentzioa ematen didana. Baserri honek, ibilbidea amaitu duzula adieraziko dizu. Eta hemen bai, ur-trago on bat jotzeko moduan izango zara, jadanik dena bukatu ez baduzu behintzat.

7 Bidegoian

(PR-Gi 82)
Bidegoian - Berazeaga
-Bidegoian

Distancia
7,5 km

Duración
1h 45 min - 2h



Deskribapena:

Herrira, Azpeitia eta Tolosaren artean dagoen Gi-2634 errepidea edo, Goiatzetik barrena, Azpeitia eta Bidaniaren arteko Gi-3740 errepidea erabiliz heldu zintezke; baina, baduzu beste aukerarik ere, ondorengo lerroetan erakutsiko dizkizudanak eta, seguraski, gustuko izango dituzunak.

Altuera piska bat hartutakoan herri hau ezberdina dela ohartuko zara. Eliza nahiz baserriak beste edozein herritan dauden antzekoak dira; baina, horrez gain, eraikuntza estilo ezberdina duten etxeak daude, bikainagoak nolabait esatearren. Horren adibide garbi bat Munoa Jauregia dugu; bestalde, herrigunetik aldenduago, Iriarte Jauregia ere hor dago. Usarraga Zaharrean edo Elsarragan¹ urte askotan zehar bildu ziren Gipuzkoako Batzar Partikularrak. Probintzia osoan beste herri bat bakarra zegoen Errege-pribilegio hori zeukana, Azkoitia; hemen, Basarte baserrian egiten ziren bilerak.

1. - Plazatik abiatuz, eskola aldera igoko zara, erreken bestaldera. Metro batzuk aurrerago etxe kozkor bat izango duzu, eta honen ezkerrean dagoen legarrezko bidetik igoko zara. Ezkerrean, Otegi baserria ikusiko duzu. Hau, atzean utzi bezain pronto, hasi berria duzun ibilbide honen bueltako bidea aurkituko duzu.

1. Bidetik igoko zara; aldapagatik lasai egon, zabala eta egoera onean dago-eta. Ibilbidearen une batzuetan hormigoia botata dago, bidea gehiegi urratu ez dadin. Bihurgunean, eskuinaldetik, bi bide ziztor ateratzen dira; baina, ez kasurik egin. Aldapa, zertxobait gogortu egingo da; erritmoa hartuz gero, ordea, erraz igoko duzu.

¹ *Guía Histórico - Monumental de Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, 1992.*



Bidania.
Atzealdean
Goiaz.

Bi aldetara belardiak daude, eta, bertan, azienda larrean ikustea batere ez harritu. Bidearen bukaeran ur-depositua ikusten da; bertatik, une batez, ikusmiran egotea merezi du (A): aurrean, iparralderantz, Iturburuko mendatea eta Labarritako muinoa daude –azken hau ezagutzen erraza da, tontorrean duen pagadiarengatik–; gainera, Ernio eta Aketegiren arteko mendialdea ere hor dago; era berean, hor ditugu Zelatun, Ernio eta Mako-ko muinoak. Ekialderantz, eta mendiska artetik, Malloas-eko mendi batzuk agertzen dira –Artubi, Oakorri, Aldaon...-. Mendebalderantz, azkenik, Goiaz herria, Bidaniarekin batera 1964an Bidegoian herria eratu zuena, eta Illaun mendia, puntan gurutze txuria daukana, ikus daitezke.

2. Pago arbola dagoen lekuraino helduko zara eta, aurreraxeago, lizar batean dagoen burdinesia gainditu beharko duzu. Bidea, horma eta alertze-ilara batez babestua dago. Puntu honetan, ibilbidea laua izango duzu eta Musondoko tontorrera inguratzen ariko zara. Basotik irten ondoren, beste burdinsare bat izango duzu. Hori da hori pago puska!; zertxobait hondatua dago, baina bere gerriak metro eta erdiko diametroa duela uste dut. Inguruan besteren bat badago, horrelako neurriak dituenik, ordea, ez. Begien bistan duzu Labardain baserria.

3. Baserri honetatik ezkerrean hartuko duzu. Labardain Saletxe baserriaren parean eskuinera hartu eta bertan dagoen burdinesia pasatuko duzu, gero, etxebizitza eta bordaren artetik joateko. Hementxe hasten da belardia zeharkatzen duen herribidea; honek, gero, Zelaietaren hego-hegaleko paraje basotsuraino jarraitzen du. Eskuinaldean, bidegurutze bat dago, Otañonea baserria (Anduti) eramango zintuzkeena. Zuk ezkerrekoari jarraituko diozu. Pago handi baten ondoan dagoen burdinesi bat gainditu beharko duzu.

Puntu honetan lurra nahiko biguna dago (B); orbela ere ugaria da. Garai batean bildu egiten zuten, ganaduaren azpietako; gaur, ordea, ohiturak aldatu egin dira: erortzen den lekuan bertan uzten da, haizearen menpe. Egia esan, orbelak ez du kalterik egiten, lurra birsortzen eta humus geruza handitzen laguntzen duelako. Bidea errepidean amaitzen da. Metro batzuk beherago borda kozkor bat dago.

Esne-marmitak.



4. Berazeaga, "Beiza", baserrira joaten den bidea igoko duzu. Baserri hau, Gipuzkoako lekurik altuenean omen dago, 719 metrotara –hori diote behintzat–. Ez duzu bertaraino joan beharrik; lehentxeago dagoen zagor-bideari helduko diozu. Hurrengo mendiskan, Etxemendi Gaina-ko tontorra inguratzen duen bide zaharrari heldu diezaiokezu, lizar-bide baten parean doana. Bide zahar hau pistaren paraleloa da. Biek, beste muino batean bukatzen dute; bertan, iturri bat topatuko duzu.

5. Iturria atzean utzi ondoren, adi egon! Saihesbidea metro batzuetara dago, ezkerrean. Pista hau utzi eta erreka bateraino jaitsiko zara. Bideak, gero, urkiak eta haritz gazteak dauden basora eramango zaitu. Daramazun bidetik ateratzen diren bide ziztorrei ez kasurik egin. Argiune batean eraikuntza xume bat dago, bideak sakana egiten duela aprobeztatuz. Bideak zirkunferentzi-erdia marrazten du –hemendik, Aralarrek eta Aizkorrik duten itxura zoragarria da–. Bihurgune batean, goroldio dezente daukan horma dago. Puntu honetan ikusiko duzu bidea nola lurreen sartzen den, zanga baten itxura hartuko diozu; tapa-tapa segi eta muino batera helduko zara. Hemen, eskuinaldeko bigarren bidea hartuko duzu eta hurrengo bidegurutzea topatu arte jaitsiko zara.

Baserriko atea.



Goiatzetik ikusita. Atzealdean Ernio.

6. Ubidearekin parez pare jaitsiz, ezkerreara hartuko duzu. Hurrengo bidegurutzean eskuinera hartu eta txabola handi batera helduko zara; hemen, lau bide aurkituko dituzu. Eskuinaldekoari helduz gero, Iturburu baserrira aterako zinateke, eta Gi-34arekin topatuko zinateke, Donostiatik Arantzazura doanarekin alegia. Aurrealdean, bordaren eskuinaldera, bide zaharra ikusiko duzu. Alambreko hesia igaro, eta bide honetatik jarrai ezazu Betelu Goena baserrira iritsi arte. Bidearen zati honetan Balantzategi baserria ikusiko duzu ezkerretara.

7. Porlanezko pistatik Betelu Barrera baserrira iritsiko zara. Ernio erreka (C) iristean, zubia zeharkatu eta mendiaren magaleraino helduko zara. Ubide honek, metro batzuk gorago, lbiri izena du; gero, Iturritxikitarekin bat egitean, biek beraien toponimia galtzen dute. Hau maiz gertatzen da; hau da, erreken nahiz erreka ziztorren izenak aldatu egiten dira. Izen aldaketa hauek, bi erreketako urek bat egitean gertatzen dira. Emaria handiagoa bada, hidronimoa mantendu egiten da, arduradunak horrela erabakiz gero.


8. Hemendik, eta Iturburutik datorren errepidearekin parez pare, Bidegoian herrira iritsiko zara, Eztiola baserritik zehar; gero, Otegitik barrera, herringuneko plazara ailegatzeko.

8 Errezil

(PR-Gi 83)
Errezil - Otsabiaga
- Trintxera - Errezil

Distancia
9,5 km

Duración
2h 50 min - 3h 15 min



Deskribapena:

I. Domingo Erkizia jaun agurgarriaren plazan dagoen udaletxe aurretik abiatuz, eliza eta Akerra elkartearen artetik Gernika plazara jaitsiko zara; hemen, probalekua, tamaina ikusgarria duten harriak eta harriz egindako etxe batzuk izango dituzu -Borondegi, Etxeberri, Etxeaundi Goikoa eta, piska bat aldenduago, Apaizetxea-. Laster herrigunetik aterako zara, hilerri aldera; hemen, Santo Kristoren kapera bat dago eraikita.

1. Bidegurutzetan horretan, ezkerrera jarraituko duzu, txukun asko berritua dagoen Armendi etxerako bidean -etxe ederra, ezta?-. Bertaraino joango zara, eta hasieran inongo biderik ez dagoela iruditzen bazaizu ere, lasai egon, aurkituko duzu eta. Bidea, sigi-saga batzuk eginez, belardi batetik barrena, hormigoizko bidera jaisten da, zubi zahar baten ondoraino -Sastondo erreka urak bertatik igarotzen dira-.

2. Zuk daramazun bidetik jarraitu behar duzu. Ezkerrean, bide zahararen aztarnak ikus daitezke, sagarrondo batzuen ondoan (A) dagoen hurrengo zubian, ordea, desagertu egiten dira. Baina, ez pentsa edozein sagarrondoetaz ari garenik, eh? Errege-sagarrak ematen dituzten sagarrondoetaz, alajaina; izan ere, errege-sagarraren herrian gaude.

3. Idoiaga baserritik abiatu eta, bideari jarraituz, eskuinera hartuko duzu. Aldapa bat-batean guztiz piko bihurtuko zaizu -honerate ekarri duzun bidea kontuan hartuz, gainera, berez dena baino aldapa gogorragoa irudituko zaizu-. Igo eta igo atsedetik gabe, ez duzu beste erremediorik izango, eta hormigoizko bidetik gainera; izan ere, bide berria egin ondoren, auzo-bide zaharretik inor ibiltzen ez denez,



Errezil, ibilbidearen hasieratik ikusita.

denborarekin azken hau ixten joan da. Honako baserri hauetatik igaroko zara: Urdalleta, Urdalleta Saletxe -Solakaraino doan bide zaharra ikus daiteke- eta Ezama; hau, ezkerrera eta aurrekoa baino metro batzuk lehenago dago. Ibilbidearen zati honetatik Ernioko mendialdeak duen itxura dotorea da (B).

Mugin baserria begien bistan duzunean, bidetik atera eta eskuinera biratuko duzu. Bideak belardi batetik barrena eramango zaitu. Bidegurutzetako bat agertuko zaizu, baina daramazun norabideari jarraituko diozu. Behean, belazearen erdian zuhaitz handi bat dago, beste bidegurutzetako batera berahala ailegatuko zaren seinale. Hemen, eskuinera jarraitu eta, hurrengoan, berriz, ezkerrera. Pinudiak ematen duen bezala, altuera hartzen joango zara. Bidegurutzetako berri bat, eta, hemen, pago-ilarak, korridore baten antzera, adieraziko dizu nondik joan. Segituan, Ezama Goena baserri aurrean dagoen ur depositura helduko zara.

4. Baserria atzealdean utziz, eskuinera doan hormigoizko bideari heldu behar diozu. Bideak gora-behera askorik ez dagoen baso batetik jarraituko du eta, tapatapa, Bidania eta Azpeitia lotzen dituen errepedera aterako zara, Urraki gainetik gertu.

5. Errepidean hegoalderantz jarraitu eta Goiatz aldera joko duzu, Otsagabia baserri ingururaino. Hemen, GR 34arekin, Donostia eta Arantzazuko Santutegia lotzen dituenarekin, topo egingo duzu. Bietatik jarraitu eta, baserri aurrean dagoen bidetik barrena, Iturburu gainera aterako zara.



San Migel Goikoa
baseliza.

6. Bidearen amaieran, ezkerraldera hartu eta, iparralderantz, Armoi muinoa inguratuko duzu. Ehun bat metrotan, gutxi gora-behera, bidea estutu eta ekialderantz abiatzen da. Jaisten joango zara, Tonpordo hegalean dagoen higatutako bidetik barrena. Horren amaieran zubi bat izango duzu, errepidera eramango zaituena; Trintxerako gaina da.

7. Aurrera segi, zuzen-zuzen, eta, metro batzuk barru, Errezilgo Ostata izandakoaren aztarnak ikusiko dituzu. Piskanaka bidea estutzen joango zaizu. Paraje irekiago batean, bidetik jarraituko duzu, ahal dela behera egin gabe; gero, Labarritaren behealdetik zuhaitzi batera, Iturburuko Zelaiara heltzeko.

8. Puntu honetan, GR 34a utzi egingo duzu; bestela, Donostiara joango zinateke. Bidegurutze horretan dagoen bide eskuinaldekoenari jarraitu ekialdera eta, 100 bat metro tara Bidegoianetik barrena doan PR-Gi 82arekin bat egin ahal izango duzu.

Daramazun bideari jarraitzeko, jaitsi egin beharra duzu, ez duzu beste aukerarik. Gurdi-bide zahar batetik joango zara; hau, baso-ertz eta harrizko paretaren artetik doa. Honela, Iturburu baserrira ailegatuko zara. Errepideraino jarraitu, baina bertan sartu gabe eskuinera hartuko duzu; garai bateko galtzadan izango zara, Errezil aldera eramango zaituena. Bidea dotorea gertatzen da, batez ere bertatik bailara aldera dauden bistak kontuan hartuta (C). Errezilgo bailararen orientazioa ekialdetik hegoalderakoa da, eta bertako punturik garaiena Iturburu gaina da. Ernio eta Aketegi (Gazume) artean kokatua dago; beste aldean, berriz, honako hauek gailentzen dira: Tonpordo, Urraki eta Urkuruz. Bertan dauden hainbat ibarretatik beste hainbat erreka ziztor jaisten dira, Errezil erreka osatzeko, Urolara heldu aurretik. Bailararen eraketari dagokionez, goialde maldatsua du; jendea bizi den lekutan, berriz, buztin eta igeltsu asko dago eta, ondorioz, behealde lauagoa du. Goi-goitik begiratzen baduzu, ia erabat laua dela ikusiko duzu¹. Berehala, Iburguren baserri eta granjara ailegatuko zara; metro batzuk beherago, berriz, San Migel baseliza topatuko duzu -Leteako, Lezeako eta Leeteko San Migel ere deiturikoa²-.

9. Norabide berdinari eutsi, Aritzeta Azpikoa eta Aritzeta Garaikoa baserrietara heldu arte. Puntu honetan adi egon behar duzu, 75 bat metrora hormigoia utzi eta mendiari heldu behar diozulako. Sigi-saga txiki baten ondoren, bideak Zabal Berri baserrira inguratuko zaitu. Ubideak ematen duen bezala, ipar-ipar-mendebalderantz, San Jose Santutxora ailegatuko zara.

¹ Puntos de interés geológico de Gipuzkoa. Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente. Donostia-San Sebastián, 1991.

² L.P. Peña Santiago. Las ermitas de Guipúzcoa. Txertoa. Donostia. 1975.

Garaa.



10. Auzo-bide horretatik barrena herriguneraino joango zara. Bidean Belamendi baserria ikusiko duzu eta, aurrealdean San Martingo eliza. Gaurkoz bukatu dugu, baina herrigunean, eta inguruan, gera zaitezke piska bat gehiaxeago, gauza interesgarri gehiago ikusiko dituzu eta. Ah, baina hori bai, joan baino lehen bertako sagarrak, eta deribatuak, probatu behar dituzu, eh! Hori da fruta daukaguna hori!




Errezilgo bailara.
Atzealdean
Izarraitzeko
mazizoa.

9 Aia

(PR-Gi 84)
Aia - Iturriotz - Zelatun

Distancia
8,8 km

Duración
2h 30 min-3h



Deskribapena:

Aia Ernio inguruan dagoen herri txiki bat dugu. Bertara joateko Billabonatik abiatzen den errepidea edo, kosta aldetik joanez gero, Orioko gainetik ateratzen dena hartu behar duzu.

1. Ibilbideari ekiteko hainbat aukera duzu. Herriko irteeran, Andazarrate aldera, harriztatutako bidea duzu, itxura onekoa gainera. Nik, ordea, ibilbideari ekiteko, Monja-etxe ondotik abiatzea proposatzen dizut. Bide hau ere harriztatua dago eta zoru ona dauka. Hasieran ikusiko duzu Zarautz herria inguratzen duen PR-Gi 35 bidearekin parez pare zoazela.

2. Herrigunea urez hornitzen duen ur-depositura ailegatuko zara eta, metro batzuk aurrerago, bidegurutzetako bat topatuko duzu. Ezkerrean, metro batzuk beherago, Bekozelaieta etxea ikusiko duzu. Orain, Zarautzeko bideak eskuinera egiten du; zuk, ordea, igotzen jarraitu beharko duzu. Lasai egon, paraje aldatuz zuzena ere ez da-eta; bidea, gainera, igo-erraza da. Aurrera zoazen ahala hainbat belarditakit pasatuko zara, eta, hauetan, artalde kozkorren bat edo beste ikustea batera ez harritu.

Daramazun bidea Andazarrate gainera doan errepidearen ia parean doa; horrela, orientazio hobea edukiko duzu.

3. Azpitarte Berri parean bidea erabat pikoa bihurtzen da, eta, hori, zure hanket, igarriko dute. Ibilbidearen zati honetan, irtenune txiki bat dago, Arretako tontorren parean. Ez zaizu luzea egingo. Bidea, piskanaka-piskanaka, desnibela gaindi-



Aiako herrigunea
Bulanotik.

tzen doa, Olarteta gainera doan hegitik barrena, baina bertaraino heldu gabe. Behin ibarra atzean utzi eta gero, ekialderantz jarraituko duzu; era berean, Ernio Txikiko (A) gailurrera abiatzeko momentua orain duzu. Aiara begira dagoen alderdian otoitzegi bat dago; hau, ekaitz baten ondorioz bere ondasunak galdu zituen baserriar batek jarria da¹.

3. Metro batzuk gehixeago igo eta ordeka handiak dauden parajera aterako zara; hemen, atzealdean, Ikazkiñarrieta duzu eta, aurrealdean, Atxuriko Gaña. Laharra gutxiko larreak dira, dotoreak, eta, bertan, behi-azienda askok bazkatu ohi du. Ibilbidearen puntu honetan, gainera, edonora begiratzen duzula ere, zer ikusia baduzu: iparraldera, Bizkaiko itsasoa eta, ur-putzuaren berdintasunarekin kontraste eginez, tontor asko eta asko daude. Ekialdera, Andatza eta Bulanoren arteko mendialdea eta ezagunagoak edo, gutxienez, bisitatuagoak diren mendi tontorrak; esaterako, Adarra eta Aiako Harria. Hegoaldera, Ernio, Gazume eta Indo mendien arteko parajeak. Eta mendebaldera, Santa Engrazi.

4. Behin burdinsarea pasa eta gero, beherako bidea hasiko duzu. Bidea harresiz hesitua dago; inguruan, artzainen txabola kozkor bat ikusiko duzu. Lizartxon dau den sigi-sagei esker Murgildik gertu dagoen muino txiki batera helduko zara. Hegoaldera, berehala, Altzuru baserria izango duzu; segi eta inguruan ikusiko dituzun baserrietara (esaterako, Altzuru, Zatarain Berri, Zatarain, Orendain, Kortamendi eta Elormendi) eramaten duen auzo-bidera ailegatuko zara. Etxeta Bailaran zaude.

¹ Imanol Goikoetxea. Montañas de Gipuzkoa (orr. 239-240). Txertoa. Donostia 1990.



Ernio-Txiki mendiko bidegurutzeak.

5. Hemendik, Altzuru zelaia izeneko belardi hauetatik, errepidea zeharkatu eta goiari helduko diozu. Lasai hartu; izan ere, aldapa serio samarra baita eta Iturriotzeko benta nahi baino urrunago baitago. Orain daramazun bidea basa-bidea da, aurrera joan ahala garai bateko gurdi-bide bihurtzen dena. Tapa-tapa segi eta Pillostasoroko txabolara aterako zara (550 m). Bideak, zanga baten itxura dauka; hori, higaduragatik da, baina, ibiltzea gustatzen zaigunok ere zeresana izango dugu, ezta?

Erabat hegoalderantz zoaz eta, metro gutxi barru, Aizetsuko bidera aterako zara, Txintxaleku muinotik gertu (592 m). Behin Otagain gaina inguratzen hasten zarenean, daramazun bideari beste bat erantsiko zaio. Bordatxora heldu eta gero, Asteasuko udal-barrutiko mugaren parean joango zara. Hemendik, Iturriotzeko etxe puska (B) begien bistan izango duzu. Ez dakit nola esan, baina... izugarri handia da. Bi uretako teilatua, leihoak nonahi, egurrezko egitura, aterpea, urte askotan lana egindako bi andre... Bertan azkenekoz egon nintzenean, negu luze horietako egun elurtsu bat izan nuen. Hala ere, han azaldu zen andrea, lisa saskian zuela,



Borda, Lizartxo inguruan.

Pontea, Iturriotzeko San Joan basilizan dagoena.



askarako bidean, arropa marruskatze-
ra. Kasta gogorreko pertsonak dira. Iturriotz benta izan zen garai batean. Bere kokalekia ezin hobea zen: transhumantzia bertatik pasatzen zen; gainera, artzainak, merkatariak, bidaiariak eta erromesak bertatik pasatzen eta ibiltzen ziren.


6. Bentaren azpialdean San Joan basiliza duzu. Hau, Aiako barrutien muga-ertzean dago, Errezil eta Asteasurekin muga egiten duen paraje hain zuzen. Ibilbidea, hemen, aldapatsua izango duzu; ia ehun metrotan, gogorra gainera. Gero, ordekek, trikuharria eta Sagaingo txabolak ikusiko dituzu. Puntu honetan daramazun bideak Asteasutik datorrenarekin, PR-Gi 76arekin, bat egiten du. Biak, Zelatunerantz doaz, GR 34arekin batera; hau, Iturriotzeko bentan hartu zenuena duzu, Donostia Arantzazuko Santutegiarekin lotzen duena.

7. Eskuinera jarraituko duzu, altuera piska bat hartzeko; baina, hori bai, orain artekoa baino aldapa suabeagoa izango duzu. Ezkerrean artzainen korta baten aztarnak ikusiko dituzu. Bidean harrizko zorua nagusitzen hasiko da, galtzada baten moduan. Gazume magalean zaude. (C) Mendi guztiari izen honekin deitzen zaio, benetako izena Aketegi duen arren. Gazume izena mendiaren iparraldean dagoen paraje batena da; daramazun biderearen zati bat ere Gazumen dago. Bidea garbi ikusten da, eta bihurgunea eskuinera hartu eta gero, Zelatuneko gaina eta Portumatxako haitza begien bistan izango dituzu, zure ibilbidea amaitu denaren seinale gisa.

10 Iturriozko igoera

Distancia
4,5 km

Duración
1h 30 min



Deskribapena:

1. Iturriotz (580 m), duda-izpirik gabe, Erniora igotzeko abiapunturik ohikoena da. Bertara, autoz joaten da, Andazarrate gainera; hau, Asteasu eta Aia lotzen dituen errepidean dago. Aparkalekuaren ondoan (Asteasu) Iturriotzeko benta dago (Aia) eta, piska bat beherago, San Joan basiliza (Errezil). Aparkalekutik hasten da igoera. Baserria atzean utzi eta aipatutako basiliza arte jaitsiko gara. Honen ezkerretik segi, San Joan erreka zeharkatu eta, jende asko ibiltzen den bidea igo ondoren, Leizeberriko muinora iritsiko gara; hemendik, Sagain Zelaia deitu izan zaion artzain-lekua ikus daiteke.

1. Muino horretatik eskuinera biratuko dugu, Gazume mendi aldera. Piskanaka-piskanaka altuera hartzen joango gara. Galtzeko beldurrik ez dago, ezta lainoa sartzen bazaigu ere: milaka mendizale ibiltzen dira bide



Iturriotzeko bentak aurrealdean duen xehetasuna.

Iturriotzeko benta.



honetatik eta, beraz, nondik joan garbi ikusten da. Honela, Zelatun gainera ailegatu gara (853 m); hemen, lau eraikuntza ikusiko ditugu, tamaina ezberdinetakoak, baina denak, ostalaritzarekin zerikusia dutenak. Erdian dagoen borda urteko asteburu guztietan irekita egoten da, eta leku atsegina da; esate baterako, paraje honetan maiz izaten diren eguraldi heze eta hotzei aurre egiteko, bertan ematen duten etxean egindako kafe beroa -ttantta batekin- ederki sartzen da.




Irailko jendetza, gailurretik gertu.

2. Zelatunetik aurrera jarraituko dugu, hego-ekialderantz doan bidean. Baina, kontuz!, norabide berean doazen bide bat baino gehiago ditugu-eta; guk, gora doanari helduko diogu. Hasieran nahiko bide eroso izango dugun arren, berehala pikoa bihurtuko zaigu. Gero, sigi-saga batzuk eginez, altuera gehixeago hartuko dugu, eraiki berria duten mendi-aterpera heltzeko; hemen, aroak dituen lehen gurutzea, hondar-harrizkoa, topatuko dugu. Gurutze horrek, ezaugarri sendatzaileak dituela esaten da; hain zuzen, erreuma arintzen omen du, baina horretarako, derrigorrezkoa da gorputza arotik pasatzea, hau da, aroa burutik sartu eta, beheraino jaitsi ondoren, hanketatik ateratzea. Puntu honetatik, bidea, ezkerretara hartu eta gero, Ernioko gurutze handira (1.076 m) joaten da; gurutze horrek, gainera, 1.997an 50 urte bete zituen eta urte berean zaharberritua izan zen. Gailurraren inguruan gurutze asko daude, tamainu, materiale eta jatorri ezberdinetakoak. Denak, Gipuzkoako Mendi-Federakuntzak jarritako seinalizazio-ohol baten ondoan daude. Bertan dauden izenak irakurri eta urrutira ikuskatzen diren herri eta mendi tontorrak zein diren antzematen une entretenigarriak igaro daitezke.

11 Etumetako igoera

Distancia
6,5 km

Duración
2h



Deskribapena:

1. Errezilgo Etumeta auzotik (500 m) abiatuko gara. Baserriak eta pabilioiak dau- den inguru horretara (Etumeta Benta, Etumeta Erdikoa eta Etumeta Zaharra), hain- bat tokitatik heldu daiteke, izan ere, bertan amaiera duten zenbait bide gurutzatzen baitira: Errezilgo Bentaberritik datorrena; Aizarnatik datorrena, Santa Engrazi base- lizaren ondotik pasa eta gero; edo, Granada baserritik datorrena, Aiako Iturriotz baserritik abiatzen den hormigoizko bidea hartuta. Bide hauetakoren batetatik Etumetara ailegatu ondoren, gurdibide bat hartuko dugu, errepedearen goialdean dagoen eraikuntzaren ondotik pasa eta gora joaten dena. Hemendik 150 bat metro- ra bidea ixten digun burdinezko langa bat pasatuko dugu; gero, 50 metrora edo, eskuinera doan bidea utzi eta gutxi seinalizatua eta pago batzuk dau- den bide bate- tik igoko gara. Berehala, jende gehiago ibiltzen den bidera aterako gara, alertzeen baso baten ondoan dagoena; hemendik, eskuinaldera joango gara. Aurrera joan ahala, Txoondegi inguratu eta egurrezko hainbat langa pasako dugu, Komizolatza mendi-lepo ospetsura (608 m) igo arte.

1. Komizolatan ehiza-postuez gain, atzealdean habetutako gurutze estilizatu bat dago. Mendi gain ezagun horretan, Etumetatik datorren bideaz aparte, beste hain- batek egiten du topo; honela, ordu erdi baino gutxiago behar da Erdoitzako base- liza jaisteko -eraikuntza benetan bitxia eta interesgarria duen oin zirkularragatik-.

Tapa-tapa igotzen jarraituko dugu; Indo eskuinetik ingu- ratu, puntara igo gabe, eta dezente-ko aldapa betetik, Korosti Haundi muinora iri- tsiko gara (790 m).

Erdoitzako basiliza.



Zelatuneko gaina,
Gazumetik ikusita.



2. Korosti Haunditik igotzen jarraitu eta Mendibeltz eskuinetik inguratuko dugu. Aurrera joan ahala behera doan bide bat ikusiko dugu eta, beste bat, ezkerre- ra aterako da, Urgumeko iturri aldera, baina, ez diegu kasurik egingo. Aldapa pikoa dugu; eskuinean dugun alertzeen basoak, bestalde, ez digu Azketako Erreka bailara garbi ikusten utziko. Eta berehala, ordekan izango gara, altzifreen baso ilun batek hartua duen ordeka batean hain zuzen. Hemendik aurrera ez dugu aldaparik izango; gai- nera, bidea ondo mugatua edukiko dugu, artzainek beraien korten itxiturak egiteko eraikitzen zituzten harrizko paretez hain zuzen. Aurreneko bordak ikusi ahal izango ditugu (Ezurtza, Asulegi) eta, atzealdean, geroz eta hurbilago, Ernio mendia; horren magalean, berriz, Zelatuneko gain ezaguna (853 m). Hemendik Ernio puntara (1.076 m) dagoen igoera "Iturriotzetik igoera" deituriko atalean deskribatzen da.




Ernio gaina.
Atzealdean
Izarraitzeko
mazinoa.

12 Trintxerako igoera

Distancia
4,6 km

Duración
1h 30 min



Deskribapena:

1. Ernio gainaren hegoaldean dagoen abiapunturik ohikoena da; izan ere, Zelatun gaina oso gertu izateaz gain, igo beharreko aldapa ez da handia. Hainbat tokitatik abia daiteke: Bidegoian eta Errezil lotzen dituen errepide gorenean dagoen zahar-kitutako zubitik (556 m); Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen ostatuaren ondoko aparkalekutik; edo, Iturburu baserritik –bidebanatzea aipatutako ostatua baino beheaxeago dago-. Esandako zubiaren goialdetik bideska bat hartuko dugu, aipatutako aparkalekuan hasten den bideraino iristeko. Ez dago galtzeko arriskurik.



Artaldea, Iturburu.
Atzealdean Ernio.

Ernio negu partean.



Honela, Labarritako hegaletatik barrena, Iturburutik abiatzen den gurdibidera iritsiko gara, eta hemen dagoen iturrian ur piska bat hartuko dugu. Tapa-tapa segi, eta tontor txiki batera inguratuko gara (577 m). [Iturburuko iturritik abiatzen bagara, argitalpen honetan seinalizatuta eta deskribatuta dagoen PR-Gi 83 batekin bat egingo genuke]. Tontor txiki horretatik, G.R. 34 ibilbidea, hau da, Donostia eta Arantzazu lotzen dituen bidea hartuko dugu -bide hau, ondo seinalizatua dagoenez, galtzeko arriskurik ez dago-. Nolanahi ere, ipar-mendebalderantz joango gara, Akutu gaina (663 m) eskuinetik inguratuz. Bertara, bi aldetatik kararizko hormez babestua dagoen bidetik joango gara –bide dotorea, ezta?–.

1. Akutu ondoren dagoen muinetik gora jarraituko dugu, ezkerrera sartzen den bidetik barrena. Ipar-mendebalderantz jarraituko dugu igotzen, nahiko zabalak diren bideetatik. Goran gure ibilaldiaren helmuga ikus daiteke, Ernio mendiko gurutzea alegia; inguruan, gainera, orain dela gutxi berreraiki duten borda ere hor izango dugu, gaur egun edonor sar daitekeen mendi-aterpea dena. Aurrerago seinalizatuta dagoen bidegurutze batera ailegatuko gara eta, hemendik ere, gora jarraituko dugu, ipar-mendebalderantz. Berehala, bidea geroz eta estuagoa dela ikusiko dugu; itxuraz ere zerbait aldatuko da: behealdetik kararizko hormak jarraituko du, baina eskuinaldetik, orain, mendiaren hegia izango dugu. Era honetan, ez dugu zuhaitz gehiago lagun izango bidean, Zelatun gaina arte (853 m), orain arte izan ditugun bezala. Bestalde, Zelatunetik Ernio puntaraino (1.076 m) dagoen igoera, Etumetatik dagoena bezalaxe, "Iturriotzetik igoera" deituriko atalean deskribatzen da.




Igoeraren azken metroak.

13 Urkizuko igoera

Distancia
6,6 km

Distancia
2h



Deskribapena:

I. Tolosako auzo txiki honetatik egiten den igoera, atal honetan deskribatzen diren artean, luzeena da, baina, aldi berean, Ernio mendiko geografia gertuen erakusten diguna ere bada, izan ere, ia mendi guztia pasatzeko aukera izango baitugu puntara iritsi aurretik. Bestalde, Zelatuneko muinoa ez dugu igaroko, baina, horregatik, ez pentsa, ibilaldi xoxoa izango denik eta, ondorioz, hemendik igotzea merezi ez duenik. Urkizura Tolosako Benta Haundi ingurutik abiatuz heltzen da (7 km). Tolosatik oinez ere joan daiteke, nahiz 50' gehiago behar izan. Autoa Urkizu Goikoa ondoan utziko dugu; hemen, taberna eder bat dugu, *su-baju* eta guzti, bueltan etortzen garenean zerbait hartzeko leku aproposa. Asfaltatuta dagoen bidea, hemendik 50 metrora utzi, iparraldera abiatu eta harriztatuta dagoen bide dotore batetik igoko gara. Eskuinean harlanduzko eraikuntza bitxi bat ikusiko dugu: iturri-aska bat, gailurrean kararizko bi gurutze (1697) tailatuta dituena. Aurrerago, Gorostizu Goikoa (581 m) eta ur deposituaren artetik pasatu eta gero, gorago dagoen hormigoizko bide batera aterako gara; hau, orain dela gutxi Olamuñon eraiki zen telekomunikazio-antena handi batera joaten da. Hormigoizko bide horri jarraituko diogu. Langa pasatu ondoren, ezkerrean, gora doan bideari ez diogu kasurik egingo. Igoeraren une honetan, bidetik eskuinaldera, 15 metro pasadutxora, dagoen iturritik biderako ur piska bat hartzea hobe izango dugu. Hormigoizko bidearen amaieran, gurdibide bati helduko diogu. Behera doan bideari ez diogu kasurik egingo. Eta halako batean mendi-lepora aterako gara. Pagadi, alertze eta harrizko hormen

Urkizu. Bidea eta iturri-aska.



Uraitz. Atzealdean Aizpel eta Ernio.



artetik barrena, bidegurutze batera helduko gara; hemen dagoen ganaduentzako aterpea eskuinaldera utziko dugu. Hurrengo bidegurutzean, berriz, eskuinera sartuko gara, metalezko langa pasatu ondoren, Lizarbakarrako muinora heltzeko. Azkeneko zati hau, Hernialdetik abiatzen den P.R. bat dugu, orain dela gutxi seinalizatua izan dena gainera.

1. Duen interesagatik, Lizarbakarrako muinoraino igotzea merezi du (836 m). Gogoa eta kemena izanez gero, gainera, Erniozabal aldera igo gaitzeko, honela, gailurreria osoa osatzeko; baina, hemen deskribatzen den bidea ez da Erniozabal tontorreraino heltzen, albotik pasatzen baita, Zelaitxiki (825 m) eta Igorreko Gaina (849 m) pasa ondoren, hurrengo gailurrera iristeko, Uraitzera (1.018 m). Hemendik, Aizpel eta Ernio gainak ikus ditzakegu eta, "andamioz" eraikitako ehiza-postuetatik barrena, Basain Zulotara (935 m) ailegatuko gara.

Bertara, Intxaurbe baserritik abiatuz ere iritsi daiteke; baserri hau, Urkizutik ateratzen den bidearen amaieran dago. Paraje honetan dagoen bordaren albotik pasatzen den gurdibideak, jende gehiago ibiltzen den beste bide batera eramango gaitu (740 m), eta, hemendik, Mendikuteko lepora igoko gara. Hemen, ordekan joango gara bihurgune estu batean bidea utzi arte; bihurgune horretan, eskuinean, beste borda bat izango dugu. "Agoniaren aldatatik" igoko gara, Basain Zulotara heltzeko; hori bai, poliki-poliki joan beharko dugu, bidea, une batzuetan, ez baita hain garbi ikusten. Bestalde, ibilbidearen zati hau erosoagoa da, bertan desnibela txikiagoa delako.

2. Basain Zulotatik abiatzen den bidea, bideska bihurtzen da; bestalde, Aizpel gainaren azpialdetik joan ondoren, zaharberritua dagoen mendi-aterpera helduko gara; hemen, hareharriz egindako gurutzea dago, metalezko aro "mirarigileak" dituena. Puntu honetan, Zelatunetik datorren bideari heldu eta Ernio gainera aterako gara (1.076 m).




1997. urtean berreraikitako borda eta Ernioko gurutzea.

Erniopeko ibilaldia

Distancia
48,6 km

Duración
12h



Deskribapena:

Ibilaldi luze honek, herriz herri eta mendi barreneko bideetatik zehar, Ernio mendia bueltan hartzen du. Ibilbidea ez dago bidea balitz bezala baliztatua, liburu honetan azaltzen diren ibilbideekin bat datozen unetan izan ezik; horietan, baliza zuriak, oriak eta, GR 21arekin eta GR34arekin bat datozenetan, gorriak egongo dira.

Asteasu – Larraul – Alkiza zatia

1. Lege-zaharraren enparantzatik hasi eta Gi-3481 erreperidera abiatuko zara, Larraul aldera. Hirugarren bihurgunean, eskuinaldera doan auzo-bideari heldu eta gorozki-hondakinen araztegi ingurura ailegatuko zara, Beobideetara (Beobide Azpi, Beobide eta Beobide Buru) joateko bidea dagoen tokira. Eskuinera jarraitu; hormigoizko bidea Beobide baserrian bertan amaitzen da. Hemendik, baratze eta belazearen artean dagoen pasabidetik zehar, Beobide Buru eta Larrañaga etxeetara ailegatuko zara. Orain, Gi-3481 erreperidera itzuli eta, tapa-tapa, Larraulgo plazara helduko zara.

2. Plazatik gorako bidean jarraituko duzu, aurreneko bidegurutzera arte. Hemen, ezkerrera hartuko duzu eta hurrengoan ere bai, Larraola baserria heldu arte. Hormigoizko bidea ere hementxe amaituko zaizu; orain, auzo-bide zahar batetik barrena jarraitu beharko duzu. Gero, intxaurren eta sagasti batzuk dauden tokira ailegatzen zarenean, bidegurutze bat ikusiko duzu, eta hemen, eskuinera jarraitu beharko duzu, alertzeak dauden bidetik. Berehala, beste saihesbide batera helduko zara; hemen, ordea, zuzen segituko duzu. Barrutian sagasti zahar bat, soromotur bat eta intxaurren batzuk daude. Bideak behealdera egiten du metro batzuetan. Hurrengo bidegurutzean ere aurrera jarraituko duzu. Puntu honetan, ezkerrealdean, Ibarraren zuloan behean, erreka eta bi errota ikus daitezke. Bata bestearen gainean daude, eta bien artean urtegi kozkor bat dago –ingurukoek botana

Arana bailara. Alkiza.



deitzen diote—. Orain, bideak beheara eramango zaitu. Beste bidegurutze batera ailegatuko zara eta, hemen ere, aurrera egingo duzu, Arraia erreko zubira heldu arte.

2. Zauden bailararen izena ez dago esan beharrik, ezta? Zubitik eskuinera segituko duzu. Igoera suabea da. Gero, bidegurutze batera iristen zarenean, nahi duzun bidetik jarraitu, edozeinetik joaten zarela ere, hormigoizko bide batera aterako baitzara; hau, Garro, Irekilagasti Aranguren, Aranguren Berri eta Urruzolatara (Azpi, Urruzola eta Berri) joaten da. Ezkerrean intsinis pinudi batera igotzen den bidea ikusiko duzu, orain hartu behar duzuna hain zuzen, eta, poliki-poliki, Alkizara ailegatuko zara. Hurrengo bidegurutze berehala duzu; hemen, ezkerrera jarraituko duzu –ibilbidearen zati honetan hainbat bidegurutze dago—. Pista gehiago egiten edo ibilgaitzak direnak zuzentzen ez dituzten bitartean, norabide hau duzu: zuzen jarraitu; ondoren, ezkerrera eta, gero, eskuinera hartu. Gaztainondo dezente dagoen parajeetan, bi bidebanatze ikusiko dituzu ezkerrealdean, baina zuk zeureari jarraitu. Bidearen azken zatian, eta Lete-ra, hau da, Alkizara heldu arte, harlauza handi batzuk ikusiko dituzu zorian jarrita.



Arreginea
baserria,
Hernialdera iristen.



Bidegoian,
Albistur eta Errezilen artean.

Alkiza – Hernialde zatia

3. Alkizako plazara igo; atsedean piska bat hartu; indarberritu; eta, berriro, Letera joango zara. Hemen, errepidea zeharkatu eta, Peru-ko borda aurretik abiatzen den auzo-bidetik barrena, Bentzalaga Txiki eta Bentzalaga baserrietara jaitsiko zara. Orain, errepide zati txo batean (Gi-3630) pauso batzuk bederen eman ahal izango dituzu. Beherantz zoazela, eskuinaldean, Soraitz, Intxaur Handi, Antxita eta Kukutegi baserriak izango dituzu. Kukutegira joaten den bidea edo hurrengo, Arraitza eta Urkullu etxeetara joaten dena, hartu eta Hernialdera eramango zaituen bidean sartu ahal izango zara.

4. Etxearen aurretik pasatu ondoren, mendi-bidea hartuko duzu. Bidegurutzera heltzen zarenean, eskuinera eramaten duen bideari ez diozu helduko; ibarran behera jaitsiko zara, gero, berriro igotzeko. Ezkerraldean bidegurutze bat agertuko zaizun arren, zuzen jarraituko duzu. Aldapa gogortu egingo zaizu. Bidegurutze bat baino gehiago topatuko duzu; denak, inguruko belazeetara doazenak dira eta, beraz, ez joan horietatik barrena. Erreka bat zeharkatu eta, berriro, bidegurutzea; hemen, eskuinera hartu eta haritzak, amerikar haritzak eta, batez ere, pagoak dauden hegian izango zara, paraje dotoreago batean. Pago-ilara atzean utzi eta gero, eskuinera sartuko zara. Niretaz bidearen zatirik dotoreena da, besteak beste, jatorrizko bidea delako eta, zoruan, harlauzak eta harriak ikus daitezkeelako. Behin altuera batera heltzen zarenean, Oria bailara eta, eskuinaldera, hainbat bidegurutze ikus daitezke –ia Senhan etxeraino-. Puntu honetan, hormigoizko bideari helduko diozu, PR-Gi 80arekin bat egin arte; gero, Arreginea, Urdanbideluze Txiki eta Urdanbideluze Handi baserrietatik barrena, Hernialdera iritsiko zara.

Hernialde – Albiztur zatia

5. Hernialdeko frontoitik barrena, etxeetara heldu eta eskuinera hartuko duzu, Etxeberri baserria doan pistatik; gero, belardian dagoen bidetik, Agerre baserriaraino igoko zara. Agerren PR-Gi 80ari heldu eta Ortzal aldera joango zara, Udetako iturriaren ingurura -ibilbidetik kanpo geratzen da iturri hau-. Bideak goraka jarraitzen du, zuhaitzi batean. Hemendik, Mendigain eta Atamireko hegitiak, hegoalderantz joango zara. Halako batean, Lizarbakarrako erreka iritsiko zara. Hemendik, bidea pagadi batean sartzen da. Tapa-tapa segi, eta muino batera aterako zara; bertan, metalezko seinale bat ikusiko duzu. Puntu honetan, balizatutako bidea eskuinera eta gora abiatzen da, Lizarbakarrako muinora iritsi arte. Zuk, ordea, aurrealdean duzun bidean sartu eta ehun bat metro egingo dituzu, eskuinaldera. Bidegurutzean ezkerreara hartu

Errezilen goi-bailara.



eta PR-Gi 81 bidetik jarraituko duzu; honek, Albizturera eramango zaitu.

6. Behin Albizturren zaude-la, Mendikute gaina inguratu duzu. Ibilbidea, beste hainbat pista eta bide dagoen pagadi batetik doa. Zelaitxikiko hegitiak zehar, Intxaurbe baserria iritsiko zara, gero, Albiztur eta Urki-zu lotzen dituen bideraino jaisteko. Jaitsieran, hegoaldera doan auzo-bidea duzu aurrez aurre. Hau, Aizkorriko parajetik barrena, Olateaga eta Olateaga Behekoa baserrietara doan bidea da.

7. Mendebaldera, berriz, Koruaitzeko ipar-hegaletik barrena, Elutsetara iritsiko zara; hemen, ezkerreara hartu eta, moztutako baso batera iritsi ondoren, Urrutume baserria jaitsiko zara. Ezkerrean duzun bidetik, Pagolarena eta, hemendik, Ugartera doan bidea abiatzen da (Gi-3041, Albizturgo herrigunean). Eskuinetik, gorako bidea hartuko duzu, herriko eliza eta udaletxera ailegatzeko.

Albiztur – Bidania zatia

8. Albizturko plazaren eskuinaldean dagoen hormigoizko bidetik gora jarraituko duzu, aurreneko bihurtunera arte. Xabierko gaztelua eta Loiola lotzen dituzten GR 21 eta PR-Gi 81 errepideetatik joango zara. Bihurtunearan, ezkerreko saihesbidea hartuko duzu. Ate beltzetik aurrera, bidea ibilbidetik, une batez, aldendu egiten da, berehala dagoen pagadi kozkorrean; metro gutxi dira. Zuk, ordea, zuzen jarraituko duzu, GR 21arekin batera, baso eta burdinesaren arteko gora. Bidea amaitu baino hamabost metro lehenago, beste bide bat ezkerretik iritsten da; hau, basoan sartu eta Putzue izeneko parajera iristen da –izen hau, bertan ur-putzu txiki bat egoten delako da-. Urputzua zure ezkerrean utzi eta bidetik jarraituko duzu. Hurrengo bidegurutzean ezkerreara sartu eta bost metrora, berriz, eskuinera, bide estu batetik joan behar duzu. Bidean zoazela baserria izandakoaren aztarnak ikusiko dituzu. Igoera, Arrate baserriko barruti mugan dagoen hormaraino, etengabekoa da. Horren parez pare joan iparralderantz eta, gero, ezkerreara hartuko duzu. Tapa-tapa segi, eta azienda egon ohi den parajera aterako zara; hemen, kalera bikain bat dagoela ikusiko duzu. Horren barrua ikusita ez aztoratu, eh! Detritu batzuk baino ez dira... Bidean, ezkerredera



Erniobide eta Goenetxe etxeak Errezilen.

begiratu izan bazenu, "laku handi" eta minda-jauzia ikusiko zenituen; detritua, azken batean, eufemismoa besterik ez da: hazten edukitzen diren animaliek egiten duten kaka. Horrek bai barruak aztoratzen dituela, ezta?.

9. Arrate baserrian zaudela, errepidetik jaitsiko zara: intsinis pinudi eta pagadi baten ingururaino, eta hemendik, auzo-bide zahar batera. Ondoren, ezkerrera hartuko duzu, Arizkoeta baserri aldera. Bidean, ia bere horretan mantendu den karobi bat ikusiko duzu.

Baserri horretatik, jarraituko duzun bidea abiatzen da, Landa baserria baino lehentxego dagoen bihurguneraino. Hemen, erreka gainditu eta, zubi batera iritsi ondoren, ezkerretik igoko zara, Santa Ageda baselizaraino; gero, Muñotik zehar Bidaniara jaitsiko zara, errepedez.

Bidegoian – Errezil zatia

10. Bidaniako plazara iristeko, ekarri duzun bidean gora joango zara berriro. Ezkerraldean eskolak daude eta, ondoren, hartxingazko bidea; hau, Otegi baserria eta etxe baten tartetik igarotzen da. Hemendik igoko zara, eta, baserria pasa bezain pronto, belar-bidea duzu ezkerrean; horri jarraituko diozu. Zoazen bide hau PR-Gi 82a da. Bidea, belardien eta Iturburuko tontorrera doan errepedearen paraleloa da. Ezkerrean Eztiola baserria duzu; metro batzuk aurrerago, berriz, eta erreka zeharkatu eta gero, hormigoizko bidea. Inguruan hainbat baserri dago: Betelu Goena, atzealdean; Betelu Barrena, eskuinaldean; eta, Betelu Goikoa, aurrealdean. Puntu honetan, balizatutako bidetik aldendu eta, ezkerrera, metro batzuk egingo dituzu. Gero, eskuinera sartuko zara, Betelu Goikoa baserri iristeko; honen atzealdetik, Iturburuko Gainera eraman-go zaituen bidea hartuko duzu.

11. Zubiaren ondoan senderismo seinalea dago; izan ere, bertatik honako bide hauek pasatzen dira: GR 34, Donostia eta Arantzazuko Santutegiaren artean dagoen transhumantzi-bidea, eta PR-Gi 83 bidea, Errezilgoa. Errezilera doan bidearen arrastoei jarraituko diezu; hau, Iturburu baserri barrena jaisten da, galtzada zaharretik. Bertatik bailara ikustea benetan merezi du. Sigi-saga batzuen ondoren, desnibela gainditua izango duzu; baina, herrigunera heldu aurretik San Migel baseliza, Santutuxoa, honen ezkerrean dagoen Arabe baserria –izen berezia, ezta?– eta Belamendi etxea atzean utzi beharko dituzu.

Errezil – Aia zatia

12. Eliza aurrean dagoen errepedea zeharkatu eta aldapa piko batetik igoko zara, deposituak dauden tokira. Jarraitu igotzen, eta ezkerrean etxe bitxi bat ikusiko duzu. Hirure Haruzkoatik zehar, daramazun bidea soro baten parez pare doa. Aurrez aurre Berriki baserria duzu. Eskuinera jarraituko duzu. Otegitxe baserri iritsi baino lehen, daramazun bidean, txakur-txabola batzuk daude; beraz, kontuz pasatu bertatik, izan ere, txakur guztiak katean lotuta dauden arren, bide ertzeraino heltzen baitira. Badaezpada makila eramatea, ez zenuke kalterako. Baserriaren ezkerrean dagoen aldapa piko batetik abiatuko zara. Berehala, behi-azienden pabilioia duen baserria begien bistan duzunean, ezkerrera biratuko duzu bidegurutzean. Daramazun auzo-bideak Odria Berri baserri eramango zaitu; baina, hori bai, lahar artetik joan beharko duzu. Lahar gehitxo dagoela ikusten baduzu, ordea, zuzen-zuzen hormigoizko bidera jaitsi zintezke, gero ezkerrera hartzeko. Odriara ailegatu behar duzu, daramazun bidearen azken baserriraino hain zuzen. Bideari jarraituz Zelatuneko gainera helduko zara. Gorako bidean, ordea, bideskaren bat har dezakezu, gailurrera zuzenago eta, ondorioz, azkarrago iristeko.

13. Zelatunetik Aiako GR 34 eta PR-Gi 84 bideetatik Iturriotzeko bentaraino joango zara. Bidea, Aketegi mendi-hegaletik eta Gazumeko parajetik, Sagainera ateratzen da; gero, aldapa piko batetik San Joan baselizara jaitsiko zara, Iturriotzeko bentaren ondora. Puntu honetan, GRa eskuinera desbideratzen da, Andazarrateko Gailurrera ateratzeko.



Borda Sagain Zelaian.

14. Iturriotzen Aiara doan bidea hartuko duzu; hau, PR-Gi 84ari dagokiona da eta baliztua dago. Benta zure atzealdean duzula, ezkerreko bideari helduko diozu. Bordaberri etxera ailegatuko zara, eta, iparralderantz, Otagain tontorra inguratuko duzu. Trintxaleku muinoa atzean utzi eta gero, ezkerrera jaitsiko zara, Altxurutara doan bidera atera arte.

15. Hemendik, aurrera eta gora abiatuko zara, Murgil aldera. Ezkerrean Altxuru base-
rria ageri da. Sigi-saga batzuen ondoren, altuera dezentea hartuko duzu. Lizartxoko parajea da aldapa gehien duena. Gero, burdinesia zeharkatu ondoren, bidea ez duzu hain aldapatsua izango, aldapa zantzua besterik ez. Atxuri gaina albotik inguratu ondoren, eskuinera biratuko duzu, Ernio Txikira abiatzeko; hemendik, Aia aldera jaitsiko zara. Bide eroso da eta, denbora guztian, jaitsierakoa. Bailararen beste aldean San Pedrotik Bulanoko parajera joateko egin behar den igoera dago; aldapa dezentea, ezta? Azken metrotan, bideak PR-Gi 35arekin bat egiten du; bide honek, Zarautz herria albotik inguratzen du, bazter hau Zarautzetik aldendu samarra dagoen arren.

Aia – Asteasu zatia

16. Aiako herrigunean sartu eta plazatik anbulatoriora jaitsiko zara. Hemen, inguruan, garai bateko bide zahar bat aurkitzen da; hau, Auzokalte baserrira heltzen da eta, gero, Dotorenatik barrena, Aialdeburu edo Aldegurura. Errepidea zeharkatu eta Goikoetxetik errepidera jaitsiko zara; hau, gurutzatu eta Bidearte, Mielene eta Martingazti baserrien artean, berriro errepidera irtengo zara. Hemen, bihurtueneraino jaitsi eta Ibarrene baserrira doan bidetik segituko duzu. Gi-4162 errepidea da. Aurrera zoazela, Zialtzeta, Izikondo eta Lokate baserriak ikusiko dituzu.



Elkareta baserria,
Asteasu.

Elizmendi. Asteasuko sarreran.



17. Lokate eta etxe berriaren artean, Uzkudun baserrira doan bidea hartuko duzu, Lokateko Goikogañaren hego-hegaletik barrena. Baserri inguruan izugarritzko artea dago, Gipuzkoan ale batzuk baino ez dauden zuhaitz mota. Altxifreetara iristen zarenean, bertan dagoen bidean sartuko zara, San Pedro, edo Andatza bailara, auzo alde-
ra jaisteko. Zubia gurutzatu eta, errepidez, etxe multzo batera hurbilduko zara.

18. Buristurdin eta Olaetxe artean jarraituko duzu, ezkerrean dagoen bidegurutzeari jaramonik egin gabe. Baserri inguruan bidea asfaltatua dago. Olaberri Zaharrera doan bidean sartu ordez, errepidetik jaitsiko zara, bukatu arte. Guzti hau, Endaia Berri base-
rriaren inguruan egingo duzu. Olaberri baserriaz gain, Endaia Zaharrara abiatzeko ezkerrean dagoen bidegurutzeari atzean utziko duzu. Bidetik igo eta, bidegurutzeari, ezkerrean biratuko duzu. Arbelezko zoruan igotzen zoazen ahala, Mendizabal baserria ikusi ahal izango duzu eskuinean. Gero, pinuditiak irtetean, eta bidegurutzeari batean, ur-
depositu batzuk izango dituzu; hemen, ezkerrean biratu eta Bulano Etxeberri baserri aldera iritsiko zara. Metro gutxira, berriro ere eskuinera biratuko duzu, sagarrondo batzuk dauden parajeraino joateko. Hemen, adi egon zaitez: aurrealdean txabola ba-
tzuk ikusten dituzunean, ezkerrean hartu eta Bulano baserriaren inguruan izango zara.

19. Baserri aurrean eta borden eskuinaldetik errepidea hartu eta aurreneko bidegu-
rutzeraino joango zara; hemen, Saskarateko nekazalturismoa seinalizatuko zaizu. Gero, iparraldetik ekialderako bidean, Bulano mendiaren hegaletik barrena joango zara. Intsusastoroko gainetik, eskuinera, bigarren bideari helduko diozu; hurrengo bidegurutzeari, berriz, ezkerrean hartuko duzu, Ategorrietako bordara jaisteko. Bide ertzean harlauza handi batzuk daude, belardi eta bidearen artean mugarena egiten dutenak. Eskuinaldeko bidetik jarraituko duzu, Aritze baserrira doan hormigoizko bidera iritsi arte. Hemen, bidea beheraka doa, Ondartza Bitarte baserriaren inguruan. Zuzen segitu behar duzu, ura eramateko erabiltzen den etxola arte. Eskuinean, egiten ari diren behi-granja modernoak ikusiko duzu. Ondartza Barrenera iristean, asfaltatutako bidetik segituko duzu hilerriraino, gero, hemendik, Elkareta eta Larre artean tapa-tapa Elizmendiraino iristeko.

20. Elizara iristen zarenean, bertako eskailerak igoko dituzu, ate batetik pasatu eta portikora iristeko. Plazara irten eta Goiko Ostatuak dituen leihoei erreparatuko diezu. Elizmendiko plazatik, errepidez, Santa Kruz baselizarra eta, gero, Asteasura jaitsiko zara. Bidea gurutzatu eta, autoek pasatzea debekatua duten norabidetik, Kale Nagu-
sira jaitsiko zara, Gaztene parean. Honelaxe amaitzen da, bada, herriz herri joaten den ibilaldi hau. Kemenik baldin baduzu, Mallureta baserria ikus dezakezu eta plazan dau-
den eskulturrei errepara diezakezu; horietako bat, gainera, Pello Errotaren omenez jarria da.

Zerbitzuak

TOLOSALDEA TOUR

Ama lurraren ametsak.

Informazio eta zerbitzu turistikoak.

Tel. 943 65 49 72 / e-mail: tolosaldeatour@euskalnet.net



AIA

Argin Nekazalturismoa. Arrutiegia Auzo. Tel. 943-835351
Sagarmaneta Nekazalturismoa. Zarautz Urdaneta errepidea. Tel. 943-133094
Agerresoro-Haundi Nekazalturismoa. Andatza San Pedro Auzo. Tel. 943-835053
Agote-Txiki Nekazalturismoa. Elkano Auzo. Tel. 943-133749
Olaskoaga-Goikoa Nekazalturismoa. Olaskoaga Auzo. Tel. 943-580814
Pagoederraga Nekazalturismoa. Erreka Auzo. Tel. 943-834298
Landarbide-Zahar Nekazalturismoa. Laurgain Auzo. Tel. 943-831095
Orortegi Nekazalturismoa. Orortegi Baserria. Tel. 943-830804
Iturriotzazpi Aterpetxea. Iturriotz Auzo. Tel. 943-890489
Leku-Eder Landetxea. Urdaneta Auzo. Tel. 943-132373
Txangillu Landetxea. Gozategi Plaza. Tel. 943-134435
Zingira Akanpalekua. Olaskoegia Auzo. Tel. 943-132079
Aitzondo Jatetxea. Laurgain Auzo. Tel. 943-832700
Altxerri Jatetxea. Olaskoegia Auzo. Tel. 943-830762
Aristerrazu Jatetxea. Andatza Auzo. Tel. 943-834521
Arruti Jatetxea. Gozategi Enparantza, 15. Tel. 943-834770
Benta-Berri Jatetxea. Aitzpe kalea, 14. Tel. 943-834275
Begoña Erretegia. Urdaneta Auzo. Tel. 943-580841
Errota Erretegia. Urdaneta Auzo. Tel. 835465
Errota Etxe Sagardotegia. Olaskoegia Auzo. Tel. 943-890125
Iturriozena Jatetxea. Gozategi Enparantza. Tel. 943-834272
Izeta Sagardotegia. Urdaneta Auzo. Tel. 943-131693
Jauregi Jatetxea. Gozategi Enparantza, 9. Tel. 943-830215
Kanua Erretegia. Gozategi Enparantza, 11. Tel. 834322
Leku-Eder Erretegia. Urdaneta Auzo. Tel. 943-132373
Olaetxe Jatetxea. Andatza Auzo. Tel. 943-834424
Portu Jatetxea. Santio Erreka Auzo. Tel. 943-832387
Satotxa Sagardotegia. Santio Erreka Auzo. Tel. 943-835738
Sega Jatetxea. Santio Erreka Auzo. Tel. 943-830716

Zingira Jatetxea. Olaskoegia Auzo. Tel. 943-132079
Txakoli Zudugarai. Zarautz-Aia errepidea (Orioko gaina). Tel. 943-830386

ALBIZTUR

Segoretxe-berri Nekazalturismoa-Jatetxea. Sta. Marina Ballara.
Tel. 943-580976
Ugarte Jatetxea. Tel. 943-651728
Elane Jatetxea. Tel. 943-652314
Herriko Etxea Jatetxea. Tel. 943-652508

ALKIZA

Nekazalturismoa Lete. Lete baserria, Alkiza Plaza, s/n. Tel. 943-691264
Nekazalturismoa Urruzola. Urruzola baserria. Aldapa Ballara. Tel. 943-692771
Otsamendi Jatetxea. Alkiza Plaza, s/n. Tel. 943-690186
Ostatu Jatetxea. Alkiza Plaza, s/n. Tel. 943-691836

ASTEASU

Urkidizar Nekazalturismoa. Andazarrateko errepidea. Tel. 943-693083
Ugarte Nekazalturismoa. Beballara Auzo. Tel. 943-692722
Saskarate Nekazalturismoa. Upazan Auzo. Tel. 943-690446
Izurtzu Jatetxea. Andazarrate. Tel. 943-580866
Haize Ona Jatetxea. Andazarrate. Tel. 943-693414
Olarreaga Goikoa Jatetxea. Goiballara Auzo. Tel. 943-690251
Patxine Jatetxea. Kale Nagusia. Tel. 943-691025
Iturri-Ondo Jatetxea. Kale Nagusia. Tel. 943-691331
Asteasu Jatetxea. Errekaballara Auzo. Tel. 943-693708
Martxetaundi Sagardotegia. Beheballara Auzo. Tel. 943-692222
Sarasola Sagardotegia. Beballara Auzo. Tel. 943-652622

BIDEGOIAN

Eguzkitza Nekazalturismoa. Tel. 943-580946
Bengoetxea Nekazalturismoa. Tel. 943-681067
Dendale Jatetxea. Tel. 943-681009
Leku-Eder Erretegia. Tel. 943-681003

ERREZIL

Letea Nekazalturismoa-Jatetxea. Tel. 943-812887
 Izagirre Nekazalturismoa-Jatetxea. Tel. 943-813524
 Etxeberri Nekazalturismoa. Tel. 943-812992
 Borondegí Jatetxea. Tel. 943-151728
 Granada Jatetxea. Tel. 943-815355

HERNIALDE

Albergue: Zuloaga Txiki Tel. 943-650036
 Elketa Jatetxea Tel. 943-653992
 Ostatu Jatetxea Tel. 943-652496

LARRAUL

Herriko Ostatu Tel. 943-691855
 Goiz-Argi Jatetxea Tel. 943-692867
 Apaiz Etxea: 60 lagun arteko taldeentzat (ikastaroak, mendiko irteerak, etab.)
 Tel. 943-311474 y 943-311475

Bibliografía

OROKORRA

Aguirre Sorondo, Antxon. *Guía de Fiestas Populares de Guipúzcoa*. Fundación Cultural "Caja de Guipúzcoa". San Sebastián. 1989.

Aguirre Sorondo, Antxon. *Tratado de Molinología: Los molinos de Guipúzcoa*. Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos. San Sebastián. 1988.

Díez de Salazar Fernández, Luis Miguel. *Ferrerías Guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales: Siglos XIV-XVI*. Fundación Cultural Kutxa. San Sebastián. 12997.

Goikoetxea, Imanol. *Aiztondon barrena*. 1994.

Goikoetxea, Imanol. *Montañas de Gipuzkoa*. Txertoa. San Sebastián. 1990.

Gorosabel, Pablo de. *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa (1862)*. Reedición La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 1972.

Linazasoro, Iñaki. *Caseros de Guipúzcoa*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián. 1974.

Martínez de Isasti, Lope. *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa (1625)*. Reedición La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 1972.

Múgica, Serapio. *Geografía General del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*. Barcelona. S/F.

Peña Basurto, Luis. *Montañas guipuzcoanas*. Gráficas Laborde y Labayen. Tolosa. 1940.

Urteaga Artigas, María Mercedes. *Guía Histórico Monumental de Gipuzkoa*. Diputación Foral de Gipuzkoa. San Sebastián. 1992.

BEREZIAK

AIA

Garmendia Larrañaga, Juan. *Villa Guipuzcoana de Aia: La huella humana en los barrios de Altzola y Laurgain.* Diputación Foral de Gipuzkoa. 1991.

Murugarren, Luis. *Universidad de Aya.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1974.

ALBIZTUR

Elias Odriozola, Imanol. *Apuntes Históricos de Albiztur, Bidegoyan, Regil, Santa Marina y Urquizu.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1975.

ALKIZA

Aramburu Ugartemendía, Pello Joxe. *Alkiza auzo izatetik hiribildu izatera (1347/1731)* B.E.H.S.S. 1998.

Fernandez de Larrinoa, Kepa. *Hitzak, denbora eta espazioa.* Elkar. Donostia. 1991.

Usabiaga Oruesagasti, Hipolito. *El Valle de Aiztondo: Asteasu – Irura – Anoeta – Aduna – Alkiza – Larraul – Zizurkil - Errialde.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1974.

ASTEASU

Usabiaga Oruesagasti, Hipolito. *El Valle de Aiztondo: Asteasu – Irura – Anoeta – Aduna – Alkiza – Larraul – Zizurkil - Errialde.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1974.

BIDEGOIAN

Elias Odriozola, Imanol. *Apuntes Históricos de Albiztur, Bidegoyan, Regil, Santa Marina y Urquizu.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1975.

ERREZIL

Elias Odriozola, Imanol. *Apuntes Históricos de Albiztur, Bidegoyan, Regil, Santa Marina y Urquizu.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1975.

HERNIALDE

Usabiaga Oruesagasti, Hipolito. *El Valle de Aiztondo: Asteasu – Irura – Anoeta – Aduna – Alkiza – Larraul – Zizurkil - Errialde.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1974.

LARRAUL

Usabiaga Oruesagasti, Hipolito. *El Valle de Aiztondo: Asteasu – Irura – Anoeta – Aduna – Alkiza – Larraul – Zizurkil - Errialde.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián. 1974.

KARTOGRAFIA

Goikoetxea, Imanol. *Ernio, 1/25.000.* 1992.

Goikoetxea, Imanol. *Asteasu, 1/1995.*

Tellabide, Josu. *Larraul, 1/7.500.* 1995.

1. PR-Gi 76: Asteasu-Usarrabi-Zelatun	135
2. PR-Gi 77: Larraul-Irumugarrieta-Iturburuta-Larraul	136
3. PR-Gi 78: Alkiza-Irumugarrieta-Zelatun	137
4. PR-Gi 79: Alkiza-Urdanesi-Alkiza	138
5. PR-Gi 80: Hernialde-Collado Lizarbakarra-Hernialde	139
6. PR-Gi 81: Albistur-Ortzal-Albistur	140
7. PR-Gi 82: Bidegoian-Berazeaga-Bidegoian	141
8. PR-Gi 83: Errezil-Otsabiaga-Trintxera-Errezil	142
9. PR-Gi 84: Aia-Iturriotz-Zelatun	143

10. ITURRIOZKO igoera	144
11. ETUMETAKO igoera	145
12. TRINTXERAKO igoera	146
13. URKIZUKO igoera	147

ERNIOpeko IBILBIDEA	148
---------------------	-----

1 Asteasu

(PR-Gi 76)
Asteasu-Usarrabi-Zelatun

1. ibilaldia



2

Larraul

(PR-Gi 77)

Larraul - Irumugarrieta

- Iturriburuta - Larraul

2. ibilaldia



3. ibilaldia

Alkiza

3

Alkiza

(PR-Gi 78)

Alkiza - Irumugarrieta - Zelatun

D
6 C5
4 B

3

2

A

1

I



4

Alkiza

(PR-Gi 79)

Alkiza-Urdanesi-Alkiza

4. ibilaldia



5 Hernalde

(PR-Gi 80)

Hernalde

- Lizarbakarrako muinoa - Hernalde

5. ibilaldia



6

Albiztur

(PR-Gi 81)

Albiztur - Ortzal - Albiztur

6. ibilaldia



7 Bidegoian

(PR-Gi 82)

Bidegoian - Berazeaga -Bidegoian




8

Errezil

(PR-Gi 83)

Errezil - Otsabiaga - Trintxera - Errezil

8. ibilaldia



9 Aia

(PR-Gi 84)
Aia - Iturriotz - Zelatun

9. ibilaldia



10 Iturriozko igoera

10. ibilaldia



2

1

I

11 Etumetako igoera

11. ibilaldia



12 Trintxerako igoera

12. ibilaldia



13 Urkizuko igoera

13. ibilaldia



Erniopeko ibilaldia

Asteasu - Larraul - Alkiza - Hernialde

Erniopeko...



Erniopeko ibilaldia

Hernalde - Albiztur

Erniopeko...




Erniopeko ibilaldia

Albiztur- Bidegoian - Errezil



Erniopeko ibilaldia

Bidegoian - Errezil - Zelatun



Erniopeko ibilaldia

Zelatun - Iturriotz

Erniopeko...

14


13



Erniopeko ibilaldia

Iturriotz - Aia

Erniopeko...



Erniopeko ibilaldia

Aia - San Pedro

Erniopeko...

13


14

15

16

18

17



Erniopeko ibilaldia

Aia - San Pedro - Asteasu

16

17


18

19

20


Erniopeko...





- Iturriotzetik Erniorako igoera
- Etumetatik Erniorako igoera
- Trintxeratik Erniorako igoera
- Urkizutik Erniorako igoera
- Erniopeko ibilaldia
- GR-34-35
- GR-21

1000m 0 1 20km
 Kartografi onarria: Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaularitza



- PR-Gi76 Asteasu
- PR-Gi77 Larraul
- PR-Gi78 Alkiza
- PR-Gi79 Alkiza
- PR-Gi80 Hernalde
- PR-Gi81 Albiztur
- PR-Gi82 Bidegoian
- PR-Gi83 Errezil
- PR-Gi84 Aia

Kartografi oinarria: Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaularitza

Ernio inguruan

Argitalpen honek Ernio mendiaren ezagutza hobetzeko tresna izan nahi du. Ingurune hau mendiak banandu baina era berean elkartu egiten dituen zortzi herriez dago osatua. Liburuxka honetan, Ernio inguratzan duten herri hauen historia-
ren azalpen txiki bat egiten da. Baita ere, zenbait espezialistek bertoko artzaintza, erromeriak, fauna, flora, eta beste hainbat gairi buruzko informazioa ematen dute orrialde hauetan. Bestalde, denok ezagutzen ditugun Josu Iztueta, Koldo Tapia eta Pako Aristiren hausnarketak ere jaso ditugu. Azkenik, Gipuzkoako Mendi Federa-
kuntzak oraindik orain balizatu berri dituen bederatzizko ibilbide deskribatzen dira, Ernio lau igoera ezagunenak, eta argitalpen honetan aztertzen diren zortzi herriak bide zaharretatik zeharkatzen dituen iraupen luzeke martxa bat.

Lan honetan Gipuzkoako ingurune honetara hurbiltzeko behar duzun infor-
mazio-tresna aurkituko du. Saia zaitez gure paraje ederrak ezagutzen!

Edizioa eta
Koordinazioa

erniozaleak
kultur elkartea

Laguntzaileak



Asteasuko Udala



Larraulgo Udala



Alkizako Udala



Hernialdeko Udala



Albizturko Udala



Bidegoiango Udala



Errezilgo Udala



Aiako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



E.B. / U.E.



Gipuzkoako Mendi Federakuntza
Federación guipuzcoana de montaña



9 788493 087012